

puntua
H

Ostalarien erronka:
kalifikazio ona
lortuta, horri eustea

Irene Gantxegi
filosofo oñatiarrari
elkarriketa



Barnealdeko altxorrak

Leintz Gatzagaren eta, oro har, Debagoienaren balio turistikoa bultzatu gura du Gipuzkoako Foru Aldundiak / 5

Joannes Mendizabal Kultura zinegotzia, Eneka Zankada alkatea eta Denis Itxaso Turismo diputatua, Leintz Gatzagako Gatz Museoan.

ENEKO AZURMENDI

Martxoaren 8a: borroka eta jaia

Emakumeen eskubideen aldarrikapenak eta ospakizunak eskutik etorriko dira, beste urte batez, Debagoieneko udalerrietara / Ikus 'Herriak' saila

Collin Abrahall, GBH talde britainiarreko abeslaria: "Kantu ezagun guztiak joko ditugu Oñatin" / 40

SINADURAK



ALEX LABAIEN / 8



JON AZKOAGA UGALDE / 10



AITZIBER PLAZAOLA / 26



ESTEBAN IRUSTA / 35



AGURNE BARRUSO / 48

2 mō betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin

97€

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • EIBAR • DONOSTIA • ERRETERIA
IRUN • LASARTE • TOLOSA • ORDIZIA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan



Eneka Zankada, Joannes Mendizabal, Aitor Larrañaga eta Denis Itxaso, Gatz Museoan. UBANE MADERA

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Aste honetan Leintz Gatzaga bisitatu du Denis Itxasok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo diputatuak. Izan ere, probintziako txoko ezkutu eta interesgarrien aldeko apustua egiten ari da Aldundiko Turismo Saila. "Gipuzkoa osoan badaude baliabide natural asko, txikiak direnak baina oso interesgarriak izan daitezkeenak, gure iragana eta memoria ondo islatzen dutenak. Horregatik, baliabide horiei bultzada ematea da gure asmoa", azaldu du Itxasok.

Baliabide natural horietako bat Leintz Gatzaga dela onartu du Turismo diputatuak eta herri honek daukan ondare turistikoa azpimarratu nahi izan du. "Aipatutako ondare horietako bat, zalantzarik gabe, gatzaga hau da. Izan ere, balioan jarri behar da bere garaian gatzaga egiteko erabiltzen zen prozesu tradizional hori nola ezagutarazten den hemen eta nola dagoen erreproduzitura", gaineratu du Turismo diputatuak.

Probintziako ondare turistiko guztiak sustatzeko ahalegin horretan, helburu nagusia da Donostia ezagutzera datozen turistak barnealdera ere erakartzea. "Gure estrategia turistikoaren barruan, Donostiara etortzen diren milaka eta milaka turistak konbentzitu behar ditugu barnealdea ere ezagutu dezaten. Produktu hau, baliabide naturala den heinean, turista horiei ezagutarazi behar diegu", dio.

Gatzagaren balio turistikoa ardatz

Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo diputatu Denis Itxasok Leintz Gatzaga bisitatu du asteon eta herriak duen ondare turistikoa azpimarratu du; bestalde, gatzaga merkaturatzeko proiektuaren bideragarritasuna ondo aztertu behar dela azaldu du

Itxasok gaineratu du hiriburua ezagutzera datorrenak, hiriaz beraz gain, inguruak ere ezagutu nahi izaten dituela askotan, baina horretarako "konbentzitura" egon behar dela. Horregatik, produktua ondo saltzea ezinbestekoa dela aitortu du. "Denok daukagu turista bat barnean, guztioi gustatzen zaigu bidaiatzea eta leku berriak ezagutzea. Hiri bat bisitatzen dugunean, inguruak bisitatzeko ere konbentzitura egon behar dugu, ziur jakin behar dugu benetan mereziko duela. Horregatik, baliabide natural hauek

**BARNEALDEKO
BALIABIDE ETA
ONDARE NATURALAK
SUSTATU GURA DITU
FORU ALDUNDIAK**

ondo saldu behar dira kanpora begira", zehaztu du.

Ondo saltze horren baitan, Itxasok azaldu du aukera egokiena paketeak osatzea dela. "Paketea ondo osatu behar dugu eta ondo antolatu hemen egon daitezkeen zerbitzu guztiak. Debagoiena eskualdeak badauka gaitasuna eta ondare nahikoa, bai jatetxe eta aterpetxe aldetik, baita historia aldetik ere. Beraz, nik uste dut guztia pakete berean sartu daitekeela, eta, hala, pakete hori erakargarriago egin".

Gatzaga bakarrik ez

Leintz Gatzagako ondare historiko eta turistiko nagusia gatzaga da. Gatz Museoak urtetik urtera bisitari gehiago ditu. Azkenengo bi urteetan, esaterako, diru-sarrerak bikoiztu egin ditu eta bisitari kopuruak ere nabarmen egin du gora. Hala ere, Gatz

Museoaz harago, Leintz Gatzagak baditu beste hainbat eskaintza turistiko. Joannes Mendizabal zinegotziaren arabera, gainera, "beharrezkoa" da hori. "Ez gaudelaku errazean eta jendea honaino erakartzeko, bertara datorrenak jakin behar du gauza asko daudela egiteko hemen: mendi ibilbideak, karobiak, trikuharriak eta, nola ez, ondo jateko lekuak; maila oneko bost jatetxe ditugu eta lo egiteko baditugu hotela, Gaztainuzketako txabolak edo aterpetxeak... Horrek osatzen du egun-pasa edo asteburu-pasa etortzeko plana",

**UDALERRIARI
BULTZADA TURISTIKOA
EMATEKO BIDELAGUN
IZATEKO GERTU
AZALDU DA ITXASO**

aldarrikatu du Kultura zinegotziak.

Leintz Gatzaga

Leintz Gatzaga izenarekin merkaturatu nahi du herrian ekoiztutako gatzaga Udal Gobernuak. Oraindik, ordea, proiektu bat da hori, eta, gauzatu ahal izateko, fundazio bat sortu nahi du Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundia baturako dituenak. Jaurlaritzak da goeneko egin du proiektuaren aldeko urratsa. Izan ere, 50.000 euro bideratuko ditu horretara.

Foru Aldundiari dagokionez, Itxasok nabarmendu du "bide-lagun" izango dela, baina proiektuaren bideragarritasuna ondo aztertu behar dela gaineratu du. "Garbi dagoena da Leintz Gatzagako Udalak, bere kabuz, ezingo liokeela horrelako proiektu bati aurre egin, ez bada erakunde ezberdinen laguntzarekin. Beraz, gu bide-lagun izango gara, hartzen den erabakia edozein izanda ere. Uste dut merezi duela tokiko garapenari lotuta dagoen baliabide bati bultzada ematea; hala ere, proiektuaren bideragarritasuna ondo lantzea oso garrantzitsua da", dio. "Aldundiak erakunde moduan zentzurik baldin badu, hain zuzen ere, da txikiak diren udalerriek eta zailtasunak dituztenei laguntzeko", bukatu du.

2018rako, martxan

Udal Gobernuak 2018. urte hasierarako jarri gura du proiektu hori martxan. Hala ere, bideragarritasun plana ondo aztertu gura du lehenengo. "Gatzagaren ekoizpenaren negozioa bideragarria den edo ez ikusi nahi dugu, lehenik, proiektu hau gauzatu ahal izateko. Horren ostean, instalazioak definitzea geratuko litzaiguke", azaldu du Mendizabalek. Hala, gatzaga bera –gatz lorea eta horren ondorekin eratorritako gatzaga– eta gatzagarekin egindako bestelako produktuak ere –xaboia, gatzdun txokolata– da merkaturatu gura dena.

Gaur egun, egunean bost kilo gatz ekoizten dira Gatz Museoan. "Orain, ekoizpen txikiak egiten ditugu. Baina helburua da herriko kanpo merkaturatzea bertan ekoiztutakoa, Gipuzkoa mailan, Euskal Herri mailan eta Euskal Herriko kanpo ere bai", dio. "Azken urteetako bolada ona mantentzea gura du Udal Gobernuak", gaineratu du.

Isaias Carrasco gogoan izango dute zapatuan

Martxoaren 7an bederatzi urte dira Arrasateko zinegotzi sozialista izandakoa hil zutela; PSE-EEk biha gingo du urteurren ekitaldia; bertan izango dira, haiekin eta senideekin batera, beste zenbait ordezkari; tartean, EAJ, Baleike eta Irabazikoak

Ubane Madera ARRASATE

Bederatzigarren urtez, Arrasateko San Andresko Navas de Tolosa kalean gogora ekarriko dute bertan hil zuela ETak Isaias Carrasco zinegotzi sozialista izandakoa. Omenaldia egingo diote, PSE-EEk deituta, 12:00etan.

Ordezkaritza politiko zabala

Bertan izango dira, ordezkari politikoen artean, besteak beste, Idóia Mendia PSE-EEko idazkari nagusia, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriola sozialista eta Isaias Carrascoren Arrasateko eta Debagoieneko beste-lako alderdikideak ere.

Haiekin batera, EAJ alderdiko ordezkariak ere izango dira, "errespetua eta babesa" transmititzeko, iaz egin zuten moduan. Eta besteak beste, Arrasateko Baleikeko Igor Urizar eta Eva Abuin, eta Irabaziko Juan Luis Merino ere omenaldian izango dira. EH Bilduk, berriz, ez du

ez baieztatu ezta ezeztatu ere han izango denik.

Ordezkarikoez gainera, Isaias Carrascoren senideek ere parte hartuko dute urteurren ekitaldian.

Lanerako atera zenean

Isaias Carrasco PSE-EEko zinegotzi izan zen Arrasateko Udalean 2003 eta 2007 urte bitartean. 2007ko udal hauteskundeetan, PSE-EEren zerrendan, berriz, seigarren lekuan zegoen.

2008an, zinegotzi ez zela, etxetik irten eta lanera joateko autoan sartu zenean tirokatu zuen ETak, Espainiako hauteskundeetarako bi egun falta zirela; Carrascok 42 urte zituen eta hiru seme-alaba.

32 urteko kartzela-zigorra

2015ean Auzitegi Nazionalak Beñat Aginagalde hernaniarra zigortu zuen hilketa horrengatik. 32 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten.



Ordezkarikoez gainera, Isaias Carrascori iaz egindako omenaldian. GOIENA

Lau enpresa lehian Epeleko konpost planta kudeatzeko

Gipuzkoako Hondakinen Kontortzioak lau eskaintza jaso ditu Epeleko Konpostatze Plantaren kudeaketa eta hango konposta merkaturatzeko kontratu publikoaren deialdian: SERKOM, Gestion y Servicio Grupo Moyua SL y Urbaser SA; Cespa Gestion de Residuos SA; Fomento de Construcciones y Contratas SA y Serbitzu Elkartea SL; eta UTE Biomasa del Guadalquivir-Purines Almazan. Martitzenean bukatu zen enpresak lehiaketara aurkezteko epea. Tramite burokratikoak direla eta, hilabete inguru barru esleitu dute Bergarako konpost plantaren ustiapena. Hura eskuratzen duenak lau urterako kontratua izango du.

Erresuma Batuko enbaxadorea Arrasaten izango da

Martxoaren 8an, eguaztena, Simon Manleyk, Erresuma Batuko enbaxadoreak, Arrasate bisitatuko du. Enpresa, hezkuntza eta turismo alorrean lurralde hura promozionatzeko helburuarekin egingo du geldialdia Debagoienean. Hain zuzen, hango abantailen eta aukeren berri emango die bertako enpresari, ikasleei zein herritarrei.

Debagoiena bisitatu aurretik, Iruñea eta Donostia ere bisitatuko ditu. Izan ere, oraingo asteko martitzenean abiarazita, martxoaren 13ra bitartean Estatuko iparraldeko hainbat hiri bisitatuko ditu eta Euskal Herriko hiru hiriok ere sartu ditu bisita erronda horretan.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest

Ana Alberdi
Mendako.
Ikus-entzunezko
Komunikazioa, 4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI • MARTXOAK 4
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO • MARTXOAK 11
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE • APIRILAK 27
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MARTXOAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MARTXOAK 9
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MARTXOAK 11
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA • APIRILAK 6
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • APIRILAK 6
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA • MARTXOAK 18
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436



Elena Lete, Markel Olano, Aintzane Oiarbide eta Beñardo Kortabarria, Deskargako obretan. MIREN ARREGI

Bergara-Beasain 11 minutuan, Deskargatik

Bi urteko geldialdiaren ostean, "lurraldeko azken obra handia" berrabiarazi dute. 5 kilometro luze izango da Antzuola eta Bergara arteko saihesbidea. Behin bukatuta, "lurraldeko herri guztiek ahalmen handiko bide bat izango dute, gehienez, 15 kilometrora"

Ubane Madera DEBAGOIENA

Bi fasetan egingo dizute Deskargako lanak. Oraingo martitzenean abiarazitakoan, lehen fasean, obretako hondakineterako instalazioak prestatuko dira, eta laginak zein prospekzioak egingo dituzte, lubeten-eta zimentze baldintzak egiaztatzeko.

Eta bigarren fasean hasiko dira saihesbidea bera eraikitzen.

Zubiak lehenengo

Azken horri dagokionez, Igeri-barerrota eta Ipurtikako zubiak amaituko dituzte lehenengo: "Kamioiek obra barrutik eginez distantziarik handiena, oraingo errepidearen erabiltzaileei eragin txikiena sortzeko", azaldu zuen Deskargara bertaratu zen Diputazioko Bide Azpiegiturako arduradun Aintzane Oiarbidek martitzenean. Zubiak amaitu ondoren, Antzuolako futbol zelaiaren ondoan egonkortasuna bermatzeko neurriak gauzatzen hasiko dira. Oiarbidek lanon zailtasuna azpimarratu

zuen, eremuaren ezegonkortasuna dela-eta. "Fase desberdinak aurreikusita daude. Garrantzitsua da lehen fasea hasieran egitea, lan horien eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko eurite aldian, orduan gertatzen baitira lerradurak".

5 km, 41,7 milioi eta 25 hilabete

Obra datutan begiratuta, 5 kilometroko azpiegitura eraiki behar dute, 41,7 milioi euroekin, 25 hilabetean, 2019ko udaberrirako. "11 lur-erazketa, 9 lubeta eta 5 egitura erraldoi daude. Horietako batek 60 metroko garaiera izango du; hau da, 20 solairuko eraikin baten garaiera (...) benetako ingeniari-erakustaldia", esan zuen Oiarbidek, azpimarratuz, baita

EGITURA BATEK 60 METROKO GARAIERA IZANGO DU, 20 SOLAIRUKO ERAIKIN BATEN BESTEKO

ere, "agintaldiko mugarri garrantzitsuenetako" bat dela obra hau.

Deskargan izan zen, baita ere, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia eta azpiegituraren "garrantzia" nabarmendu zuen: "Goierrri eta Debagoiena eskualdeetarako eta Gipuzkoa osorako. Obra honek, gainera, eragin zuena izango du lurraldeko ekonomian, nabarmen hobetuko baitira Goierriko eta Debagoieneko loturak; hain zuzen, beren industria, enpresa eta unibertsitateen pisuagatik ezagunak diren bi eskualde". Diputazioko ordezkari-kin batera Bergarako eta Antzuolako alkateak ere izan ziren obretan. Elena Letek bat egin zuen Olanok azpimarratutakoarekin: "Guretzat Zumarraga oso urruti egon da. Honen bitartez gertutasun hori lortuko dugu". Beñardo Kortabarriak, berriz, Deskargan jarri nahi duten bidesaria jar ez dezaten ahaleginduko direla esan zuen: "Uste dugu bertakooi ez zaigula tokatzen eta horren aldeko lana ere egingo dugu".

Arantzazuko Parketxea irekiko dute asteburuan

Bihar eta etzi, martxoak 4 eta 5, Arantzazuko Parketxea berriro ere irekiko dute, hura ustiatzeko lanak esleitu ondoren.

Gipuzkoako Parketxe Sareak Artelatx Ingurumen Zerbitzuak SL enpresari egin dio esleipena. Haiek kudeatuko dute, beraz, zentroko arreta zerbitzua eta dinamizazioa.

Parketxean bisita gidatuak eskainiko dizkiete Aizkorri-Aratz parke naturalaren inguruan gehiago jakin nahi dutenei, eta, horrez gain, aditu eta elkarte ezberdinekin elkarlanean jarduerak antolatuko dituzte. Aurrreratu dute Aste Santuan eta Pazko astean egitarau berezia izango dela bertan.

Horrez gain, ondoko eraikinean dagoen Arantzazuko aterpetxe berria apirilaren 10ean irekiko dute, Aste Santuaren aurretik.



IMANOL BELOKI

Ulman izan da diputatu nagusia

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok eta Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka diputatu Ainhoa Aizpuruk Oñatiko Ulma enpresa bisitatu dute asteon. Olanok enpresa hori jarri du eredutzat: "Krisi garaian 600 pertsona kontratatzeak aukera izan du Ulmak eta halako enpresengatik lortu dugu enplegu-tasa egoki bati eustea".



IGAM

IGAM taldekoak Saharan

"Gogorra izan arren, gozatu egin dugu", diote IGAM taldeko kideek. Martitzenean, Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan egin zen maratoin hartu zuten parte, maratoi osoa osatuz batzuek, erdia beste batzuek, eta 10 kilometroko proba besteek. Korrika egiteaz gain, proiektu solidarioetarako batu dituzten 2.000 euro ere eraman dituzte.

"Esango nuke momentu erabakigarrian gaudela"

JONE GUENETXEA ETA ALAITZ ARTOLAZABAL

TOKIKOMEKO PRESIDENTEA ETA ZUZENDARIA HURRENEZ HURREN

Astelehenean Goiena telebistan izan ziren Tokikomeko bi kideak, eta Txomin Madina kazetariak elkarrizketatu zituen 'Hemen Debagoiena' programarako

Imanol Beloki DEBAGOIENA

Toki Komunikabideen Batera-guneak urteko batzar orokorra izan zuen astelehenean Eibarren; 2016ko memoria tekniko eta ekonomiko izan zuten hizpide, baita 2017rako lan lerro nagusiak zeintzuk izango diren ere. Jone Guenetxea presidente izendatu zuten, eta hura eta Alaitz Artolazabal zuzendaria platoan izan ziren Goiena telebistan, *Hemen Debagoiena* saioan.

Orokorrean, nola joan zen asteleheneko batzarra?

J.G.: Ondo, esango nuke; hainbat bazkide batu gara, eta batzar berezia izan da, presidente aldaketa izan delako; 2017ra begira hainbat erronka finkatu ditugu, eta, alde horretatik, jauzi kuantitatibo eta kualitatibo handia ekarriko du.

Presidente kargua nola hartu duzu, Jone?

J.G.: Berezia izan da kargu-hartzea. Urkok utzi egin du, hainbeste urteren ostean, pena pixka batekin. Urkori agurra emanda, hemendik aurrera normaltasunera itzuli eta lanean jarriko gara.

Jone, zu zeu *Anboto*-ko zuzendaria izan zara orain arte; aurrerantzean zuzendari kargu horrekin jarraitu-ko duzu?



Jone Guenetxea eta Alaitz Artolazabal, Goienako platoan. I.B

J.G.: Biak bateragarriak dira. Gainera, presidente izateko eguneko pulsu hori ere... egunero-kotasunarekin eta egunero bizi dugun egoerarekin, biak elkarrekin aurrera eramango dugu, ikusiko dugu nola...

Urko Aristik esan bezala: "Eskatu-ko nioke lotsagabekeria gehixea-gorekin aritzeko, eta guztiei entzuteko, ahal dela, erori barik..."

J.G.: Saiatuko gara lotsa barik aritzen, baina errespetuz aurrera egiten sektorearen barruan, baita Tokikomen barruan. Eskertzen dira Urko Aristiren aholkuak, egian, presidente oso

ona izan da, bai maila profesionalen, pertsonalean ere bai, asko estimatzen dugu, eta hutsunea sumatuko dugu.

2016a nolakoa izan zen Tokikomen-tzako?

A.A.: 2016rako helburu bezala proiektu ezberdinak markatu genituen, dibertsifikazioa, ikuspegia zabaldu eta bestelako gauzetan lan ildo batzuk irekitzearena. Definitu genezake 2016a proiektu berriak egosten eta lantzen hasteko urte bezala dibertsifikazioaren ildo horretan. Alor desberdinetakoak publikitatean, kazetaritza ikuspegitan,

baita kudeaketa alorretik. Proiektuz jositako urtea izan dela esan dezakegu.

Proiektu horietako garrantzitsuenen artean bat aipatzeko modukoa?

A.A.: Esate baterako, komunikazio talde moduan, hor badago *Ekonomia gurean* proiektuarena. Gipuzkoako Foru Aldundia-ren babespean antolatu dugu, bailaraz bailarako saio desberdinak, ikus-entzunezkoak, eta paperezkoak, bailara horren ekonomia-aren erradiografia bat egiteko asmoz, eta denekin batera Gipuzkoako errealtate desberdina helarazteko. Elkarlanean, ikus-entzunezkoak, paperezkoak, alor digitalari hauspoea emanez.

Kontu ekonomikoak nola daude Tokikomen?

A.A.: Kontuan izanda proiektu hau duela bost urte hasi zela, hasierak ez dira errazak izaten, baina azkenengo bi urteetan hasi gara hasiera horretan ematen diren pausoen fruituak jasotzen eta txukun antzean bukatu dugu urtea.

2017ra begira zein lan lerro nagusi markatu dituzue?

J.G.: Tokikomeko arduretako bat edozein komunikabidek gaur egun duen ardura hori da. Digitalizazioak iraultza ekarri du, bai informazioa kontsumitzeko ohituretan, baita lan egiteko moduetan ere. Negozio ereduaren hausnartu beharra dago webguneetan, Interneten, eta horrek eragin du beste edozein komunikabideetan moduan, Tokikomen ere plan estrategikoak eta helburuak horren inguruan ezartzera. Gure ardurak beste edozein komunikabidek dituen ardurak dira: sare sozialak, Internet, nola integratu papera eta webgunea... momentu erabakigarrian gaudela esan-

go nuke, hedabide guztietan, eta horra bideratutako hainbat ekintza martxan jartzen hasi gara.

A.A.: Batzarrean hiru lan ildo nagusi aipatzen ziren. Batetik, komunikazioaren profesionalak garen heinean, profesionalentzako tresnak ematearena, edo bi palanka aztertzen ziren baliabideetan. Bata, inbertsioak, batera egin ditzakegunak, tresna profesionaletan apalankatutako jarduera bat bultzatu ahal izateko, eta hor aipagarria izan daiteke edizio sistema bateratua. Nolabait, denok plataforma komun batean, era profesionalen, jarduteko aukera. Bestalde, formazioa ere bai. Kudeaketa alor komertzialean, eta kazetaritzan lan ildo batzuk landuko dira. Interneten, panoramaz aldatu da guztia, ikus-entzunezkoek ere pisua hartu dute, hori guztia nola artikulatu, nola eman forma eta horretarako prestatzeko, erronkarako proiektuak bideratzea izango litzateke beste atal bat. Eta azkenik, sarea, sendotu, sinergiak ahalik eta gehien usiatu eta Tokikom bezala hor lekua egin.

Sinergiak aipatu dituzu, sareak aipatu dituzu... baina Tokikomen barruan, hainbat hedabide daude, denak batera, baina nork bere nor-tasunari eutsiz?

A.A.: Behetik gora sortutako egitasmo bat da, eta horrek egiten duena da nork bere nortasunari eutsi, eta, ahal dela, indarrak batzeko helburu horrekin jardun.

"TOKIKOMEKO ARDURETAKO BAT EDOZEIN KOMUNIKABIDEK DUEN MODUKOA DA"

"Jauzi kualitatiboa" ekarriko du Kudeaketa Planak

Tokikomek, Toki Komunikabideen Bateraguneak, egindako batzarrean, nabarmendu zuten, besteak beste, 2017a profesionalizazioaren urtea izango dela, eta Kudeaketa Planak "jauzi kualitatiboa" ekarriko duela "euskarazko toki komunikabideen profesionalizazioan", esan zuen Alaitz Artolazabal zuzendariak.

Horrekin batera, besteak beste, honako proiektu hauek nabarmendu zituzten:

- Edizio sistema bateratua: taldekako negoziazio honi esker, aldizkari bakoitzak une

oro kontrolatu ahal izango du zer puntutan dagoen hurrengo zenbakiko orrialde bakoitza, erraz uztartu ahal izango du erredakzioan bertan eta kanpoan dabilzan erredaktoreen lana, *online-offline* edizioa optimizatu, artxibatze lanak erraztu eta, oro har, lan banaketa eta produktzioa era eraginkorragoan egin ahal izango du.

- *Gurenews* sistema Plataforma Digitalarekin integrazioa: automatikoki aztertuko ditu tokiko agerkari digitaletan argitaratzen diren edukia, albiste

bakoitzean agertzen diren pertsonak, lekuak eta entitateak automatikoki atzeman eta haiekin datu-base bat osatzen joateko.

- *Gurean* atari tematikoa: toki komunikabideek argitaratutako albisteak emango dira, gaiaren arabera antolatuta.

- Publizitate kanal integrala: 2017an publizitate kanal integrala egituratzea izango da Tokikomen zeregin nagusienetako bat.

"Interlokuzio bakarrarekin, Tokikomek berak zein bere bazkideetako bakoitzak aukera du jadanik publizitatea eskaintzeko bere medioan zein taldea osatzen duten beste edozeinetan", azaldu du Artolazabalek.

Bartzelonako OnlyMedia.Web marketin enpresarekin egindako hitzarmenari esker, gainera, toki komunikabideen publizitate eskaintza Bartzelona eta Madrilgo publizitate agentzietara ere iritsiko da.

- Ikus-entzunezkoetan edukien ekoizpen eta hedapenari heldu nahi dio Tokikomek, *on line* kanaletan duten garrantziak jabetuta, eta gogoeta eta formazio zikloak prestatzen ari da adituen eskutik.

- Lurraldekako erakunde harremanak: maila korporatibo-instituzionalean, ahalegin berezia iragarri du lurraldez lurraldeko administrazio publikoekiko harremanak sendotzeko.



David Zurutuza futbolaria kanpainarako erabili den Mozambiqueko hainbat nekazariren argazkiaren aurrean. MUNDUKIDE

Bidali zure SMSa eta lagundu partida irabazten

"Mozambique iparraldean ahaztuta bizi direnei partida irabazten laguntzeko bultzada eta babesa eskatu nahi dizuet"; David Zurutuza futbol-jokalariaren mezua da hori, Mundukide Fundazioaren proiektua bultzatzen laguntzeko kanpainarena

Goiena komunitatea

Urri Urizar / Mundukide Fundazioa
DEBAGOIENA

David Zurutuza futbolariak eta Mundukide Fundazioak SMS kanpaina jarri dute martxan otsailetik apirilera bitartean *Lagundu irabazten* lelopean, Mozambiqueko nekazarien egoera ekonomikoa indartzeko helburuarekin. "Ezagutzen ditut gureak baino partida garrantzitsuagoak jokatzen dituzten pertsonak. Egutero-egutero familia elikatzekeo janaria jokoan izaten dutenak, lurrean edo koltxo gainean lo egitea, sem-alabak eskolara eramatea edota medikua bisitatzea jokoan jartzen dutenak", dio Realeko jokalaria.

Garapen sozioekonomikoa

Orain dela 17 urte hasi zen Mundukide Fundazioa Mozambiqueko nekazariarekin batera bizitza duinagoa izan ahal izateko pausoak ematen. Emakume eta gizon nekazarien gaitasunak sendotu eta azpiegitura egokiak sortzen oinarritu da programa urte hauek guztietan; hain zuzen ere, bertako nekazariarekin batera garapen sozioekonomikoa indartzea da fundazioaren helburua. Arrakastaz dihardu bide hori egiten, gainera. Eta arrakasta horren oinarria izan da, bereziki, errepideak eta ureztapen sistemak hobetzea, nekazariari zuzendutako mikro-kreditu sistema ezartzea eta nekazaritza tekniken optimizazioa.

Euro bakoitzak balio laukoitza

Mozambique iparraldean nekazaritza da jarduera nagusia, bizi itxaropena 55 urtekoa da eta familia askok 100 euro baino gutxiago izaten ditu urte osorako. Jadanik badira 80.000 pertsonatik gora onuradunak. 2016an programak egindako inbertsioa 973.645 euro izan zen eta nekazariak lortutako ekoizpenaren balioa, berriz, 4.000.0000 euro. Beraz, zuk inbertitutako bakoitzaren balioa laukoitzu egiten da baserritarren eskuetan.

Olatua harrapatzea

Nekazariak behar beste lur dute eskura eta ikusgarria da orain arte sabana izandako lursailak nola ari diren baratze bihurtzen

eta urte guztian lur emankor izan daitezen ureztatzeko sistemak ezartzen. Datutan: 10 urtean, sabana-ko milaka hektarea baratze bihurtu dira, 30.000 familiatik gora elikagai berriak ekoizten ari dira eta urte osoan lurra emankor mantentzeko ureztapen sistemak gero eta ugariagoak dira. Emaizta da, beraz, familia elikatzekeo eta merkatuan saltzeko produktu barietateak gero eta ugariagoak direla ekonomia eta bizi kalitatea hobetuaz.

Elefanteak eta lehoiak bizi diren paraje ezkutatu bezain ikusgai honetako pertsonak altxorra bilatu dute eguneroko lanean. Jakinean daude, lurrari behar duena emanez gero, erabat esker onekoa bihurtzen dela altxor preziatua bihurtuaz.

Baratzeak emankor bihurtu dira urtegiekin, hazi eta lantzeko tresneria egokiarekin, nekazaritza teknikariekin... Gero eta nekazari gehiago dira beste ekoizpen motelagoak alde batera utzi eta programaren baitan ari diren gizon-emakumeekin auzolanean bat egiten dutenak. Olatua harrapatu da eta goiari eutsi behar zaio.


Ikusezinengatik aurpegia eman

Mozambiqueko nekazariak munduarentzat ikusezinak direlako, Malen Ruiz de Azua Espainiako txapelduna den pertika-jauzilaria, Oihana Aldai Oiartzun futbol taldeko atezaina eta Mikel Gonzalez Realeko jokalaria bezalako pertsonaia ezagunek David Zurutuzarekin batera aurpegia eman dute *Lagundu irabazten* kanpainari oihartzuna eta bultzada emateko.

'Zuru'-ren kamiseta opari

Malenek, Oihanak, Mikelek eta Davidek SMS batekin taldekide izatera gonbidatzen zaituzte, *Mundukide* hitza 28014 zenbakira bidaliaz -1,20 euro-. Bidalitako mezu guztien artean *Zuru*-ren kamiseta zozketatuko da.

Batutako dirua erabiliko da nekazaritzarako teknikariak kontratatzekeo, besteak beste, nekazaritzako teknika berriak irakatsi ditzaten. Hori egiten da aurreratuago dauden beste probintzia batzuetako nekazariak kontratatuz nekazaritza kanpaina bakoitzeko: arroz ekoizpen teknikariak, sesamo ekoizpenarenak, baratze gintzarenak... Urtean 100dik gora lagunak parte hartzen dute halako kanpainatan.



IMANOL GALLEGO

"Gehiagori eskaini nahi diegu aukera"

URRI URIZAR

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

la 20 urte daramatza Mundukide Fundazioak Mozambique iparraldeko bizilagunei laguntzen. **Zergatik aukeratu zenuten Mozambique?** Mozambique munduko 10 herrialde pobretuenen artean kokatzen da, eta bertako biztanleen bizitza itxaropena 55 urtekoa da. Nekazaritza ekinga nagusi den iparraldeko eskualdean, familia asko urtean 100 euro izatera ez dira iristen.

Zeintzuk dira hurrengo pausoak?

Programa oso emaitza onak izaten ari da. Milaka pertsona dira programaren babesari esker eguneroko bizitza hobetzen ari direnak. Aurrerapausoak, berriz, beraien lanari esker lortzen ari dira, inolako limosna eta inorenganako dependentziarik gabe. Baina oraindik milaka familia dira nekazaritzako teknika eta kultura berriak ez dituztelako ezagutzen pobrezia gorrian bizi direnak. Beraz, gero eta nekazari gehiagori luzatu nahi diegu programan parte hartzeko aukera. Lan handia eta denbora luzea ekarriko du aurrerantzean ere, baina, helmuga urruti ikusi arren, orain bizitzen ari garen momentua orain dela 17 urte ere erabat urruti ikusten genuen. Izan ere, milaka eta milaka pertsonaren bizitzan ikusten ari garen aldaketak ikusita, bihotzak aurrera egitera garamatza soilik.



MALEN RUIZ DE AZUA
PERTIKA-JAUZIAN TXAPELDUNA

"Erronkak gogoko ditut eta horrelakoek gehiago betetzen naute".



MIKEL GONZALEZ
REALEKO JOKALARIA

"Mozambiqueko nekazariarekin batera bizitzako partida irabaztera goaz".



OIHANA ALDAI
OIARTZUNGO ATEZAINA

"Partida batzuk besteak baino inportanteagoak dira. Denon laguntza beharrezkoa da".

Esker onez Karitateko Ahizpei

LOURDES IDOAGA, MARIJO ETXEGOIOEN ETA TINA KORTABARRIA
EAJ-PNV-REN JUNTAKIDEAK SAN MARTIN EGOITZAN OÑATI

Haurrak ginenetik gure artean sentitu ditugu beti Oñatin Karitatearen Ahizpak kongregazioko mojak. Gogoan ditugu guztiok haien buruko estalki hegaldunak. La Milagrosa eskolako irakasle gisa ere ezagutu genituen eta Eguberri garaian jartzen zuten jaiotzak liluratu gintuen urtez urte.

Denbora igaro ahala, oñatiarrok mojen bokazio eta izateko arrazoia ezagutu genuen: behar gehien duten pertsonen, behartsu eta gaixoei, laguntzea, hain zuzen. Guztiok izan gara mojen lanaren lekuko eta guztiok ikusi dugu nola haiek, etxez etxe eta bereziki gauez, gaixotasunaren unerik gogorrenetan eta hilzorian kontsolamendu espirituala eta laguntza eskaintzen zieten gaixoei, baita atsedenaldia ere trantze txar hori pasatzen ari ziren senitartekoei.

Duela urte asko hasi ziren mojak behartsuei, gaixoei, gizarte-bazterketa jasaten

zutenei edo mendekotasun egoeran zeuden pertsonen laguntza eskaintzen. Zerbitzu hori gaur egun Osasun eta Gizarte Zerbitzuetatik bideratzen den laguntza unibertsala bilakatu da, baina, horrelakorik ez zegoenean, mojek bere bokazioa eskaini zioten behartsu eta baztertuak laguntzeari. Horregatik, Karitateko Ahizpak egungo sistemaren aitzindariak dira eta berariazko aitorten hori eman nahi diegu.

Gainera, azken 10 urteotan, San Martin egoitzaren batzordekide gisa, egunez nahiz gauez bertan bizi diren pertsona nagusiak zaindu eta maitatzeko mojek eginiko isilpeko lana eta guztiei eskainitako babes espirituala eta giza berotasuna egiaztatzen aukera eta zortea izan dugu. Eta lan hori ere ikustarazi nahi dugu lerro hauetan.

Orain, kongregazioak Oñati uzteko hartu duen erabakiaren lekuko gara. Aldaketa guztietan gertatzen den moduan, San Martingo egoiliarrek ere mojen irteerak utzitako hutsune emozionala sentituko dute. Hala ere, ziur gaude egoitzako gainerako langileek –erizainek,

sukaldariek, harrerakoek, terapeutek, zuzendari eta koordinatzaileek...–

erakutsitako profesionaltasunari esker, orain arteko kalitatezko zerbitzua bermatzen jarraituko dutela.

Eskerrak bihotzez karitateko moja bakoitzari.

Beste kolpe bat konponbideari

JULEN ARANBURU
OÑATIKO SORTU OÑATI

Joan den asteazkenean, 80ko hamarkadatik ihes eginda zegoen Anjel Telleria Uriarte atxilotu zuten Mexikon. Anjel oñatiarra da jaiotzez, nahiz eta oso txikitatik Bilbon bizi izan. Atxilotu ostean, INM Instituto Nacional de Migracion-era eraman zuten, hurrengo egunean bertan estatu espainiarraren esku uzteko.

Audientzia Nazionaletik pasa ostean, epaileak Soto del Realeko espetxera (Madril) bidali du, egozten dizkioten delitu guztiak martxoan preskribatu behar zizkiotenean, hain zuzen ere.

Sortutik irmoki salatu nahi dugu atxiloketa berri hau. Ez baita kasualitatea Anjeli

egotzitako delitu guztiak preskribatu baino hilabete lehenago atxilotu izana. Euskal herritarren gehiengoak konponbidearen aldeko hautua egin dugun bitartean, estatuek errepresioaren eta jazarpen polizialaren alde egiten dute; Sara Majarenasen eta bere alaba Izarren kasuak, dispertsioak eragindako azken istripuak, Instituciones Penitenciarias-en barne agiriak –non larriki gaixo diren euskal presoak "oso epe motzean" eta "ziurtasun nahikoaz" hilko badira soilik askatuko direla zehazten den, *El País* egunkariak berriki zabaldutakoaren arabera– zein atxiloketa honek argi erakusten dutenez. Mendekuan eta garaileen eta garaituen kontakizunaren logika baten barruan soilik uler daiteke espainiar estatuaren jarrera hau. Ondorioz, Mexikoko estatuari eskatzen diogu logika horren baitan ez kokatzeko.

Ez dugu egoera hau bake egoera bezala ulertzen. Gure aldetik, indarrak batuz eta eragile sozial zein politikoei elkarlanean konponbidearen alde lanean jarraitzeko apustua berresten dugu. Euskal preso eta iheslariak etxera.

Kuota garestia

ANJEL LERTXUNDI
[HTTPS://LABUR.EUS/SRNYG](https://labur.eus/srnyg)

Gustukoak ditut Non dago Wally? bezalako jolas bisualak. Begiek lehen kolpean ikusi ez dutenaz jabetzen laguntzen dute. Halaxe Vocento taldeko atzoko egunkarietako argazki handi koloretsu batek. Bertan, ehunka pertsona hamarnako mahaietan gosaltzen Espektatiba Ekonomikoa Foroak antolatutako enkontruan. Lehen planoan, Lehendakariaren mahaia: bederatzi gizonetako eta emakume bat. Bigarren planoko bi mahaietan: bederatzina gizonetako eta emakume bana. Hirugarren planoko lau mahaietan: idem amen hiru mahaian, baina ez da garbi ikusten laugarreneko gosaltzar denak ez ote diren gizonetakoak. Argazkiaren atzeko partean, mahai ugari eta ehunka gizonetako, eta bospasei (edo) emakume besterik ez. [...]

"Zerbitzu sozialei eusteko" erreforma fiskala zuten hizpide han bilduek. Ulergarria emakume-faltarena: zerbitzu sozialei eutsiz beren kuota betetzen ariko ziren han-hemen.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



ARATUSTEETAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

Lehiaketan jaso diren argazki guztiekin zozketa egin dugu eta bergarar bat izan da irabazlea:

Maite Arantzabal

Harentzat, beraz, Baskonia – CSKA Mosku partidua ikusteko bi sarrera!

Eskerrik asko lehiaketan parte hartu duzuen debagoiendar guztioi!

goiena
ZU HEMEN ZAUDE





ZABALIK

ALEX LABAIEN

Bateparbi ezetz!

Horixe geratu zitzaidan umetan burmuinean iltzatuta, ondo grabatuta. Ez dakit nik zenbat urte izango nituen orduan, lau-bost bat edo? Nagusiei entzuten nien, boletan zihardutela lehengo piszinetako taberna ondoan, Mekolalden, Osintxun, San Martzialen... Beti berdin: "Bateparbi ezetz, bateparbi ezetz...". Edo hala iruditzen zitzaidan, behintzat, niri. Zer esan nahi zuten? Bada, ez dakit. Apusturen bat, trabesa... Niretako, misterioa...

Beste kasu batzuetan, oster, denborak berak eroan nau misterioa argitzera. Loiola Irratia entzuten zen gure etxean, eta nire oroitzapenen rankingean *Itziarren semea*-k toki destakatu badu ere, bazen beste kantu bat nire burmuinaren azken neuronetaraino bide egin zuena: *Modula patri*.

Zenbat aldiz ez ote dut errepikatu kantuaeren leloa:

IRRIKAN NENGOEN JAKITEKO NOLAKO KARTZELAN SARTUKO OTE ZUTEN ZUMARRAGARRA

*Eskuara baizik etzekiten
haiek, moodulaaa patriii...
iiii. Moodulaa patriii...
eta horrela, behin eta
berriro, errepikatu eta
errepikatu, besterik ez
nekien eta. Urteekin
frantses pixka bat ere ikasi
dugu, eta jakin dut *morts**

pour la patrie zela Gorka Knorrek kantatzen zuena. Misterioa argituta, beraz.

Dena dela, eta oraingo kontuetara etorrita, azken egunotan beste misterio batek nauka ni harrituta: irratian entzun nuen Urdangarin andre-gizonak Suitzan jasoko zutela Noos kasuaren epaiaren berri.

Ezin nuen sinetsi.

Nola zitekeen milioiak eta milioiak desbideratzeagatik epaituak Suitzan izatea epai zain? To, justizia!

Epaia entzun eta gero, irrikan nengoen jakiteko nolako kartzelan sartuko ote zuten zumarragarra, *Narcos*-eko Pablo Escobar Gabiriaren pare jarri eta berak diseinatuko ote zuen bere *palazioa*.


Bada, ez, jaun-andreok! Ez dirudi halakorik ikusiko dugunik. Eta ez gaitezen horrela jarri. *La justicia es igual para todos* delako horrek garbi esaten du: *igual* bai, *igual* ez...

Hau bai hau mi(ni)sterioa, (in)justiziakoa...

Jokoa hain modan jarri zaigun honetan, bota dezagun trabesa: ezetz Urdangarin kartzelara joan! *Bateparbi* baietz!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

Auzitegi Gorenak debekatu egin du Facebookeko argazkiak baimen barik argitaratzea; zer deritzozu?

FEISBUK

DEBAGOIENA

Abiada bizian doa teknologia; are biziago, Internet mundua.

Denetik igotzen dugu sarera, denetik jaisten dugu saretik. Konturatu ere ez gara egiten mundu horrek atzean zer izan dezakeen. Argazki pertsonalak, kalean egiten ditugunak, etxean, kiroldegian, eskolan, ikastolan...

Facebookek denerako balio duela uste izatea hanka-sartze galanta da.

Non dago pribatutasuna? Pentsa... igoko ditugu gure seme-alaben argazkiak eta aldizkari digitalen batek *hartuko* ditu, guri ezer esan barik, eta argitaratu egingo ditu. Ez da bidezkoa, eta Auzitegi Gorenak, behingoz, ondo egin du. Ezin da sareko materiala nork bere apetaren bidez erabili.

PLENOA

BERGARA

Facebook izurrite hutsa da. Edukiontz hutsa.

Nork bere bizitza saltzeko plataforma digitala. Gero, kexatu egingo gara gure argazkiak lapurtu egiten dituztelako. Lapurtu? Zer, ba? Guk igo ditugu sarera, Facebookera, edozeinek jaisteko moduan daude.

Kexa eta buruhauste gutxiago, eta ardura eta zuhurtzia handiagoa. Ez da besterik behar.

Facebook, Twitter, Instagram... gure bizitzaren parte dira, baina ez ditzagun gure bizitzaren gainetik jarri.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publikitate

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

PROTAGONISTA

"Botoek asko lagunduko didate, %33ko pisua dute eta"

JOSE MIGUEL LASKURAIN ORKESTRA ZUZENDARIA

Xabi Gorostidi BERGARA

Jose Miguel Laskurain (Eibar, 1967) Bergarako Musika Eskolako Haurren Orkestrako zuzendaria da. Orkestra zuzendarien nazioarteko txapelketa ospetsu batera aurkeztu da, eta hamar onenen artean burua sartzea lortu du.

Paraguai eta Huelva artean antolatzen den txapelketa da; nondik dator konexio bitxi hori?

Francisco Navarro Lara zuzendariak eta Paraguaiako Orkestra Sinfoniko Nazionalak antolatutako lehiaketa da. Navarro Larak zuzendaritza eta banda eskola propioa du Huelvan, baina Paraguako Orkestra Sinfoniko Nazionaleko ohorezko zuzendaria ere bada. Horrez gain, Paraguako Orkestra zuzendaria Navarro Lararen ikasle izandakoa da, eta bere eskolako 450 ikasleen %70 latinoamerikar jatorrikoak dira, bertan ibilbide luzea duen zuzendaria delako.



Jose Miguel Laskurain, irribarretsu, zuzentzen ari dela. JOSE MIGUEL LASKURAIN

Venezuelako, Brasilgo eta Portugalgo partaideak izan dira lehiaketan, eta hamar onenen artean zaude. Nola joan da prozesua?

Aurre-aukeraketa bat egin ondoren 35 zuzendari geratu

ginen. Orain hamar kideko hautaketa egin, eta obra berri bat eman digute. Behin hau eginda, hiru onenak aukeratu dituzte, eta maiatz aldera jakinaraziko dute nor den irabazlea.

Zer da beharrezko hamar onenen artean aukeratua izateko?

Asko baloratzen da teknika neurodirekzionala deitzen dena. Eskuez gain, zure gorputzeko lengoia ez berbalarekin zuzentzeko gaitasuna eta lortu nahi duzun soinua egia bihurtzeko abilezia baloratzen dute.

Zein da irabazlearentzako saria?

2.000 euroko diru-saria, Paraguaiako Orkestra Sinfoniko Nazionala zuzentzeko aukera, eta bertan *master class* bat emateko ohorea jasoko ditu lehen sariaren irabazleak. Nire kasuan, maila internazionalen zuzendari aritzeko daukadan grinak bultzatuta eman dut izena txapelketan, eta dirua baino gehiago, nire lana erakusteko aukera da gehien erakartzen nauena. Askotan, gehiago baloratzen zaituzte kanpoan, etxe barruan baino.

Lehiaketako epaimahaiak hiru hanka ditu: bi zuzendari eta publikoa. Zer egin daiteke zure alde bozkatzeko?

Martxoaren 5a arte dago botoa emateko aukera www.concursointernacionalde direcciondeorquesta.com helbidean. Jendearen botoek asko lagunduko didate, publikoaren sariak %33ko pisua du-eta irabazlearen aukeraketan.

HAU BE BADOGU!

"Autobus transfoboak" hautsak harrotu ditu



Chrysallisen –transexualitate egoeran dauden haur eta gazteen familien elkarteak– *Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak* kanpainari erantzuteko autobus bat muntatu du Hazte Oir elkarteak. *Los niños tienen pene y las niñas tienen vulva. Que no te engañen* leloa du eta sarean, batez ere, euren desadostasuna eta haserrearen erakutsi dute erabiltzaileek.

#Mapaezikutu traolarekin txio ugari



Europako hizkuntza gutxituen mapa bat jarri zuten Donostiako Tabakalera, eta Udalak Remigio Mendibururen eskultura bat ezartzeko kenduko du.

@Maia_lehen: "Kaxubiarrak protokoloa sinatzera etorri eta kontent mapan ikusi zirenean! Hizkuntza txikien mapek ere mundua handitzen dute #MapaEzIkutu".

@A_ze_karakola: "Daon lekun ondo daolako #Mapaezikutu".

#Izarrekin traola 'trending topic' izan da

Sara Majarenas presoa eta Izar, bere alaba, banandu egingo dituztelako #izarrekin traola *trending topic* izan da aste osoan zehar. "Elkarrekin eta etxean" egon behar dutela aldarrikatu dute hainbat eragile eta erabiltzaileak.

@izarrekin: "Donostiako Udalak Izar eta Sara askatzea eskatu du. Irabazi, EH Bildu, EAJ eta PSE elkarturik ama-alaben askatasunaren alde #Izarrekin".

ITURRI ONETIK

'Euskadi' filma Leintz Gatzagan

Josu Martinez dokumental egile eta ikertzaileak film historiko bat aurkitu du Parisen. Euskal Herriari buruzko lehen filma hiru dimentsiotan: *Euskadi*, 1936koa. Bada, martxo eta apiril bitartean Euskal Herriko toki esanguratsu batzuetan erakutsiko dute: Bilbon, Donostian, Iruñean, Baionan eta... Leintz Gatzagan. Martinezek aurkeztuko du, eta elizan proiektatuko dute. Horretarako, 3Dko betaurrekoak banatuko dira bertaratzen direnen artean. Martxoaren 18an da hitzordua, 19:00etan.

GORA ETA BEHERA



UBANE MADERA

Azpiegiturak hutsik eta egoera kaskarrean



Badaude leku baten baino gehiagotan denborarekin hutsik geratu diren eraikinak. Horietako baten gaineko txistua helarazi du irakurle batek: Osintxuko gasolindegia. Esan du azpiegitura "erraldoi" hura egin egin zela, "errepidearen bi aldeetan", baina hutsik daroala hainbat urte, itxura "kaskarra" duela eta lapurretak ere izan dituela. "Hesitu eta guzti egin behar izan dute", dio.

San Josepe berritzeko lehen fasea amaitu dute

Auzoa berriro urbanizatzeko lanen artean, errepidea eta espaloiak zabaldu dituzte, biribilgunea berritu eta zerbitzu sarea hobetu; proiektuak bost fase aurreikusten ditu eta horietatik "garrantzitsuena" gauzatu da, bertarako irisgarritasuna bermatzeko

Jokin Bereziartua ARRASATE

San Josepe berriro urbanizatzeko lanen bost faseen artean lehen fasea amaitutzat eman du Udal Gobernuak, "faserik garrantzitsuena". San Andres kalearen zati bat berregin dute, espaloia eta errepideak berritu dituzte eta auzoko zerbitzu sarea hobetu. Udal ordezkariak jakinarazi dute lan horien helburua izan dela auzoko irisgarritasuna eta auzotarren mugikortasuna erraztea eta hobetzea, auzotarren ongizatea eta bizi kalitatea bermatzeko. Lehen faseak 469.201 euroko kostua izan du. Oscar Garcia zinegotzi sozialistak orain arte egin dena eta aurrerago egingo dena azaldu du: "San Josepe kalera heldu arteko bidean egin dira obrak. Errepidea eta espaloiak estuak ziren, autoendako deserosoa eta oinezkoendako ezinezkoa. Aurrerantzean aparkalekuak, zerbitzuak zein gune berdeak berritu egingo dira; horretarako, baina, ez dugu data zehatzik".

Kalea dagoeneko zabalik dago, baina oraindik ere azken egokitzapen lan batzuk egitea falta da; airean dauden zenbait kable horretarako hodian sartuko dira. Horregatik oraindik gune bat itxita egotea autobus geltoki berriaren ondoan. Herriko autobusa biribilgunean geratu izan da azken egunotan.

Makatzena, hurrengoan artean

Udal Gobernuaren lehen tasunen artean dago auzoei "merezi duten" garrantzia ematea. Auzo periferikoetan egingo diren hurrengo esku-hartzeen artean Makatzenakoa nabarmendu du Garciak: "Frontoia eraberritzea, umeendako behar den moduko parke estali bat jartzea eta ahal den neurrian aparkaleku kopurua errespetatzea. Lan horiek egingo dira". Espero da 2018an amaitzea obra; aurrekontua da 300.000 euro ingurukoa.



Biribilgunea egin eta errepidearen zein espaloien zabalera handitu dute. JOKIN BEREZIARTUA



MIKEL DOMINGUEZ
AUZOTARRA

"Biribilgunea eta errepidea ondo geratu dira. Baina gauzak falta dira: parkea, iturria... Kable batzuk airean daude, ukitzeko moduan. Horrela ezin da utzi".



MIGEL ANGEL INURRIETA
AUZOTARRA

"Ederto geratu da, lehen baino askoz hobeto dago. Behar handia zegoen, abandonatuta geunden. Errepidea geratu da ondoen, orain bi auto sartzen dira".



NIRE USTEZ

JON AZKOAGA UGALDE

Babak eta legatza

-Kaixo! / Egun on, bai / Zer gurozu? Menue ala kartie? / Menue, menue! / Ba, gaur zera dauketzu, lehenengorako: porru-pataatak, entsaladie, baba gorrixek, lentejak eta iderrak. Bigarreneko, barrez: legatza saltsa berdien, bakailaue piperrakin, saiheskixe eta txarri-txuletie / Babak eta legatza jango dittut, ederrak egongo die eta / Bai, ederrak daz, sukaldarixe artistie da! Ikusiko dozu!

Fan da kamarerue sukaldera, eta, bixen bittartien, ogi otzarakarie jan dot. Zelako gosie! Ardaue be ekarriko balau?

Ekarri dau ekarri biherrekue. Egixe esan, ederra dau, bai. Babak aza eta guzti. Eta legatza be eder askue.

-Postreik jango dozu? / Zer dauketzue ba? / Arroz-esnie, flana, gaztai-tartie, pantxineta, etxeko jogurre, frutie eta helaue / Etxekuek die? / Bai, horixe / Ba, etxeko jogurre ezti apur batekin, mesedez / Belaxe ekarriko dutzut.

Ekarri dau. Zelako gozue, benetan gozue. Eztixe gorri-gorrixek, oso ona.

-Kafeik hartuko dozu? / Hutse / Hutse? / Bai, hutse.

Kafe hutse, bizketako; bizi-bizi, AEDkin euskerie letxe.

Badakitzu, lagun, euskeraz bizi-bizi. Egin gaittezen AEDko bazkide!

Udazkeneko eta neguko mauken azoka bihar, Ibai-Arteren eskutik

Merkemerkaua egingo da bihar 10:00etatik 20:00etara; 33 komertzioaren produktuak kalean, "prezio ezin hobean"

J.B. ARRASATE

Ibai-Arte merkatari elkarteak antolatuta, udazkeneko eta neguko stockaren azoka egingo da bihar, martxoak 4, herriko erdiguneko kaleetan. Elkarteko kide diren 33 komertzioak euren produktuak kalera aterako dituzte, "prezio ezin hobean". 10:00etatik 20:00etara iraungo du Merkemerkauak, bazkalorduko etenaldi barik; antolatzaileen arabera, moda, lenteria, osagarriak, oinetakoak eta beste hainbat produktu izango dira. Oraingoan ere animazio eta

guzti dator azoka: 11:00etatik 13:00etara Sambamaña taldekoen batukada egongo da eta 17:00etatik 19:00etara, berriz, kiliki eta erraldioen konpartsa.

Esandako moduan, produktuak kalera aterako dituzte Ibai-Arteko dendariak. Gehienek saltoki aurrean jarriko dituzte produktuak eta arrazoi ezberdinengatik aukera hori baliatu ezin dutenendako Maiatzaren Lehena plazan merkataritza gune bat egokituko dute. "Izan zaitez lehena deskontuak aprobetxatzen!", adierazi dute.



Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Martxoaren 8rako programa, elkarlanean

Emakume Txokoaren eskutik egitarau zabala antolatu dute Martxoaren 8aren bueltan, "baina eragile askoren elkarlanari esker", adierazi du Esther Lizarralde, eta aurtengo leloa azpimarratu du: 'Asko eta askotarikoak gara'

Xabier Urzelai ARRASATE

Martxoaren 8aren bueltan aurreikusitako egitarauari erreparatzea baino ez dago beteta datorrela ikusteko (*Artean, Hamaika Emakume Artista II* erakusketaren gaineko informazio gehiago 15. orrian).

Hain zuzen, Emakume Txoko-ko dinamizatzaile Esther Liza-

rralde azpimarratu du egitarau hori eragile askoren lanari esker dela posible: "Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailekoak, Ekin Emakumeak Elkartekoak, Emakumeen Mundu Martxakoak, Potto Gorriak... Elkarlanari esker da hori posible".

Eta horrekin batera, Martxoaren 8an bertan egingo duten



Garbiñe Biurrun izango da 7an. GOIENA

kale agerraldiaren leloa azpimarratu du: *Asko eta askotarikoak gara, gora feminismoa!* "Izan ere, leloak ondo dioen moduan, geroago eta emakume gehiago gabiltza borroka horretan murgilduta, eta askotariko emakumeak gara, ez gara denak berdinak".

Bada, egitarauak formazioa du oinarri, besteak beste, ber-baldiak eta tailerrak daudelako. "Eta emakumeari erabateko protagonismoa eman gura izan zaio ekimen horietan".

Egitaraua

Tailerra: Amodio erromantikoa

- **Irakaslea:** Nerea Altu Marques.
- **Noiz:** Martxoak 4, zapatua (10:30-14:00 eta 15:30-18:00).
- **Hizkuntza:** Euskara (matrikula doan).
- **Adina:** 16-20 urteko neskei zuzendua.

Tailerra: Autoestimu feminista

- **Irakaslea:** Naroa Argoitia Iñurrita.
- **Noiz:** Martxoak 18 (10:00-14:00 eta 15:30-19:30).
- **Hizkuntza:** Euskara (matrikula doan).
- **Adina:** 16-20 urteko neskei zuzendua.

Erakusketa: 'Artean. Hamaika Emakume Artista II'

Martxoaren 3tik 31ra, Kultureteko Klaustroan. Astelehenetik zapatara arte (17:30-20:30). Martxoaren 3an, 19:00etan.

'Emakumeak Protagonista', Garbiñe Biurrun Manzidor

Arantza Santesteban Perezek elkarriketatuko du martxoaren 7an, martitzena. 19:00etan, Kultureteko areto nagusian, euskaraz.

Martxoak 8, manifestazioa

Sambamafia batukadak lagunduta. Seber Altube plazatik hasita, 19:00etan. Leloa: Asko eta askotarikoak gara. Gora feminismoa!

Martxoaren 8ko kartelen erakusketa

Martxoaren 6tik 17ra, Emakume Txokoan. Astelehenetik eguenera: 15:30-18:30. Egubakoitzetan: 10:00-14:00.

Emakume artisau eta baserritarren azoka

Martxoaren 11n, Seber Altube plazan, goiz osoan zehar.

'Suerte' antzerki emanaldia

Egilea eta antzezlea: Charo Gallego. Martxoaren 17an (19:00), Kultureten, areto nagusian, gaztelaniaz.

Zinegoak hedapena 2017

Film laburren emanaldia. Martxoaren 23an (19:00) Kultureteko areto nagusian.

EROSKI
ARRASATE

MARTXOAK 4 LARUNBATA

BEZa
 oparituko dizugu
 EHUNETAN, BAZARREAN
 ETA ELEKTRONIKAN
 Bitxietan eta optikan ere bai

Sustapena Euskadi, Nafarroa, Calahorra eta Castro Urdialeseko EROSKI hipermerkatuetan izango da baliozkoa, sustapenera atxikitako sailetan 25 €-tik gorako erosketak egitean.

* Kuxatik igarotzean, zure EROSKI club txartelean berehala sartuko dizugu etxetikoa elektroniketan, ehunetan eta bazarrean, baita bitxietan eta optikan ere, erositaiko produktuen BEZaren baliokidea. Zerbaita hori zure hurrengo erosketetan trukatzea ahal izango duzu. Hainak hauek: ordea, ez dira sustapenera sartuko: testulaburak, esperientzien sortak, telefonoen kargak, E-pay barteak (aurerordainak), erreklamazio digitalak eta fidelizazioarako sustapenetako produktak. Gainerako baldintzak kontsultatu sailean.

Musakola z/g ARRASATE
 Tel.: 943 71 10 30

Nahi duzunean eta nahierako lekuan erosi...
www.eroski.es | EROSKI super aplikazioa | Eroski dendak

Zapatuan oso indartsu, martitzenean beherakada

Aratuste-zapatua eguzkitsua, koloretsua eta jendetsua izan ostean, martitzenean ez zen horrenbeste jende animatu mozorroa jantzita kalera irtetera; jaiak amaitu diren arren, Arrasate Musikaleko bandak Aratusteetako kontzertua emango du etzi Amaian

Jokin Bereziartua ARRASATE

Duela ez asko martitzenean bakarrik ospatzen ziren Aratusteak Arrasaten, baina gaur egun arrasatear gehienentzat zapatukoa da egun handia. Aratuste-martitzena umeendako, gaztetxoendako eta ikasleendako eguna da bereziki. Zapatuan eguraldia aliatu ederra izan zen arrasatearrek alde aurretik prestatu zituzten mozorroak eta karrozak kalera ateratzeko. Donald Trump, Frida Kahlo, Van Gogh, Neron... Lehengo eta oraingo hainbat pertsonaia ezagun ikusi ahal izan ziren. Iazko kuadrilla irabazleak, andetarrez jantzita, dantzarako deia egin zuen pregoian,

eta herritarrek ederto erantzun zuten. Sariei dagokionez, emakumezko mozorrorik onena Jasone Giraldek lortu zuen Frida Kahlo jantzteagatik eta gizonezko mozorrorik onena Gorka Iraolarentzat izan zen *Gorkius* estatuaz mozorrotzeagatik. Karroza onena Mexikotik Hildakoen Eguna ospatzera etorri zen kuadrillaren eskeleto erraldoiarentzat izan zen -ikus argazkian-, eta kuadrilla onenaren saria, berriz, Bollywoodeko konpainiak eraman zuen. Azkenik, taberna onenaren saria Iratik irabazi zuen.

Martitzenean, berriz, eguraldiak ez zuen lagundu. Herriko Plazako mozorro desfilea desi-

txuratu egin zuen; ordu berean, Amaia antzokiko Tomax pailazoaren abenturez gozatzea erabaki zuten ume eta gaztetxo gehienek. SUDC elkarteak egindako sardina erraldoia sutan erreta amaitu ziren festak.

Arrasate Musikaleko banda etzi Jaiak ofizialki bukatu badira ere, Arrasate Musikaleko bandak Aratuste giroa jarriko du domekan Amaia antzokian. Mikel Markiegiren zuzendaritzapean, bederatzi pieza interpretatuko dituzte, 12:30ean hasita. "Kontzertu atsegina eta dibertigarria izango da", adierazi du ekintza arduradun Edorta Aiastuik.



Herriko Plaza jendez bete zen zapatu eguerdian sari banaketarako. AITOR AGIRIANO



Arrasate Musikaleko bandak kontzertua emango du etzi Amaian. IMANOL SORIANO

0-18 urte

"Aniztasunean heziz" tailerra

Edukiak

- Aurreiritziak eta estereotipoak
- Inmigrationalismoa eta sexismoa: prentsa, telebista, eta abar.
- Erlijioak eta kulturak
- Arrazismoa eta klasismoa
- Aniztasunaren abantailak
- Elkartasuna, partehartzea, adostasuna esperimintzen

Egutegia: Martxoaren 13an, 20an eta 27an, Apirilaren 3 eta 24an eta Maiatzaren 8an.

Lekua eta ordutegia: Saiok, astelehenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaleko Loramendi gelan.

Hizkuntza: Izen ematearen arabera erabakiko da. Taldea sortzeko gutxienez 12 pertsona behar izango dira.

Dinamizatzaileak: EkarHezitzen elkarteak

0-5 urte

"Hazkuntza osasuntsu baterako tailerra"

Edukiak

- Haurren loa
- Eskola egokitzapena
- Elikadura nahasteen prebentzioa haurtzarotik
- Nola hitz egin haurrekin heriotzari buruz
- Zer egin guraso bezala sentitzen dugun amorruarekin
- Haurren gainbabesa

Egutegia

Martxoaren 23an eta 30ean, apirilaren 6an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 11n.

Lekua eta ordutegia

Saiok, ostegunetan izango dira 18:00etatik 19:30era, Kulturaleko Loramendi gelan

Hizkuntza

Izen ematearen arabera erabakiko da. Taldea sortzeko gutxienez 12 pertsona behar izango dira.

Dinamizatzailea: HEZIBIDE elkarteak Mireia Centeno, psikologa eta psikopedagoga

6-12 urte

"Elikatze kontzientea eta janariarekin lotutako nahasmenduen prebentzioa"

Edukiak

Bi ataletan banatuko da tailerra:

- Janariaren rola eta garrantzia bizitzan: jaki desberdinek betetzen dituzten funtzioak, zertarako eta noiz diren baliagarriak eta nola jaten dugun aztertzen da.
- Janariarekin lotutako gaixotasunen prebentzioa zuzenduta dago: dieten inguruko hausnarketa, irudiaren presioa, moda eta ligh elikagaien industria, gizonezkoekin eta emakumeekin lotutako patrioak eta horien ondorioak, nesken eta mutilen artean ikusten ari garen gaixotasun berriak (ortorexia, bigorexia...).

Egutegia Martxoaren 21ean eta 28an, apirilaren 4an eta 25ean eta maiatzaren 2an eta 9an.

Lekua eta ordutegia. Saiok astearteetan izango dira 18:00etatik 20:00etara, Kulturaleko Loramendi gelan.

Hizkuntza Izen ematearen arabera erabakiko da. Taldea sortzeko gutxienez 12 pertsona behar izango dira.

Dinamizatzailea: Virginia Belategi, ERAIN elkarteak.

13-19 urte

"Zer egingo dut nik orain?"

Edukiak

Komunikazioa eta kongruentzia, coaching-a eta aldaketa prozesuak, entzute-aktiboa eta asertibitatea, helburuen formulazioa, komunikazio ez-berbala eta inteligentzia emozionala, gatazken ebazpena eta negoziazioa, estrategia berrien identifikazioa erabakiak hartzeko orduan, lorpenei zuzendutako jarrerak, familia sistema gisa (arauak, rolak...), gorputza eta emozioak aliatu gisa, arazoan birplanteatzea, esperientzien esanahi berriak aurkitzea, gatazkak aukerak moduan, posizio pertzeptiboak.

Egutegia Martxoaren 22an eta 29an, apirilaren 5ean eta 26an eta maiatzaren 3an eta 10ean.

Lekua eta ordutegia Saiok asteazkenetan izango dira 18:00etatik 20:00etara, Kulturaleko Loramendi gelan.

Hizkuntza Izen ematearen arabera erabakiko da. Taldea sortzeko gutxienez 12 pertsona behar izango dira.

Dinamizatzailea: Ardatz Formazio eta Ikasketa Zentroa.

guraso entzako tailerrak



hobeto sentitzeko

hobeto egin ahal izateko

irtenbideak aurkitzeko

elkarbanatzeko

hausnartzeko



ANTOLATZAILEA:



ARRASATEKO UDALA

IZEN EMATEA: MARTXOAREN 10ERA ARTE

+ BAZ - TEL.: 010

+ GIZARTE ZERBITZUAK- 943.25.20.07

+ HTTP://WWW.ARRASATE.EUS/IZEN-EMATEA

Jolas parkeak adituekin batera sortzeko eskaria

Arrasateko EH Bilduko udal taldeak jolas parke berriak egiteko eredua zalantzan jarri du. Prentsa ohar bidez jakinarazi dute prozesu parte hartzaileak ondo daudela, baina jolas parkeen diseinuan adituen irizpideak jarraitzea igartzen dutela faltan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azkenaldian jolas parke ugari eraiki edo berriztu dira Arrasaten, Itxaropena plazakoa kasu. Horiek diseinatzeko orduan prozesu parte hartzaileak jarri ditu Udal Gobernuak, herritarren beharrak lehenesteko asmoz. EH Bilduko udal taldea, ordea, kezkatuta dago jarraitzen ari den eredua dela eta. *Ugaritasuna ez da kalitatea* izenburuko prentsa ohar bidez gaiarekiko duten ikuspuntua azaldu dute; izan ere, euren ustez, "jolasa oso kontu serioa da haurrentzat eta ezinbestekoa da euren garapen egokirako".

Ikuspuntu ezberdina

XX. mendetik hona jolas parkeak egiteko hainbat moda egon direla aipatzen da bertan.

Zentzu horretan, euren gustuko joerak zeintzuk diren aipatzen dituzte, eta uraren, harearen, egurraren eta halako natur elementuen aldekoak direla azaltzen

dute, natur elementuekiko kontaktua *osasun iturri* bezala ulertzen dutelako. Horrez gain, gurpildun aulkietan dauden haurrentzako, mugikortasun funtzionala kontuan hartzen dituzten ziburuak edo erabilera mugatuaren aurrean irudimena bultzatzen dituztenak nahiko lituzketela azaltzen dute, Aretxabaleta, Lakuntza eta Hanbur-goko adibideak aipatuz.

Era horretako zibururik ez dagoela ikusirik, ahultzat jo dute parkeak diseinatzeko orduan Udal Gobernuak herriko hezkuntza komunitateko adituekin edukitako harremana. "Arrasateko jolas parkeen berritzean zalantza dugu hezkuntza eta gazteriako espezialisten parte hartzea zenbaterakoa izan den".

Udal Gobernuak errespetuz jaso du prentsa oharra, baina ez du komunikabideetan eztabaidarik sortu nahi izan, horretarako lekua batzorde informatiboak direla argudiatuta.



Arrasateko jolas parke bateko irudi bat. XABI GOROSTIDI

Monterron parkeko sekuiarik altuenak 45 metro ditu

Arrasate Zientzia Elkartekoek bost sekuietatik bi garaienak neurtu dituzte eta emaitzak plazaratu dituzte. Biek ala biek gaitzen dituzte 40 metroak.

Sekuoia luzeenak 45,6 metro ditu zehatz-mehatz eta *sequoia sempervirens* familiakoa da. 22,144 kiloko pisu teorikoa du, 6,06 metroko lodiera dauka 1,30 metro altueran.

Bigarrena, aldiz, altuera gutxiagokoa izan arren, lehena baino askoz zabalagoa eta pisutsuagoa da. 40,5 metroko altuera du, eta 1,30eko altueran 6,63 metroko lodiera du. Pisu teorikoan ere gaintetik dago 26.550 kilorekin eta *sequoiadendron giganteum* familiakoa da.

ARRASATE IRRATIA

Datorren asteke gaiak

Emakumeen Nazioarteko Eguna gain, hainbat musikari izango dira protagonista. Kepa Junkeraren *Maletak* azken lana hobeto ezagutzeko aukera izango da, eta Kooltur Ostegunetan arituko den Oscar Benas ere elkarriketatuko dute.

Zozketak

Gai interesgarriez gain, zozketak ere ez dira faltako. Entzuleen artean, Oscar Benasek eta Kepa Junkerak Arrasaten egingo dituzten emanaldietarako sarrerez gain, GBH talde britainiarrak Oñatin eskainiko duen zuzeneko sarrerak ere zozketatuko dira.

MERKE 2017 MERKAUA

Arrasateko stock azoka

04 MARTXOA
ZAPATUA
10:00-20:00 (jarraian)

ORDAINKETAK:
ESKUDIRUTAN



Arrasateko kaleetan zehar:
Biteri etorbidea, Erdiko Kale, Ferrerías,
Garibal Etorbidea, Iturriotz, Maalako errabala,
Maiatzaren 1a plaza, Olarte, Olalora, Zarugalde,....



11:00-13:00
Sambanaña Batukada
17:00-19:00
Erraldoi Eta Kilikien Konpartsa

Antolatzailea



Babeslea



"Kiroldegi berria posible izan daiteke lau urtetan"

ANDER GARAI KIROL ZINEGOTZIA

Udaleko Kirol Zerbitzua hobetzeko asmoz, erabiltzaileen ekarpenak jaso gura ditu Garaik etorkizuneko kiroldegira begira: "Epe ertain edo luzean posible izan daiteke"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Lau hamarkada beteko ditu Musakolako kiroldegiak aurtan. Ekainaren 24an, San Juan egunean, beteko ditu, hain justu, 40 urte. Herriko kiroldegien egoeraz eta kirol arloko beste zenbait kontuz egin du berba Ander Garai zinegotziak.

40 urte egingo ditu kiroldegiak. Zaharkitua geratu da?

Gipuzkoako bigarren zaharrena da eta arazoak ditu. Eraikina zaharra izateak zerbitzuan eragiten du, baina ikusi dugu azken urteetan egindako inbertsioek –gimnasioa hobetu, ikastaro gehiago antolatu...– gorakada eragin dutela matrikulazioetan; azkeneko urtean, bereziki. Herriatik urruti dago, eta horrek ere ez du laguntzen. Eraikina, baina, gaixorik dago, aluminioa dauka. Estructura gastatzen du gaitz horrek eta berrikustea eskatzen du urtero, denbora eta diru asko. Erortzeko arriskurik ez dago, baina konponketek gastu handia dakarte. Izan ere, kiroldegia berrituta ere, aluminioak hor jarraituko luke, konponbidea oso zaila da. Kiroldegi berria egitea izango litzateke soluzioa.

Kiroldegi berria? Posible da?

Epe motzera ez, baina epe ertain edo luzera bai. Kirol elkarte-



Ander Garai. JOKIN BEREZIARTUA

tako ordezkarien, ikastaroetako arduradunen eta erabiltzaileen ekarpenak jaso gura ditugu, gutxienez, proiektu baten jaso ahal izateko. Epe motzera ez dugu kiroldegi berria izango, baina lau edo bost urte barru posible izan daiteke. Hor garrantzi handia izango du martxan jarriko den kirolaren plan estrategikoak; ondorio asko ateratzea espero dugu.

Zenbat bazkide ditu gaur egun Musakolako kiroldegiak?

5.200 inguru. Ez da datu oso ona. Bergarako eta Aretxaba-

letako datuak hobeak dira, baina kontuan hartu behar da instalazioak askoz berriagoak direla. Horrek zerikusi zuzena dauka.

Erabiltzaileekin egoteko asmoa erakutsi duzue. Zertarako?

Eurak dira kiroldegia gehien erabiltzen dutenak eta eurekin egon beharko dugu jakiteko nola ikusten duten eta nola irudikatzen duten etorkizunera begira.

Eta eskaintza aldetik nola dago Musakolako kiroldegia?

Ondo. Orain, esaterako, aeropilatesa jarri dugu martxan. Ur-

tero saiatzen gara ikastaro berriak eskaintzen. Baina, esan bezala, Musakolako kiroldegia urruti dago erdigunetik eta hori ez da eroso herritarrendako. Horregatik, ikastaro batzuk Uarkapera ekarri ditugu. Adibidez, aurtan hipopresiboak hasi dira Uarkapen eta k-stretchak badaramatza urte batzuk. Uarkapera eramaten ditugun ikastaro guztiek harrera oso ona dute.

Uarkape aipatu duzu. Gimnasio berria edo fitness gela udaberri-rako gertu izatea zegoen aurreikusita. Nola dago kontua?

Kontratazio fasean gaude. Uarkaperako sarrera egokitu behar da eta lan horiek hilabete eta erdian hasiko direla aurreikusten dugu. Gimnasio berrirako, berriz, ekipamendua kontratatzeke prozesuan gaude; espero dugu uztail eta irail artean irekitzea, uda partean.

Uarkapeko gimnasio berriarekin, Musakolako kendu egingo duzue?

Ez. Musakolako gimnasioa mantendu eta hobetu egingo dugu. Orain, bi gunetan dago bereizita, *kardioaren* gunea eta muskulazioarena. Espazioak aprobetxatuta, gimnasioa gune bakar baten egokitu nahi dugu. Makina berriak jartzen joan, aholkularitza zerbitzua mantendu... Helburua da zerbitzua hobetzea.

Uarkapen beste ikastaro batzuk sartzea aurreikusten duzue?

Uarkaperen erabilera handitzea da asmoa. Gaur egun, pilota taldeak eta gimnasia erritmiko-koek erabiltzen dute, baina asmoa da, poliki-poliki, egungo ikastaroez gain gehiago eskaintzea. Espazioaren erabilera aztertzen ari gara; horren arabera jakingo dugu zer ekarri eta zer ez. **Musakola eta Uarkape aipatu ditugu dagoeneko. Eta Iturripeko kiroldegia? Ze egoeratan dago?**

Iturripek 26 urte ditu eta ego-kitzapenen beharra dauka. Aztertzen ari gara; barruko lana egin ostean hasiko gara kirol taldeekin eta eragileekin elkartzen, ideiak partekatzeke.

Nola ospatuko duzue Musakolako kiroldegia 40. urteurrena?

Prestaketekin ari gara. Iaz abiatutako *Arrasasoi* ekimena aprobetxatuko dugu ospakizunekin batera lotzeko. Argazki erakusketa bat antolatu nahi dugu; aukera aprobetxatuko dut herritarrei eskatzeko kiroldegiko argazki zaharrak izanez gero BAZen entregatzeko edo kiroldegira bertara eramateko. Erakusketa hori 40 urteotako bilakaeraren isla izango litzateke.

Asko aldatu da kiroldegia?

Bai. Aurtan hamar urte egingo dituen Mojategi gunea ez zegoen hasieran, Antoñako gunea ere beranduago ireki zen, lehen jatetxe bat zegoen gaur egun gimnasioak dauden lekuan... Bilakaera nabarmena izan du.

Nolako harremana duzu herriko kirol taldeekin?

Oso gertukoa eta naturala. Astero saiatzen naiz talde gehienekin elkartzen; arazoren bat badute, zuzenean deitzen didate.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Herritarrei gogora ekarri nahi diet Musakolako, Uarkapeko edo Iturripeko instalazioak erabil ditzaketela gura dutenean, betiere, libre daudenean, erreserba eginda; bazkideek onurak dituzte erreserbak egiteko orduan.

"UARCAPEKO GIMNASIO BERRIA UZTAIL ETA IRAIL ARTEAN IREKITZEA ESPERO DUGU"

Diru laguntzendako, laguntza

Arrasaten kirol talde mordo dago, eta horiek kudeatzeko lanetan herritarrak ibiltzen dira, ez profesionalak. Hori jakinda, Arrasateko Udalak deituta, batzarra izan zuten eguaztenean: "Helburua garbia da, egunerokoan nahikoa lan dute klubak kudeatzen, edo kirol hitzorduak antolatzen, eta horrekin batera lan administratiboa ere badago, diru laguntzak zelan eskatu, gastuak zelan aurkeztu... Horiek zelan egin azaltzeko batzartu gara klubetako

ordezkariarekin, lana errazteko asmoz", adierazi zuen Garai zinegotziak.

Antxintxikakoak, futbol, saskibalo, eskubalo edo errugbikoak, zikloturistak, AKEkoak, Dorletako Amakoak, Besaide Mendi elkarteak, judokoak eta Arrasate A + Gasekoak. Hamaika kirol taldetako ordezkariak batu ziren Mojategin: "Lan administratiboa buruhausteak sortzen ditu, baina, hala ere, jendea gauzak antolatzeko gogoz ikusten dut".



Kirol klubetako ordezkariak, Mojategin eguaztenean egindako batzarrean. X.U.

'ARTEAN, hamaika emakume artista 2' sorta

Gaur, egubakoitza zabalduko dute Kulturaten Arrasateko emakume sortzaile gazteen artelanak batzen dituen erakusketa. 19:00etan egingo duten inaugurazio ekitaldian, artistez gainera, Charo Gallego aktorea eta Olatz Urkia musikaria ere izango dira

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Ekin Emakumeak Elkartearen atea jo zuten Arrasateko hainbat emakume artistak, eta elkarlanean sortu zuten 2015. urteko martxoan Kulturateko klaustroan erakutsi zuten artelan-sorta. "Emaitzarekin oso gustura geratu ginen eta oso polita izan zen herritarrengandik jaso genuen erantzuna; horregatik, bada, bide beretik dator bigarren erakusketa", dio Leire Estevezek, Ekin Emakumeak Elkarteko kideak.

Artea, zentzu zabalean

Aurrekoan bezala, hamaika artistaren lanak erakutsiko dituzte oraingoan ere; horietako ba-

tzuk lehenengo edizioan izan ziren. Hala ere, berriak dira Kulturatera eramango dituzten artelanak. "Lekuak ahalbidetu duen neurrian, bakoitzak aukeratu du zer eta zenbat lan erakutsi", dio Helena Azkarragaurizar artista eta komisarioak.

Artea zentzu zabalean erakutsiko dutela gaineratu du Madi Urizar artista eta komisarioak: "Aurreko edizioan bezala, arte diziplina guztiak ordezkaturik daude: pintura, grabatua, marrazkia, argazkia, muntaia, grafia, grafika eta instalazioak daude. Aurtengoan, batez ere, instalazio indartsuak eta pintura dira nagusi".

Komisarioek gaineratu dute askotarikoak direla, era berean, erabilitako teknikak eta gaiak: "Ikusleak artelanean parte hartzea bultzatzen duten instalazioak daude; horietako bat, esaterako, indarkeria psikologikoa gaitzat hartuta. Pertsiana baten egindako graffiti ere ikusiko duzue. Margolanak ere askotarikoak daude, pop artetik gertu daudenak, horien artean. Grabatuak ere asko eta oso ezberdinak. Artista bakoitza dagoen sormen unea erakusten duen bilduma da Kulturatekoa".

Talde izaera indartuta

Emaitza ikusgarria izango bada, prozesua ere horrelakoa izan dela dio Estevezek: "Talde lanean egindakoa; horren erakusle argiak dira erakusketaren karteak eta katalogoa. Badago paralelismoa prestakuntza prozesuaren eta katalogoaren artean". Pintore surrealisten erabiltzen zuten *Cadaver exquisito* izeneko teknikarekin egin dutela gaineratu du Azkarragaurizarrek. "Batek marrazki bat egin, hurrengoari pasatu eta azkeneko guztion artean sortuz azken emaitza". "Oso nabarmena da hasi ginenetik gaur egunera arte hartu dugun talde izaera", gaineratu du Urizarrek.



Erakusketako artista batzuk Ekin Emakumeak Elkarteko kidearekin. KIKE DAPENA

'Marikixkur eta hiru hartzak' ipuina, antzezlan bihurtuta

Intimitaterako eta elkarbizitzarako eskubideei buruzko hausnarketarako gonbidapena, Glu Glu taldearen eskutik

A. A. ARRASATE

Ile kizkurra eta urre koloredu- na duen neskatila bihurria da Marikixkur. Gurasoekin haserretu egingo da eta ihes egingo du basora. Zoritzarrez, galdu egingo da eta zuhaitzen artean

dagoen hiru hartzetako etxea aurkituko du; halaxe abiatzen da *Marikixkur eta hiru hartzak* antzerki musikala.

Ezaguna den ipuin klasikoak du oinarri Glu Glu taldeak bihar, zapatua, 17:00etan, publiko fa-

miliarrarentzako eskainiko duen antzezlanak. Musika eta dantza komedia eta antzerki jolasarekin uztartzen dute agertokian dauden eta askotariko pertsonaiak antzeztzen dituzten Koldo Olabarria, Ylenia Baglietto, Andrea Covadonga eta Iñaki Maruri aktoreek. Norbanako bakoitzaren intimitaterako eta elkarbizitzarako eskubideei buruzko hausnarketa bultzatzen du lanak.

Sarrerak bost eurotan eskura daitezke *Arrasate.eus* atarian eta Amaia antzokiko leihatilan.

Artelanak, artisten ahotik

Helena Azkarragaurizar Jauregi

"Eskulturan eta grafikan gorpuzten da nire praktika artistikoa. Egunerokotasunetik ateratako egoerak dira aurkeztuko ditudan lanak".

Miren Barrenetxea Iñarra

"*Investigación en arte y creación* master amaierako lanaren zati bat da erakutsiko dudana instalazioa; generoaz eta indarkeriaz hitz egiten du".

Euri Bruña Iturbe

"Lanerako erabili ditudan koadernoetako marrazkiak erakutsiko ditut, gehienbat; horiez gain, hainbat collage eta marrazki".

Lexuri Doyague Loiti

"Beste modu batera lan egitea erabaki dut; egunerokotasunari aurre egiteko eta arteari funtzio pedagogikoa emanez".

Joana Mantzisor Akizu

"Bartzelonan ikasten ari nintzela ezagutu nuen graffiti mundua. Leku bat eraldatzeko eta jendeari heltzeko eskaintzen dituen aukerengatik, horretan jarraitzen dut gaur egun ere".

Sara Miguelez Garitano

"Sortzeko unea erritual moduko bat da; trantzean sartu eta intuizioarekin lan egiten dut. Sormenak betidanik erakarri nau".

Araitx Perea Kortabarria

"Lasaitzeko edo aktibatzeko, sentitzeko edo sentimenduetatik ihes egiteko, erronkak gainditzeko eta edertasunaz disfrutatzeko ere margotzen dut".

Agurtzane Telleria Larrañaga

"Denborak utzitako aztarnak margotzen ditut. Oihalaren gainean pintura akrilikoa jarri eta haren gainean arrastatzen dut pintzela. Pintzela litzateke, hain zuzen, denbora".

Maddi Urizar Altuna

"Paisaiak eta gizakiak elkarrengan duten eraginak erakartzen nau betidanik, eta harreman hori ikertzeko bidea dut artea. Oinez egitearen esperientziatik dator ikusgai dagoen obra".

Alazne Zubizarreta Montero

"Grabatuak egiten sentitzen naiz erosoan. Era berean, kolore gorria, lerro bertikalak eta egoera absurdoak ditut gustuko".

Jone Zubizarreta Unzueta

"Musika jotzen ez dakit, baina konpultsiboki entzuten dut. Marrazten badakit, baina urteak besteen lanei begira pasatu ditut, konpultsiboki".

Oskar Benas Y Los Herejes taldea Kooltur Ostegunetan

The Solanos, Maika Makovski, Fermin Muguruza eta Transalpine Boys taldeetan jardun du, besteak beste, Oskar Benas musikari gipuzkoarrak. *Cabezafuego*-rekin jotzen du orain, baina, era berean, badu egitasmo pertsonalago bat ere: hain zuzen ere, datorren egunean, Arrasateko gaztetxean izango dena. Rock instrumentala egiten dute.

Mundutik Arrasatera ipuin kontaketa Nikaraguari buruz

Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuek Ekin Emakumeak elkarrekin elkarlanean abiatutako *Mundutik Arrasatera, Arrasatek mundura* egitasmoaren barruan, Nikaraguako ipuinak kontatuko dituzte martxoaren 7an, martitzena, 18:00etan, Kulturateko Loramendi gelan. 5 urtetik gorako haurrentzako eta familientzako da.

Postu berriak izango dira Ixadebalden asteburuan

Aretxarteko merkatariek eskaintza bikainak dituzte XIV. merkealdien azokarako. Eguraldi txarraren iragarpena dela eta mojen komentuaren babespean egingo dute aurtien lehenengoz, eta bi egunetan zabalduko dituzte ateak: gaur eta bihar

Mirari Altube ARETXABALETA

Mitarte kalean egitekoak ziren azoka, baina euria iragarrita dagoela-eta babes bila mojen komentura joan dira Aretxarteko kideak. Hori aprobetxatuta, egun bakarrean beharrean bitan jarriko dute beherapenak dituen jeneroa herritarren eskura: egubakoitzean 17:00etatik 20:00etara eta zapatuan 09:30etik 15:00etara.

Postu berriak

Urtero hutsik egiten ez duten merkatariei berri batzuek egingo diete lagun 2017ko lehenengo azoka horretan: Naturopatia zentroko Ainara Osinagak eta Durana kalean zabaldu berri duen Tak zapata-dendak, hain zuzen ere. Horiekin batera izango direnak hona hemen: Amaia ume denda, Asensio, Atai, Belar

Meta, Haurrak, Kilima, M5 kirol denda, Tinta Beltza eta Titare. Udazken eta neguko jeneroetan beherapen handiak eskainiko dituztela iragarri dute guztiek, eta herritarrek bertaratzen gonbidatu dituzte. Gainera, ohitura duten legez, azokara gerturatutako bezeroen artean 100 euroko bi bonu zozketatuko dituzte.



Herritarrek maukei begira iaz pilotalekuan egindako azokan. GOIENA

FUN DANTZ! 2017

DANTZA URBANOEN LEHIAKETA
BREAKONSTAGE 2017rako SAILKAPENA JOKOAN

ARETXABALETA 2017
ARETXABALETAKO KIROLDEGIAN

MARTXOAK 4 LARUNBATA
18:30 GAZTEAK / BIKOTEAK
19:30 LEHIAKETA NAGUSIA

SARRERAK:
LEIHATILAN: 5€
AUREZ: 3€ (ARKUPE KULTUR ETXESAN SALDAI)
500 aukl egongo dira.

break on stage
MARTXOAK 28
BILBAO ARENA

Merkatariak ere dotore-dotore

Lana bakarrik ez, jaiegunak ere elkarrekin ospatzeko gertu agertu dira Aretxarteko merkatariek. Urteetako ohiturari eutsi eta, beste behin, elkarrekin bazkaldu zuten Aratuste-martitzenean. Iluntzean, Txinen hileta izango zela jakinik dotore-dotore jantzi ziren guztiak Atsedeen tabernara bazkaltzera joateko. Askok ez ziren elkartu, baina, hala ere, giro onean ibili ziren.



Aretxarte elkarteko hainbat merkatarik martitzenean. ARETXARTE

Zuhaitzak landatuko dituzte MÜren fakultatearen atzealdean

Domekan egingo dute Zuhaitzaren Eguna eta, besteak beste, haritzak, arteak eta urkiak sartuko dituzte

M.A. ARETXABALETA

Datorren domekan, martxoak 5, egingo dute Zuhaitzaren Eguna. Aurtien, MÜren ikus-entzunezko fakultatearen atzeko partean landatuko dituzte zuhaitzak; Udaren lurretan, hain zuzen ere. Arizmendi Ikastolako Almeneko eta Kurtzebarri Eskolako ikasleei eta gurasoei dei egin die bertaratzen. 11:00etan elkartuko dira, Herriko Plazan, eta handik joko dute landaketa lekura. Eguraldi iragarpenek euria egingo duela esan arren, Ingurumen Saileko arduradunek



Zuhaitza landatzen iaz. IMANOL BELOKI

herritar guztiak animatu gura dituzte: "Azken urteotan ez dute hutsik egin izan eta aurtien ere hala izango delakoan gaude. Martxoan sartuta gaude eta data ezin dugu atzeratu".

Bukatutakoan mokadutxoa

Haritzak, arteak, hurritzak, urkiak, lizarrak eta intsusak landatuko dituzte, besteak beste. Foru Aldundiaren mintegitik ekarriko dituzte horiek, beste behin, eta domekarako gertu izango dira zuloetan sartzeko. Azken urteotan legez, herriko Landaketa Taldie izango dute lagun udal langileek eta landatzaera doazenek eta argibideak ere emango dituzte landatzen hasi aurretik.

Lanak bukatutakoan, mokadutxoa eskainiko diete antolatzailerik ikasleei zein gurasoei.

Aldarrikapenerako eguna da Martxoaren 8a

Emakumeen Nazioarteko Egunerako ekitaldiak deitu ditu Udalak eguaztenerako, eta herritarrak parte hartzera gonbidatu: elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan eta antzezlanak eta mokadutxoak izango dira Arkupen



Iaz Herriko Plazan egindako elkarretaratzea. MIRARI ALTUBE

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumeen Nazioarteko Eguna izango dute gogoan, Aretxabaletan ere, datorren eguaztenean. Elkarretaratzea Herriko Plazan izango da, 18:30ean, eta iazko leloarekin bat egingo dute: *Martxoak 8, egunero izan dadila*. "Aldarrikapen hori oso egunekoa ikusten dugu eta mezuarekin bat gatz erabat", jakinarazi du Ongizate Saileko zinegotzi Karmele Uribarrik, eta gaineratu du: "Herritarrak gonbidatuta daude ez bakarrik aldarrikapen agerraldira, baita beste ekitaldietara ere".

Egun horren harira, Eudelek aldarrikatu ditu emakumeen parte-hartzea eta ordezkaritza orekatua politikan, eta Udalak bat egin du horrekin. Hainbat konpromiso ere eskatu ditu Eudelek Berdintasunerako Europako Gutunetik jasotakoak.

'La mujer (de)' antzezlanak

Elkarretaratzea bukatutakoan Cincomonos talde kataluniarrak *La mujer (de)* antzezlan eskainiko du Arkupen, 19:00etan (sarrera, 4 euro). Jorge Salinas zuzendariaren aginduetara jardungo dute Lucia Jurjo, Cristina Fabregat eta Izaskun Martinez aktoreek. Hiru emakumeek bakarrik antzeztuko dute: ema-

kume baten barrenerako bidaia, hain zuzen ere. Eta bukatutakoan, mokadutxoak eskainiko diete elkartutako guztiei.

EH Bildu konforme ez

EH Bildu, osterak, ez da konforme agertu Udalaren jarrerarekin: "Aretxabaletako Udalak, berriro ere, hutsaren hurrengoa balitz

moduan landu du gaia. Kontzentrazioaren eta antzerkiaren antolamenduak ez du inongo lan-ketarik eduki. Pena da, berriro ere, galdu den aukera: Berdintasun batzorde barik oso zaila da gauzak lantzea eta aurrera ateratzea", adierazi du Ion Albizu zinegotziak. Era berean, Eudelek proposatutako adieraz-

pena "bere egiten" dutela dio: "Konpromiso zehatzak aipatzen dira eta konpromisoak betetzeko direnez, ezin dugu Udalarekin batera horrelakorik sinatu", eta gaineratu du: "Konpromisoak ezin dira aurpegia zuritzeko trapeak izan".

Dena den, Martxoaren 8an Udalak deituta duen elkarreta-

ratzean parte hartuko dutela jakinarazi du, eta herritarrak ere horretara gonbidatu dituzte.

Emakume taldearen deia

Aretxabaletako Emakume Taldeak ere egun horren bueltan egingo diren aldarrikapen ekitaldietan parte hartzera gonbidatu ditu herritarrak.

IXADEBALDE



Aretxabaletako XIV. Merkealdi Azoka



martxoak 3/4
MOJETAN



3, ostirala: 17:00etatik 20:00etara
4, larunbata: 09:30etik 15:00etara



Ainara Osinaga, Amaia Ume Denda, Asensio, Atai, Belar Meta, Haurrak, Kilima, M5, Tak Zapata denda, Tinta Beltza, Titare



Emakume Martxa, 12an

Emakume Martxa egingo dute bigarren Aresko saskibaloia taldeak antolatuta. Martxoaren 12an, domeka, izango da eta bi aukera daude: oinezko martxa (4 kilometro) eta lasterketa (7 kilometro). Aurten Eskoriatzako plazatik abiatuko dira 12:00etan, eta Aretxabaletako Herriko Plazan bukatu. Aurretik, baina, herri bakoitzeko emakume bana omenduko dituzte. Iaz arrakasta handia izan zuen martxak, 400 lagunetik gora elkartu ziren eta.

Onintza Enbeita eta Unai Agirrerekin bertso afaria gaur

Loramendi elkarteak deituta bertso afaria egingo dute gaur, egubakoitza, Uratz Alde elkartean. Urtero antolatuta izan duten afaria Onintza Enbeita (Muxika, 1979) eta Unai Agirre (Hernani, 1975) bertsolari ezagunek giro-tuko diete aurten. 40en bat lagun elkartuko direla iragarri dute antolatzaileek eta giro ona ziurtatuta izango dela.

Araba aldera mendi irteera egingo dute Guraso Foroak deituta

Guraso Foroak hilabete guztietan egiten duen mendi irteera Arabara egingo du domekan, martxoak 5. Eskoriatzako Hezikuntza Foroko kideekin batera joango dira Gebara aldera; hona ibilbidea: Gebara-Gaztelua-Aldaia-Etura-Gebara. Aretxabaletako Herriko Plazatik abiatuko dira 10:00etan, eta ez dago aurrez izenik eman beharrik.

Galartzako dorretxean bisita gidatua Aitor Antxiarekin

Herriko historia kontuetan aditua den Aitor Antxia Leturiak Galartzako dorretxea erakutsiko du domekan, martxoak 5. 10:30ean hasiko dute bisita hori, eta dorretxearen nondik norakoen berri emango die elkartzen direnei.

Bisitara joateko aurrez izena eman beharra dago; Arkupera jo behar da horretarako.

Doluaren gainean egingo dute berba Basotxon

Dolua hirugarren adinekoen artean hitzaldia eskainiko du Rosa Rosado psikologo aretxabaletarrak datorren egunean, hilaren 9an, Basotxon bertan, 17:30ean.

Bestalde, urteko batzar orokorra egingo du erretiratuen elkarteak martxoaren 10ean, egubakoitza; Basotxoko aretoan da, 17:00etan.

Espazio publikoaren gaineko hitzaldia martxoaren 7an

Prozesu sozialak aberasteko gizarteak eskatzen dituen hirigintza irizpide berrien gainean jardungo du Hodei Zenikao-nandia Otzerin jauregi arkitektoak Aretxabaletako EH Bilduk gonbidatuta. *Espazio publikoaren humanizazioa* hitzaldia eskainiko du martitzenean, martxoak 7, EHBilgunean (Herriko Plaza), 18:30ean.



Taldea, dantzan, Ibarra kiroldegiko agertokian, iaz. EKAITZ FILARMENDI

Kaleko dantzen festa laugarrenez dator

Fun Dantz! lehiaketa egingo dute bihar, zapatua, Ibarra kiroldegian. Bikoteka eta taldeka jardungo dute nor baino nor gehiago hamalau taldek, hain zuzen ere; onenek BreakOnStage jaialdirako txartelak lortuko dituzte, baita diru sariak ere

Mirari Altube ARETXABALETA

Dantza urbanoak edo kaleko dantzak erakustea helburu duen lehiaketa laugarrenez dator Martxoaren 8aren bueltan. Ibarra kiroldegian izango da, zapatuan, 18:25ean hasita, eta sarrerak dagoeneko salgai dituzte: aurretik, Arkupen, 3 eurotan, eta zapatuan, kiroldegian, 5 eurotan.

Erakustaldiak eta lehiaketa

Hip hop doinuak eta break dance dantzak izango dira protagonista bihar kiroldegian, eta kantxan jarritako agertokian handik eta hemendik etorritako dantzariak elkartuko dira; 120 inguru.

Jaialdia 18:30ak baino lehenago hasiko dute, eta lehen saioa epaimahaikideen erakustaldia izango da. Dantza garai-kidean aditua den Sara Martinez etorriko da Bilbotik eta dantza urbanoetan adituak diren Milki eta Paula Zaragozatik.

Ondoren, gaztetxoaren txanda izango da. Zortzi akademiatale etorritako dantzariak koreografia erakustaldia egingo dute. Eta 19:15 inguruan, bikoteek jardungo dute nor baino nor gehiago; bost bikotek hartuko dute parte, hain zuzen.

Egitaraua

- **18:00** Kiroldegiko ateen irekiera.
- **18:25** Epaimahaikideen dantza urbanoen erakustaldia.
- **18:30** Gaztetxoaren koreografiak; zortzi dantza akademia.
- **19:15** Bikotekako erakustaldia; bost bikote.
- **19:45** Fun dantz lehiaketa nagusia; hamalau talde.
- **21:15** Sari banaketa.

Eta Urban Dance lehiaketa, ekitaldi nagusia, 19:45ean hasiko da. Euskal Herriko hainbat txokotatik gerturatutako hamalau taldek jardungo dute; talde esanguratsuenen artean daude RBG (Bilbo), Breathless (Iruñea), Bamboo (Donostia), Fusion Noise (Bilbo) eta Diamond Crew (Gasteiz).

BreakOnStage jaialdira begira

Euskal Herriko dantza urbanoen topaketa garrantzitsuenetakoa den BreakOnStage lehiaketarako puntuagarria izango da aurten ere Fun Dantz! Bi talde onenek martxoaren 25ean Bilbao Arenan jokatuiko den jaialdirako txartela eskuratu dute. Horrez gain diru saria ere jasoko dute: lehenengoak, 300 euro; bigarrenak, 200 euro; eta hirugarrenak, 100 euro.

Bikotekako kategoriako onenek ere jasoko dute diru saria: bikote onenak 200 euro eta bigarrenak 100 euro.



Errasti eta Unanue erakusketan jarritako lanen aurrean. JOAQUIN URTEAGA

'Jatorriz Kalebarren' erakusketa dago gaurtik Arkupen

Nikasio Unanuek luma-muturrarekin egindako pinturak jarri ditu eta Luis Jose Errastik zeramika lanak

M.A. ARETXABALETA

Arkupe kultura etxeko erakusketa aretoak bi aretxabaletarren lanak jasoko ditu martxoan *Jatorriz Kalebarren* izenarekin; Nikasio Unanue eta Luis Jose Errasti artisten lanak, hain zuzen ere.

Inauguratze ekitaldia gaur

Inauguratze ekitaldia gaur, egubakoitza, egingo dute 19:00etan, eta ondoren, hilabete osoan izango dira lanok ikus-

teko. Hona hemen ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00; eta zapatuetan, 11:00-13:00.

Pinturak eta zeramika lanak

Unanuek luma-muturrarekin egindako pinturak erakutsiko ditu; hogeit hamar. Luis Jose Errastik, osterak, zeramika lanak jarri ditu eta liburu bat ere eroango du: *Altruista*. Lanok herritarrei erakusteko "gogotsu" daude biak ala biak.

Hurtzaroaren gaineko trebakuntza zikloa martxoan

Transexualitatearen eta 'bullying'-aren gainean jardutera etorriko dira bi aditu martxoan eta apirilean

M.A. ARETXABALETA

Trebakuntza saioa antolatu du Guraso Foroak 12 urtera arteko seme-alabak dituzten gurasoendako. Martxoan eta apirilean izango dira horiek eta izena emateko epea zabalik dago martxoaren 13a artean. Arkupera jo behar da horretarako edo mezu bat bidali honako helbidera: gazteria@aretxabaleta.eus.

'Bullying'-a bi egunetan

Guraso askorendako kezka iturri diren gaiak hautatu dituzte, horien gainean hausnartzeko

eta, batez ere, argibideak jasotzeko adituengandik. Haurren transexualitatea landuko du Chrysallis elkarteak Beate Seve- rrek martxoaren 14an (18:00).

Eta *bullying*-a izango du berbetarako gai Eli Moreno Carri- llok martxoaren 28an eta apirila- ren 4an: *Bullyinga, non dago muga?* da hitzaldiaren izena eta familiei baliabideak eskaintzea da helburua halako egoerak prebenitzeko, identifikatzeko eta zelan jokatu jakiteko.

Hitzaldi guztiak euskaraz dira, Arkupen, 18:00etan.



II. Aresko Emakume Martxaren eta lasterketarako egindako aurkezpena kultura etxean. I.B

Aldarrikapenak eta jaia Martxoaren 8aren bueltan

Aste osoko egitaraua antolatu dute Emakumeen Nazioarteko Egunari begira: emakumeen kontrako prebentzio hitzaldia, kontzentrazioa plazan, 'Con fajas y a lo loco' antzerkia... Horrez gain, Aresko Emakume Martxa ere egingo da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat aldarrikapen eta ospakizun izango dira Eskoriatzan. Amuska Emakume Elkarteak antolatutako antzerkia eta kontzentrazioa, Karate Atamaren antolatutako hitzaldia eta Areskok antolatuta emakumeek kirolean duten edo beharko luketen aldeko martxa eta lasterketa.

Lehenengo hitzordua martxoaren 6an izango da: Karate Atama Eskoriatza eta Denon Artean elkarteek *Prevención contra la mujer* hitzaldia antolatu dute, astelehenerako. Ibarraundi museoan izango da, 19:00etan, eta izena eman nahi duenak aukera izango du, 627 44 21 42 telefonora deituta –gaur izango da horretarako azken eguna–. Emakumeen kontrako biolentziaren aurrean, eremu ezberdinetan, etxean, kalean, lanean... jasan ditzaketen erasoaren kontrako prebentzio hitzaldia izango da.

Kontzentrazioa eta antzerkia

Martxoaren 8an, berriz, Udalak antolatuta, eta Amuska Emakume Elkarteak babestuta, kontzentrazioa egingo da Herriko Plazan, 18:30ean. Ondoren, 19:00etan, *Con fajas y a lo loco* antzerkia ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian. Sarrera doakoa izango da eta maitasuna eta umorezko komedia zati beretan uztartuko dituen lana Tdiferecia Produzioak taldekoek antzeztuko dute. Bi emakume diskoteka baten teitlatuan daude, animalia-estapatuzko minigonetan eta takoi jasanezinetan bildurik, faxa itogarri bat ezkutuan daramatela. Nerabe bat iritsiko da: "Baina, tira, ama! Zer egiten duzue

**MARTXOAREN 12AN
EGINGO DEN ARESKO
EMAKUME MARTXAKO
PRESTAKIZUNAK
AURRERA DOAZ**

hemen erdi mozturoriturik diskotekaren atzealdean?", esango du. Hor hasiko da gau ero eta dibertigarria.

Aresko Emakume Martxa

Aresko Emakume Martxa bigarren edizioa izango du martxoaren 12an. Eskoriatzako plazan hasita, Aretxabaletarainoko bidea egingo da, eta emakumeek kirolean duten edo beharko luketen berdintasuna lortzeko helburuarekin antolatu da aurretik berrikuntzaz beteta datorren ekimena.

Emakumeon pausoa herriz herri doa leloarekin, Eskoriatzatik Aretxabaletarainoko 4 kilometro oinezko martxa egin nahi duenak 5 euro ordaindu beharko ditu eta 7 kilometroko lasterketan parte hartu nahi duenak 7 euro ordaindu beharko ditu. Horrez gain, luntxa eta zozketako zenbaki bat jasoko dute parte-hartzaileek, eta egunerako egindako kamiseta emango dizkiete antolatzaileek.



GOIENA

"Egunaz disfrutatuko dugu"

GURUTZE IDIGORAS
AMUSKA ELKARTEA

Martxoaren 8an urtero egin ohi den moduan, kontzentrazioa izango da Eskoriatzako Herriko Plazan, 18:30ean.

Zer aldarrikatuko duzue Martxoaren 8ko kontzentrazioan?

Udalak antolatzen duen ekimena da, baina Amuska Emakume Elkarteak bertan izango gara emakumeen eskubideak defendatzeko. Gizartean emakumeak egiten duen borroka ospatzen da, gizonarekiko berdintasuna lortzeko, eta guk, eguna ospatu beharrean, disfrutatuko egingo dugu.

Bideo joko programazio tailerra domekan

Bideo joko bat diseinatzeko ikastea izango da bibliotekan emango den tailerraren helburua

I.B ESKORIATZA

Domeka honetan, martxoaren 5ean, eta hurrengoan, martxoaren 12an, bideo jokoen programazio tailerra izango da Eskoriatzako bibliotekan. Bi egunetan, 16:30etik 19:30era bitartean emango da, eta izena eman dutenek 10 euro ordaindu beharko dute lehenengo klasean. Tailer honen helburua, hain zuzen, bideo joko bat diseinatzeko ikastea da.

Skura Labs enpresako bi monitoren emango duten ikastaroa 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako izango da –Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarren mailakoetara–. Bibliotekan egitearen arrazoia da haur bakoitzarentzat ordenagailu bat dagoela eta ikastarorako zeuden 18 plazak bete egin direla. Besteak beste, bideo jokoen programazioko honako kompetentzia hauek landuko dituzte: Scratch programak nola funtzionatzeko duen, non aurkitu daitezkeen tresnak eta arazoaren aurrean zer egin behar den, programazioko pieza desberdinak ikasiko dituzte, pantaila interaktiboaren funtzionamendua, objektu desberdinak erabiltzen eta hauei mugimendua ematen ere ikasiko dute, besteak beste.

Familiei zuzendutako hiru orduko mendi irteera Gebaran

Eskoriatzako Hezkuntza Foroak eta Aretxabaletako Guraso Foroak antolatuta, Gebara-Gaztelua-Aldaia-Etura-Gebara hiru orduko mendi irteera egingo dute domekan. Irteera familiei zuzendutakoa da, Eskoriatzakoak 10:00etan Gebarako Asuncion plazan elkartuko dira eta Aretxabaletakoak 09:30ean Aretxabaletako plazan.



Jose Luis Torrente, Urxion taldearen auto gainean Inauteri-zapatuko mozorro-desfilean. MAITE TXINTXURRETA



Trump-en aurkako protesta egiten aritu zen taldea. M.A



Autobus Magikoak ere parte hartu zuen lehiaketan. M.A

Haurrak protagonista Eskoriatzako Inauterietan

Eguraldia lagun, mozorro ezberdinak, dantzak eta giro aparta nagusitu zen Inauteri-zapatuko mozorro-desfilean. Hala ere, inauteri-martitzena ere ez zen atzean geratu; izan ere, ikastetxeko haurren dantzek irribarrez bete zuten frontoia

Imanol Beloki ESKORIATZA

Amaitu dira Eskoriatzako Aratusteak, eta egunotan mozorro ezberdin eta originalak ikusi ahal izan dira herriko kaleetan zehar. Aratuste-zapatuan mozorro-desfilea izan zen, eta hainbat sari banatu zituen Udalak parte hartu zutenen artean; besteak beste, banakako onena Jose Luis Torrenterendako izan zen eta

talde txikien barruan giro onenaren saria, berriz, Soldadu alai-zaleendako.

Herri bazkaria

Aratuste-zapatuko herri bazkarian 123 haur eta 201 heldu izan ziren, eta, paella ederra jateko aukera izan bazen ere, beste urte batzuetan baino giro apalagoa izan zen orokorrean.

Umeak protagonista

Aratuste-martitzen goizean, berriz, ikastetxeetako haurren jaialdia izan zen frontoian, eta giro ederra izan zen bertan. Dantza bikainak egin zituzten, eta mozorro ederrak ikusi ahal izan ziren. Gainera, ikusle ugari joan zen bertara, familiarrak bereziki, baita Jose Arana zaharren egoitzako egoiliarrek ere.



Piratak Eskoriatzan. M.T



Ikastetxeetako dantzak. I.B



Aratuste-martitzenean pilotalekua beteta haurren dantzak ikusteko. I.B

Santa Ana auzoan egindako lanengatik autoak motelago

Mugikortasun eta irisgarritasun lanen zati horretan, oinezkoen mugikortasunari lehentasuna eman zaio

I.B ESKORIATZA

Santa Ana auzoan egindako mugikortasun eta irisgarritasun lanak amaituta daude dagoeneko, eta lanak hasi aurretiko helburuak bete dira, lanak amaitu zituztenetik gaur arte. Hau

da, goratutako zebra-bidearekin nabari da autoak abiadura motelagoarekin pasatzen direla bertatik. Oinezkoen mugikortasunari lehentasuna eman zaio... Bestalde, errepide zati bat kendu dute Pagaldai harategiaren

sarreran espaloia behar bezala jartzeko, eta txukunago dago bertarako sarbidea.

Bide zati horretan trafikoa aldiko norabide batekoa da, eta, argazkian agertzen den moduan, lehentasuna izango dute Antsoategiko biribilguneetik datozen autoek, eta ez Zaldibar aparkalekutik datozenek.

Eskoriatzako Udaleko Hirigintza eta Mugikortasuneko batzordeburu Josu Ezkurdiak adierazi duenez, egindako obrak "eraginkorrak" izan dira.



Zaldibar aparkalekutik Antsoategiko biribilgunera doan zatia amaituta dago. I.B



Eskoriatzako jokalaria baloiarekin. IMANOL SORIANO

Liderraren aurka jokatu dute Eskoriatzako neskek, Urretxun

Inauterietako atsedenaldiaren ondoren, erreku-peratuta, garaipenaren bila irtengo dira kantxara

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatuan, 16:00etan, Urretxun jokatu dute partidua Eskoriatzako saskibalo taldeko emakumezko seniorrek, AYMA Goierri taldearen aurka. Inauterietan deskantsua izan ostean, garaipenaren bila irtengo dira kantxara, sailkapeneko goiko postuak eskuratzeko asmotan.

Aurten, liga formatua aldatuta dute seniorrek datorren urtera begira, eta, A1 mailan jokatu nahi badute, lehenengo bost postuen artean geratu beharko dute Eskoriatzako neskek. Aurkariak liderrak dira 18 pun-

turekin eta Eskoriatzako neskek, berriz, laugarren postuan daude, 17 punturekin. Hala, postu horretatik jaitsi barik, liga amaitu arte, ahal dituzten partiduguztiak irabazi, eta gero final-laurdenak jokatu beharko dituzte beraien helburua lortu nahi badute.

Lesioak erreku-peratuta

Azken jardunaldietan izandako kargak eta lesioak erreku-peratzeko denbora izan dute Inauterietan izan duten atsedenaldia-ekin. Hala, garaipenaren bila irtengo dira kantxara.

Azken emaitzekin jarraitzeko asmotan

Hiru jardunaldi jarraian irabazi ostean, laugarren garaipenaren bila joango dira Pasaia

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzak Afantxo Pescados Ferreres taldearen aurka jokatu du zapatuan, 16:00etan, Pasaia Donibanen. Pasaia taldea bigarren postuan dago sailkapenean eta Eskoriatzakoak, berriz, seigarren postuan daude. Partidu zaila izango dute, eta aurreko jardunaldiaren tanke-rakoa izango dela aurreikusten dute taldekideek. Pasa den astean Kukuyagaren aurka garaipen estua lortu ostean, (2-1) gogotsu irtengo dira kantxara Eskoriatzako mutilak.

Azken hiru partidua jarraian irabazi dituzte eskoriatzarrek, eta, zortzi jardunaldiren faltan, zaila dute hasierako helburua lortzea; hau da, lehen hiru postuetan geratzea. Hala ere, sailkapenean ahalik eta goren geratzea dute azken erronka moduan jarritako, eta, bide batez, taldea finkatu eta denboraldiari amaiera ona eman nahi diote.

Kontsumobidek bi hitzaldi egingo ditu datorren astean

Olazar Jubilatuen Elkartek antolatuta, *Empresas de telefonía* hitzaldia egongo da astelehenean, 18:00etan, kultura etxean, eta martxoaren 8an, berriz, ordu eta leku berean, *Servicios de asistencia técnica* hitzaldia ere egongo da.

Gaztelaraz izango dira bi hitzaldiak, eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutukoek egingo dituzte. Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko erakunde autonomoak telefonía zerbitzuek egiten dituzten eskaintzei buruzko azalpenak ezagutaraziko dituzte, eta horiei buruzko galderak egiteko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Hiru egunerako aisi eskaintzan izena emateko azken eguna

Eskoriatzako Udalak Txirikila Aisialdi Elkartearekin batera, apirilaren 10, 11 eta 12rako antolatutako aisialdi eskaintzarako izena emateko azken eguna gaur izango dute bertan lan egin nahi duten begiraleek.

Hiru egun horietan 10:00etatik 13:00etara egingo dute lan aukeratuak izango diren begiraleek; LH1 eta LH6 arteko umeei zuzendutako aisialdi eskaintzan, kirol ekintzak, sukaldaritza, ginkanak, jolasak, igerilekua... denetarik izango dute. Interesatuak curriculum *gazteria@eskoriatza.eus* posta elektronikora bidali dezakete edo Tortolis ludotekara eraman dezakete zuzenean.

Mahai-jolasen txapelketa izango da Tortolis ludotekan

Gaur, 17:00etan, 3-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ekintza izango da Tortolis ludotekan. Haurrak adinaren arabera banatu dute mahai desberdinetan, eta adinari egokitutako jolas ezberdinetan arituko dira. Mahai-jolasen txapelketan parte hartzeko ez dute izenik eman beharko, eta ekintza hori, hain zuzen ere, bazkideei zein bazkide ez diren haur guztiei zuzenduta dago.

Martxoaren 8an, berriz, hezikidetzako jolasak eta nesken eta mutilen arteko berdintasunaren inguruan hausnarketa txikiak egingo dituzte, asanblada bidez. Bazkideei zuzendutako ekintza 17:00etan izango da.

LEINTZ GATZAGA 21



Pasa den zapatuan herriko plazan ateratako talde argazkia. GATZ MUSEOA

Giro "paregabean" igaro dituzte Aratustek Leintz Gatzagan

'Photocall'-ak, 40 lagun batu zituen bazkariak eta ondorengo dantzaldiak osatu zuten pasa den zapatua

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Eneka Zankada herriko alkatea eta Kultura zinegotzi Joannes Mendizabal "oso gustura" azaldu dira Aratustek herrian eman dutenarekin. "Giro paregabean igaro genuen eguna. Gainera, eguraldiak lagundu egin zigun", azaldu du Mendizabalek. Alkatetarako gaineratu du, bai haur bai heldu, "egun ederra" pasatu zutela elkarrekin.

Goizean *photocall* bat egin zuten. "Herriarrak animatu ziren moztortzera eta parte hartzera. Gainera, gaiak berak ere eman zuten jokoa, zabala zen, eta jen-

deak orotariko moztortxoak jantzi zituen: animalia ezberdinak, adarbakar bat ere bazegoen...", azpimarratu du Mendizabalek.

Ondoren, 40 lagun inguru batu ziren Soran Etxean egin zuten herri bazkarian, "guztiok moztortuta eta giro ederrean".

Bazkalostean, dantzaldia

Azkenik, bazkalostean, Humberto disko-jartzaileak alaitu zuen arratsaldea, eta iluntzera arte luzatu zen festa. "Musika ona jarri zuen eta bertaratutako gehienak dantzan jarri gintuen", bukatu du Kultura zinegotziak.

'El buen vivir' dokumentala ikusgai martxoaren 8an

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna da eta horren harira *El buen vivir* dokumentala ikusi ahal izango dute herriarrak, kultura etxean, 18:30ean. Guatemalako talde indigena feminista batek egin dako lana da. Ondoren, Toki Eder elkartean luntxa egongo da, dokumentalaren gaineko hausnarketa egiteko, trago batzuekin eta mokadutxoarekin.

Bestalde, datorren zapatuan, martxoaren 11n, Emakumeen Eguna egingo dute, Sorginak emakume taldeak antolatuta. Hala, 14:30ean Soran Etxean bazkaria egingo dute eta 30 lagun inguru batuko dira. Ondoren, Humberto DJa egongo da.

Martxoaren 11n Korrikako arropak salgai egongo dira

Korrika Batzordean erabakitakoaren arabera, martxoaren 11n salgai egongo dira Korrikako arropa eta materiala, frontoiko arkupetan. Herri herri mugitzen doa arropak saltzen dituen postua eta datorren zapatuan Emakumeen Eguna dela aprobetxatuz, batzordean erabaki zen egun proposa izango litza-tekeela arropak saltzeko.

Martxoaren 8an, eguaztena, egingo dute hurrengo batzarra, 18:00etan, Labidean, eta orduan finkatuko dira lotzeko falta diren kontu guztiak.

Bestalde, angulen zozketan 477 izan zen zenbaki saritua. Arrasatear batek eraman zuen angula kiloa etxera.



Virginia Imaz 2014an Elgetako Espaloian egindako agerraldi batean. IMANOL SORIANO

Aldarrikapena, antzerkia eta zinema bat eginda

Urtero lege, Martxoaren 8aren harira Emakumeen Astea antolatu dute Itur Zuri elkarteak. Aurtengo egitarauan, Virginia Imaz ipuin kontalari eta antzezle donostiarraren ikuskizuna, bazkaria eta zine emanaldia daude

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Martxoaren 8a aldarrikapenerako eguna da. Emakume izateaz harro sentitzeko eta sexu berdintasuna lortzeko bidean emakumeen eskubideak errespetatzea eskatzeko eguna. Itur Zuri elkarteak ondo dakite hori, eta, aldarrikapenez harago, kultur egitarautxo prestatu dute Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan.

"Itur Zuri elkartearen eginkizunen artean dago Emakumeen Egunaren inguruko ekintzak antolatzea. Antolatzen dutenak batzordeko sei pertsona dira, baina herriko emakume askok hartzen dute parte ondoren antolatutako ekintzetan", adierazi du elkarteak Lurdes Markaidek.

Hiru ekintzako egitaraua

Urrutira joan gabe, gaurko, Virginia Imaz antzezle eta ipuin kontalari donostiarraren *Divinas* ikuskizuna antolatu dute. 21:30ean izango da, zinema aretoan, eta, aurreko batzuetan

bezala, inguruko herrietatik jendea erakartzea espero dute.

"Aramaiora bi aldiz etorri da aurretik, eta haren ikuskizunak arrakastatsuak izan dira beti. Arrasatetik, adibidez, pertsona asko etortzen dira. Iaz oso ikuskizun polita antolatu genuen talde amateur batekin. Aurten, garaiz gogoratu ginen Virginia-rekin eta zortea izan dugu, libre zuelako egun hori. Asko poztu ginen horregatik. Orain arte haren antzerki guztiek gure asmoak bete dituzte. Oso onak izaten dira eta benetan konektatzen dute edozein adineko emakumerekin".

Kasu honetan, *Divinas* ikuskizunean, eguneroko betebeharrak gertatzen ezin heldurik dabilen

"VIRGINIA IMAZEN IKUSKIZUNEK EDOZEIN ADINEKO EMAKUMEREKIN KONEKTATZEN DUTE"

emakume baten azalean sartuko da Imaz.

Zapatuan, aldiz, bazkaria egingo dute Añai tabernan. Asteazkenera arte izan zen izena emateko epea, eta lagun kuadrilla polita elkartzeko da mahaiaren bueltan. Sorpresatxo baterako tartea izango da, mahaikide batek gitarra hartu eta kantalditxo eskainiko du eta.

Azkenik, Martxoaren 8an, zinema emanaldia egingo dute, 18:00etan, zinema aretoan. *La estación de las mujeres* film indiarra proiektatuko dute. Erdi esklabotzan bizi diren lau emakume askatasunerantz egiten duten bidea erakusten da bertan. "Batzuetan, zaila egiten zaigu egun horretarako pelikula aukeratzeko, adin ezberdinetako emakumeak datozelako. Hau, ordea, denentzako proposa iruditu zitzaigun".

Bestalde, urtarrilean egin zuten urteroko batzar nagusia, eta, batzarkideen ustez, "baliagarria" izan zen etorkizunera begira.

Legutioko saiora aurtengo final preziaturako txartelaren bila

Finalaurrekoetako azken kantaldia egingo dute zapatuan Iker Agirrek, Peru Abarrategik eta Manex Agirrek

X. G. ARAMAIO

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketa fase finaleko bigarren itzulian murgilduko da, eta azken hiru finalaurrekoetako puntuazioek erabakiko dute aurtengo armiarman zein sei bertsolarik iraungo duten bukaeraraino. Lehen itzuliko sailkapenari begiratuz gero, Xabi Igoak (lehen) eta Manex Agirrek (seigarren) finalista bezala errepikatuko lukete, baina oraindik ez dago ezer erabakita.

Fase berriko lehen geltokia Legutio izango da eta bertan

abestuko dute Manex Agirre, Peru Abarrategi eta Iker Agirre aramaioarrek.

Peru Abarrategik ez du bere burua finalean ikusten, baina saio *itxurosoa* eginda aukerak izan ditzakeela uste du. Iker Agirreren kasuan, aurreko finalaurrekoan emandako maila errepikatzearekin pozik geratuko litzatekeela azaldu du. Manex Agirrek aitortu du ez dela egoerarik erosonean heltzen. "Atzetik datozenek ondo eginez gero, edozein akatsekin kanpoan geratzeko arriskua izan dezaket".



Aramaio udalbatzako kideek aho batez onartu zituzten gai guztiak. XABI GOROSTIDI

Baso-bideen erabiltzaileak laguntzeko neurria onartuta

Haizeteak eragindako kalteak arintzeko, aurten tasarik ez kobratzea onartu zuten EH Bilduk eta EAJk

X.G. ARAMAIO

Pasa den egunean egin zuten otsaileko osoko bilkura Aramaio udalbatzako kideek. Zortzi puntu landu zituzten, eta gai guztiak aho batez onartu zituzten.

Denetan ezohikoena baso-bideak erabiltzeagatik tasarik ez kobratzearena izan zen. Otsailaren 13ko haize bortitzek kalte ugari sortu zituzten Aramaio basoetan, eta, horien ondorio ekonomikoak arintzeko asmoz, baso-bideen erabiltzaileei aurten tasarik ez kobratzeko proposamenak aurrera egin zuen bi

alderdien babesarekin. "Pista publikoak erabiltzeko fidantza bat eta tasa bat ordaintzen dituzte egurzaleek. Fidantza kobratzen jarraituko dugu, bideak era egokian erabili ditzaten, eta kalterik ez eragiteko. Baina tasarik ez kobratzea proposatu dugu, badakigulako haizeteek kalte nabariak eragin ditzutela", adierazi zuen Lierni Altunak.

Beste kontu batzuen artean, Arabarri sozietate publikoaren akzioak Arabako Foru Aldundiari saltzea eta Eudelen Emakumeen Nazioarteko Eguneko adierazpena onartu zituzten.



Duela 40 urte gurutzea berraltxatu zuteneko irudiak. ARAMAIOKO UDALA

Tellamendiko gurutzea berriz jarri zutela gogoratzeko irteera

1977ko urtarrilaren 1ean gurutzea bota arren, handik hiru hilabetera berriz jarri zutela ekarriko dute gogora

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Domekan 40 urte beteko dira Tellamendiko gurutzea berriz altxatu zutela. 1977ko urtarrilaren 1ean lehergailu bidez eraitsi zuen Guardia Zibilak, ikurrina berriro jarri gero gurutzea botako zuten mehatxua betez. Hasserrea eta amorrua Aramaio osoan hedatu ziren, baina horiek onerako baliatuz, hiru hilabete epean berriz jarri zuten.

Balentria gogoratzu

Aramaio Udalak adierazi duenez, urteak daramatzate gertakari hura gogorarazteko eta belaunaldi berriei duela 40 urte gertatutakoa irakasteko zerbait egin nahian.

Horretarako, urtarrilean batzorde ireki bat eratu zuten, kutsu politikorik gabekoa. Bi batzar egin ondoren, domeka honetarako Tellamendira irteera antolatu dute.

10:00etan abiatuko dira plaza-tik eta 11:30ean ekitaldia egingo dute gurutzean. Ikurrina jarriko dute, ondoren bertsolariek koplak batzuk eskainiko dituzte, eta, amaitzeko, 1977an gertatutakoa gogorarazteko Sabin Salaberri konposatutako *Bellamendiko gurutzea* kanta abestuko dute. Alaiak Elkarteko kantu tailerrekoek gogotsu prestatu duten kantua da, eta zapatuan Tellamendin izango dira ozen abesteko asmoz.

Gertatutako dokumentatzen

Duela 40 urteko gertatutakoa dokumentatzeko aldizkari antzeko bat prestatzen ari da Sabin Aranburu. "Historia ikasten nabil, eta garaiko protagonisten testigantzak jasotzeko enkargua pasa zidaten, ondoren aldizkari formatuan kaleratzeko. Herriko gazteei gertatutakoa azaltzeko modu aproposa izan daiteke".

Herriko bi pilotarik finalak jokatu dituzte bihar

Julen Olaizola eta Jon Herrarte dira. Lehenak Zizur Nagusiko lau terdiko finala jokatu du bihar goizean, eta Ioritz Arbaiza orozkoarra baino gehiago izan behar du txapela janzteko.

Herrartek, aldiz, Arabako Trinetek Txapelketako gazte mailako finala jokatu du bihar goizean. Binaka arituko da, Laudioko bikotekidearekin batera.

Euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du Txirritola elkarteak

Aramaion ikasten edo bizi direnei zuzenduta dago, eta apirilaren 7ra arte izango da lanak aurkezteko tartea.

Lau kategoriaren banatuko dituzte sariak: Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloak eta 12 urtetik gorakoak. Euskalkian eta batuan ondo idaztea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Irakurzaletasunari bultzada emateko kanpaina

Begixekin leiru, bihotzakin gozatu. Hori izan da Txirritola euskara elkarteak Aramaion irakurzaletasuna sustatu eta indarberritzeko prestatu duen kanpainaren izena, eta gazte zein helduei zuzenduta dago.

Liburutegia eta eskola lagun

Helburu hori lortzeko bidea ez dute bakarrik egingo, ordea. Bidelagun izango dituzte herriko liburutegia eta San Martin eskola ere. Hiru pauso jarraitu beharko dira: liburutegian euskarazko liburu bat hartu, irakurriz ondo pasatu, eta ondoren iritzi-fitxa bete. Parte hartzaileen artean hainbat sari zozketatuko dituzte.



IKER ELEXPURU

Umore onez jositako Aratustekak

Slash, Axl Rose eta Neil Young rock izarrak, Che Guevara eta Fidel Castro pertsonaia historikoak eta *Grease*, *Blues Brothers* zein *Mamu harrapariak* filmetako pertsonaiak. Denetarikoz mozorroak ikusi ahal izan ziren Aramaion pasa den zapatuan. Irudian, haurren kategoriako irabazle izan ziren Aramaio Tennis Cup-ekoak.

DEBAGOIENKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK



GOIAZ!
Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2017
Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 26an eta 27an
Kulturaren, Arrasaten


[f](#) [t](#) [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



IZAN MAILLOREN ETA MIKEL MENGUALEN IBILBIDEA



Iñaki Maillor eta Mikel Mengual ikaskideak dira, Automatizazio eta Robotika Industrialaren goi-mailako zikloa bukatzen ari dira, Miguel Altuna Institutuan. EuskoSkills txapelketa irabazi zuten, eta orain, SpainSkills txapelketara joateko entrenatzen eta makina eta tresnak batzen harrapatu ditugu:

Zer da EuskoSkills lehiaketa – SpainSkills-EuroSkills-?

I.M.: 25 urtetik beherako ikasleentzako lehiaketa da. Antolakuntzak produkzio-linea bat egiteko esaten digu, ziklo edo estazio konkretu batzuekin; adibidez, tapa jarri, ziurtatu, alde batera bota...

M.M.: Eta guk hutsetik sortu behar dugu eskatutakoa, daukagun materialarekin eta denbora jakin batean: diseinatu, muntatu, programatu, kable elektrikoak jarri, eta guztiak funtzionatu behar du.

Zer baloratzen da?

Alde batetik, azkartasuna, baina baita emaitza ere; guztiak egon behar du eskatu bezala. Guk 50etik 48 puntu lortu genituen Euskadiko txapelketan, eta orain, Espainiako beste hamalau talderekin lehiatuko gara.

Eta nolatan heldu zarete Lanbide Heziketara?

I.M.: Ni Informatikako erdi-mailako heziketa ziklo batetik nator, eta horrek programatzeko orduan lagundu egiten dit. Praktikak Gureak-en egingo ditut, eta ondoren lanean hasteko gogoz nago.

M.M.: Nik unibertsitatean urtebete egin nuen, eta, ez zitzaidanez gustatu, hona etorri nintzen. Lanbide Heziketan asko ikasi dut, erabiliz ikasten duzu, eta, segur aski, Lazpiurren praktikak egin ondoren, unibertsitateara bueltatuko naiz, ingeniariatza batekin jarraituz.

Julen Iriondo BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak adierazpen instituzionala, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Eudelen proposamena oinarri hartuta, EAEko alkateen %24,7 soilik dela emakumea dioena bezalakako datuak ematearekin batera, Udalak bere egin du "beharrezko neurriak eta estrategiak hartzea, emakume eta gizonen ordezkariak eta parte-hartze orekatua sustatzeko erabakiak hartzen diren tokiko esparru guztietan".

Hainbat konpromiso zehazten ditu adierazpenak; besteak beste –eta Elena Lete alkatearen esanetan aurtengo asmo nagusia–, Udalak zeharkako gai kontsideratzea berdintasunarena, eta hala gauza dadila askotariko esparru eta jardunetan.

Hori, Udalari dagokionez; Martxantere, berriz, zaintza lanean jarri dute fokua: "Eredu sozioekonomiko osoa sostengatzen duten eta ezkutukoak diren lanak dira zainketak. Ordaindutako zaintza lanak zein ordaindu gabekoak guztiz feminizatuta eta balioa kenduta daude, eta nork zainduko zaituen, nor zainduko duzun, zein baliabiderekin eta nola ez dira berez aukeratu eta gertatzen diren prozesuak; emakumea edo gizona izan, migratzailea izan edo ez, klase sozial apalekoa edo ez, elementu erabakigarriak dira".

"Feminismotik, historikoki, ikusezina eta ezkutukoa den lanari" garrantzia aitortzeko egindako "ahalegin handiaren" haritik, "bizitza sostengatuko duen ekonomiaz" hitz egiten hasi nahi dute Martxantere, eta horretarako ari dira sareak sortzen, herriko askotariko ema-



Iazko Emakumeen Nazioarteko Egunean egindako ekintza. GOIENA

Egun asko, egun baten bueltan

Martxoaren 8a dela-eta hil osorako egitaraua antolatu dute Udalak, Martxantere, ikastetxeek eta Jardunek. Udalbatzak onartutako adierazpenak emakumeek erabaki-guneetan duten lekuan jarri du arreta, eta talde feministak zaintza lanetan

kume zaintzaileekin harremanetan.

Ekintza ugari

Jon Abrilen *Neskatoak* dokumentalaren emanaldia iragartzen du egitarauak Martxoaren 8aren bueltan prestatutakoekin has-teko. Dokumentala da aurreko mendeko erdi aldera Baztan-Bidasoa ingurutik Ipar Euskal Herrira edo are urrunago nekame lanetara –eurentzat eta etxean geratutakoentzat dirua lortzeko– joandako emakumei buruzkoa. Zuzendariarekin solasaldia ere izango da.

Emakumeen Nazioarteko Eguna, berriz, *Berdinkatea*-rekin hasiko da. Herriko ikastetxeak lotuko dituen ordu laurdeneko giza katea izango da, eta ondoren manifestua irakurriko dute ikasleek plazan: "Egitasmoaren helburua da Martxoaren 8aren inguruan aurretiaz ikasleekin hausnarketa bat bultzatzea eta egunean bertan ikasle eta irakasleak berdintasunaren aldeko aldarrian inplikatzeko", dio Udaleko Prebentzio eta Berdintasun teknikari Onintza Larrinagak.

Martxanteren arratsaldeko kalejira performancean, berriz, zaintza lanen gainera "kezkek" azalduko dituzte herriko hainbat txokotan egingo dituzten geldiu-neetan. Kalejiraren amaieran, lore landaketa egingo dute, zaintza lanetan aritzen diren emakumeen omenez.

Zapatuan –hilak 11–, festa feminista izango da: 19:00etan plazan hasita, zumba-poteoa egingo dute; ikastaro ibiltaria izango da. 22:30ean, berriz, Bilboko Serpiente musika taldea, eta ondoren Martxantere VJ –bideoa eta musika–, gaztetxean.

Domekan, Eidabe konpainiaren *Futbolariak eta printzesak* an-

Egitaraua

Martxoak 5, domeka

- 10:30 *Lilatoia*, Donostian.
- 19:30 *Neskatoak* dokumentala, Zabalotegin.

Martxoak 8, eguaztena

- 11:15 *Berdinkatea*; 11:35ean, ekitaldia, plazan.
- 19:00 Kalejira performancea, plazan hasita.

Martxoak 10, egubakoitza

- 19:00 *Emakumeen etxea* izeneko erakusketaren

inaugurazio ekitaldia, Aroztegi aretoan.

Martxoak 11, zapatua

- Festa feminista.

Martxoak 12, domeka

- 18:00 *Futbolariak eta printzesak* antzezlan, Zabalotegin.

Martxoak 15, eguaztena

- 18:30 Askotariko jatorrietako emakumeen te hartzea, San

Martin plazan, Auzokok antolatuta.

- 20:00 *¡Cuidado, resbala!* dokumentala, Zabalotegin.

Martxoak 18, zapatua

- 20:00 Vocalia abesbatza, Mariaren Lagundiko elizan.

Martxoak 27, astelehena

- 19:00 *Feminismoa eta euskara bidaide* hitzaldia, Irizarren. Hizlariak: Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

tzezlana ikusteko aukera egongo da Zabalotegin. "Topiko sexistekin hautsi nahi duen komedia azkarra" da, neska izateari edo mutil izateari egozten zaizkien arauak bete nahi ez dituzten protagonistekin. Galder Perez da zuzendaria, eta Jon Zubiaga eta Olatz Pagaldai aktoreak. 7 eta 13 urte artekoentzako antzezlan da, eta 4 euro balioko du sarrerak.

Hilaren 15ean, askotariko jatorrietako emakumeen te hartzea egingo dute plazan, "elkar eza-gutzeko eta harremanak sustatzeko", Auzokoko Maddi Aspiatzuren arabera. 20:00etan, berriz, *¡Cuidado, resbala!* izeneko dokumentala emango dute zine-klubean, zaintza lanei buruzkoa, Circulo de Mujeres elkartearena.

Martxoaren 18ko Vocalia abesbatzaren emanaldia ere egitarauko parte da, eta baita hilaren 27ko hitzaldia ere: *Feminismoa eta euskara bidaide* izenburupean jardungo dute Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek. *Izan al zaitezke feminista euskaltzale izan gabe? Eta euskaltzale feminista izan gabe?* galderei erantzuten saiatuko dira.

'Emakumeen etxea' erakusketa

Martxoaren 8aren bueltako aurtengo egitarauko gauza berezietako bat da 30 emakume artistaren lanekin osatutako erakusketa —ia denak herrian jaiotakoak edo bertan bizi direnak; eta Arrasateko bat eta Eibarko bat—.

Etxebizitza baten itxura hartuko du Aroztegi aretoak, ohiko banaketarekin, eta leku bakoitzean bertan egiten diren lanekin edo jarduerekin zerikusia duten obrak jarriko dituzte: "Sukaldean otorduekin edo ontziak garbitzearekin lotutakoak; logelan, sexualitatearekin, amatasunarekin edo intimitatearekin lotutakoak; bainugelan, higienearekin lotutakoak...", dio erakusketa antolatzeaz arduratu den Martxanterak taldeko Julia Pajaresek. Lan gehienak margolanak eta argazkiak izango dira, baina badira eskulturak eta bideoak ere: "Artisten artean emakume helduak daude, gazteagoak ere bai, eta lanetan eta ikuspegietan aniztasun handia egongo da".

Aipatutako jardunei bezala, emakume artisten lanari ikusgarritasuna ematea ere bada erakusketaren helburua: "Hori oso zaila izaten da askotan, eta are zailagoa landa eremuetan", dio Pajaresek. Erakusketa hurrengo egubakoitzetik —hilak 10— apirilaren 2ra egongo da ikusgai. Inaugurazio egunean ekitaldi berezi bat, "sorpresa bat", izango dela iragarri dute Martxanterek, 19:00etan hasita.



Garuña ixtea eskatzen duen Irabaziren mozioa, aurrera

Aho batez onartu du udalbatzak, eta konpromisoa hartu du Udalak energia egokiagoa nola erabili aztertzeko

J.I. BERGARA

Zentralaren itxiera eta "energia nuklearra apurka-apurka alde batera uztea" eskatzen du Irabaziren mozioak, eta Udalari eskatzen dio bere energia hornidurari dagokionez urratsak egiteko. Aiert Lizarralde Bartzelona jarri zuen eredu: han bezala, hornidura elektrikoa sortaka kontratatzea proposatzen zuen, energia berdea darabilten enpresa merkaturatzaile txikien alde eginez honela. Hor, dena den, alkateak aipatzen zuen Aldundiaren kontratazio mahaia- ren bidez erosten dutela gaur egun energia, eta hori zailtasun bat izan daitekeela, baina konpromisoa hartu zuen Udalak darabilen energiaren jatorria "hobe" izateko lan egiteko, eta Lizarralde pozik agertu zen.

Bigarren mozioa, EH Bilduk aurkeztutakoa, izan zen Espai-

niako Gobernuari eskatzeko Picassoren *Gernika* koadroa Gernikara eroan dezatela, Gernikan egon dadin bere etxea, nolabait. EAJ ere alde agertu zen, eta Irabazi abstenitu egin zen, arrazoituz ez dutela garbi, malagarrek ere eskatu ahalko luketelako hara eramatea artista bertakoa zelako, edo Alderdi Komunistak bere egoitzara, bertako kidea izatearren Picasso.

Azken mozioa erraustegiari buruzkoa izan zen, hura ere EH Bilduk aurkeztutakoa, Udalak Diputazioari zenbait galderaren erantzuna eskatzea proposatuz; adibidez, "zenbat igo den edo igoko den Aldundiaren zorpetze maila erraustegia dela-eta GHKK esleitu behar duen zor berriaren ondorioz". Gobernua kontra agertu zen, argudiatuz Batzar Nagusietan egin ditzaketela, zuzenean, galdera horiek.

CLINICA DENTAL

BERGARA

- 20 urte baino gehiagoko esperientzia implantologian
- Hazkunde-plaketetan aberatsa den plasma
- Doako kontsulta eta aurrekontua

DKV · MAPFRE · IMQ/ADESLAS · SANTA LUCIA · EROSKI · OCASO · PREVISORA
BILBAINA · ORBITA · ACUNSA · AEGON

Bidekurutzeta, 36 – BERGARA • Tel.: 943 76 05 77
www.clinicadentalbergara.es



RPS: 207/12



NIRE USTEZ

AITZIBER
PLAZAOLA

Sara Izarrekin, etxera!

Aste honetan bete ditu Izarrek hiru urte. Edozein haurrentzat ospatzeko eguna litzake hau, baina, Izarren kasuan, amagandik bereizteko mehatxua da. Izar ez da edozein haur, bere aitak eraso egin zion, eta bere ama espetxean dago. Espetxe politikaren arauen eta erabakien menpe dago bere bizitza.

Espetxean, haurra, hiru urte izan arte egon ahal da amarekin; baina, adin hau izatean, haurra eta ama banandu egiten dituzte. Edozein egoeratan oso krudela den erabaki hau, Izarren kasuan are eta krudelagoa bihurtzen da, bere bizitzan pairatutako egoerari aurre egiteko ezinbesteko zutabea den amagandik bereizi nahi dute-eta.

Lerro hauek idatzi ditudanean, Izarrek oraindik ez ditu hiru urte bete, eta amaren alboan dago. Baina, lerro hauek irakurtzen ari zaren honetan, Izarrek hiru urte izango ditu. Elkarrekin jarraitzen ez badute, eta mehatxua gauzatu bada, gu guztion lana eta erantzukizuna izango da Izar bere amarekin ahalik eta azkarren elkartzea.

San Joxepe: batzar orokorra, hitzaldiak eta sagardotegia

Bazkideen batzar orokorra martxoaren 23an izango da, 16:00etan lehenengo deialdian eta 17:00etan bigarrenetan. Gaurtik hilaren 13ra artekoa da zuzendaritzarako hautagaitzak aurkezteko epea.

Bestetik, martxoaren 15ean, eguaztena, irteera egingo dute sagardotegira. 09:00etan aterako dira autobusez, eta Ordiziako azoka bisitatuko dute aurrena;

Erramu Zapatuko txosnak eta Jardunen txorimalo erakusketa

Bi txosna izango dira Erramu Zapatuan, Euskal Labeldun produktu batena eta taloena. Bergarako irabazi asmorik gabeko elkarteek martxoaren 17ko 13:00ak arte aurkez ditzakete horiek ustiatzeko eskaerak. Bestalde, dagoeneko eman daiteke izena txorimalo erakusketarako, Jardunen. Zozketak, *merendola* eta 30 euroko saria izango dira.

2016an 13.470 euro banatu zituen Udalak bonuetan

"Herriko ekonomia eta merkataritza txikia sustatzeko", Udalak bonuetan banatzen ditu lehiaketetako sariak: herriko komertzio eta saltokietan erabil daitezke, "modu honetan, dirua Bergaran bertan geldituz". Ekonomia Sustapen, Turismo eta Enplegu batzordeko buru Sabino Azkaratek iragarri du berdin jokatu du dutela 2017an.

Lekua dago langabe eta langileentzako ikastaroetan

Goiena komunitatea

Miguel Altuna / BERGARA

Hobetuzen bidez, langile nahiz langabeei zuzenduriko zazpi ikastaro hasiko dira martxo hasieran Miguel Altunan. Ikastaro hauek guztiz subentziona-tuak dira eta oraindik ere aukera dago izena emateko. 10 ordutik 90 ordura arteko iraupena dute ikastarook.

Donostian denbora libreza izango dute gero, eta bazkaria ondoren Aginagako izen bereko sagardotegian. Etxeratu aurretik, geldialdia egingo dute Zaurutzen. Hurrengo eguna arteko epea dago izena emateko.

Azkenik, gaur bertan *nordic walking* deritzonari buruzko hitzaldia izango da 19:00etan, Xabier Madinaren eskutik. Asatelehenetan, berriz, memoriari buruzko tailerra egingo dute, 15:45ean, Sara Alava Agirreurretak gidatuta.



Aranzadi ikastolakoak. ANDONI GOITI



Aratusteetako kontzertua, Bergara-Cai, non stop ikuskizuna. IMANOL SORIANO



Kudrilla mozzorrotuta, zapatuan. IMANOL SORIANO



San Martineko ikasleak. SAN MARTIN AGIRRE



Mariaren Lagundikoak. MAITE TXINTXURRETA



Neskatala kudrilla, Aratuste-martitzenean. AITOR AGIRIANO

Cadizera joan beharrik gabe, bertan ederki

Andaluziako hirian euren ikuskizuna ikusi nahi zutela-eta, harako bidaia irudikatu dute aurtan Aratusteetako kontzertuan; bikaina izan zen, beste behin. Baina irudimenetik errealitatera, heritik irten gabe izan da gozatzerik mozzorroa jantzita

Julen Iriondo BERGARA

Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundiko ikasleen kalejirek iragarri zuten Aratuste asteburaren etorrera, euskal Inauterietako pertsonai eta kalderero legez aurrenekoak, askotariko mozzorroekin bigarrenak.

Eta gauean Aratuste-kontzertu arrakastatsua. Cadizerako bidaia hasi besterik ez eta Ar-

labanen matxura; mendizale batzuekin topo egin, eta Pol-Pol Mendi Taldearen 75. urteurrenari keinu eginaz, haien ereserkia bandak; autobusa konpontzeko Legutioko Anselma mekanikariari deitu, eta *Simply the Best* kantaren doinuak dantzatzu hura, bere mekanikari taldeak lagunduta. Eta horrela, zenbat abentura kilometroz ki-

lometro Cadizera iritsi arte! Bukaerako agurretan parte-hartzaile guztiek txalo zaparrada jaso zuten frontoia bete zuten ikusleen partetik.

Zapatuan adin guztietako herriarrek eta martitzenean gaztetxoek, mozzorroz jantzi zuten herria, eta San Martin eskolakoek ere azken egunean egin zuten euren jaia, eskolan, euriagatik.

Finalerako pasearen bila doaz Murua eta Gartzia

Domeka arratsaldean bi partidu jokatu dituzte Udal Pilotalekuan: Udaberri txapelketako partidu bat (Gazteleku-Bergara) eta Euskal Ligako finalerdia. Bigarren horretan, Bergara Kirol Elkarteko Murua eta Gartzia Adiskideren aurka jokatu dute

Maite Txintxurreta BERGARA

Domeka honetan, martxoak 5, bi pilota partidu izango dira Bergarako Udal Pilotalekuan, 17:00etan hasita.

Lehendabizi, nagusi mailakoen Udaberri txapelketako partidua jokatu dute, eskuz binakakoan: Gazteleku-Bergara. Aitor Bergarak eta Harri Oterminek osatutako bikoteak jokatu beharko luke, baina, azken hori gaixo dagoenez, aurrerago erabakiko dute berak edo Unai Zubizarretak jokatu duen azkenean.

Euskal Ligako finalaurrekoa

Bigarren partidua, aldiz, gazte mailako Euskal Ligako finalerdia izango da. Bertan, Bergara Kirol Elkarteko ordezkari diren Murua eta Gartzia Adiskide taldeko bikotearen kontra jokatu dute, eta finalera igarotzeko txartela eskuratzen ahaleginduko dira.

Bestalde, pilota partidua egubakoitzetan jokatu ohi dituzten arren, Ander Murua Bergaran jokatzeko duen arrasatearra eskuetatik "larri" dabilela azaldu du Reyes Azkoitia entrenatzaileak. Hori dela eta, ahalik eta ondoen osatu dadin denbora luzeagoa izate aldera, domekan jarri dituzte aste honetako norgehiagokak.



Murua-Gartzia bikoteak Euskal Ligako finalerdia jokatu du domekan. MIREIA BIKUÑA

Lau t'erdikoa

Martitzenean, martxoak 7, Soralue lau t'erdiko txapelketako beste bi partidu jokatu dituzte Udal Pilotalekuan (19:30), bigarren finalerdiak, hain zuzen.

Promesen partiduan, Elola eta Alberdi izango dira aurrez aurre eta nagusi mailan, berriz, Santxo eta Etxeberria.

Lehen finalerdian, promesetan Egiurennek eta nagusietan Peru Labakak lortu zuten finalerako pasea. Lehen partiduan Aranguren partez jokatu zuen Egiurennek 22-15 menderatu zuen

Picote -min hartutako Lerenaren partez aritu zen hura-, "partidu ona" jokatu, Reyes Azkoitiaren esanetan. Bigarren norgehiagokan, Peru Labakak 22-16 irabazi zion Eneko Labakari. Sakez egindako tanto asko izan ziren (lehenak 7 eta bigarrenak 6), eta Eneko Labakak egindako zapi hutsegiteek lagundu zioten Peruri irabazten, "ikusteko polita" izan zen partiduan.

Hala, lehen finalistak erabakita daude, eta martitzenean irabazten duten jokatu dute finala martxoaren 14an.

Puntu berdinketa bere alde apurtzen saiatuko da BKE

Eskubaloiko talde nagusiak Urola Laztimendiren aurka jokatu du zapatu arratsaldean Zumarragan

M.T. BERGARA

Eskubaloiko Soralue BKEren ligako bigarren itzulia ez da nahi bezain ona izaten ari mahoneroentzat. Izan ere, orain arte lau partidu galdu dituzte, eta bi irabazi. Gaur egun, bederatzi garren postuan daude -hamabi talde daude-.

Dena den, zapatuan balantza hori orekatzeko aukera izango dute.

Asteburuan, kanpoan

Joan den asteburuan Aratus-teengatik atsedenaldea izan ostean, jardunaldi honetan kanxan bueltan izango dira eskubaloiko mahoneroak. Kanpoan jokatu du Soralue BKEk. Urola Laztimendiren kontra, hain zuzen ere. Zapatuan, 18:00etan, Zumarragako Ispilla kiroldegian izango da neurketa.



Bergararren jaurtiketa. GOIENA

Hain justu ere, bergararrak baino postu bat beherago dago Urola, baina puntu kopuru bera dute bi taldeek. Joaneko partiduan 25-23 irabazi zuten bergarrek, eta oraingoan ere horretan ahaleginduko dira.

Idiazabalen bisita jasoko dute bihar mahoneroek

Futboleko gizonezkoen lehen taldeak, Erregional Preferente-ko bigarren multzoko lider jarraitzen duenak, Iduzabalen kontra jokatu du bihar, zapatua, etxean (16:30). Goierriarrak 12. postuan daude taulan, eta azkeneko hiru neurketak galdu dituzte. Bergarrek artean ez dute partidurik galdu Agorrosin, zaleen aurrean.

Begararren arteko saskibaloia derbia kadete mailan

Partidu berezia izango da domeka arratsaldean (16:00) Labe-garaietako kiroldegian. Izan ere, txapelketan Bergara Kirol Elkarteko bi taldek dihardute, eta oraingoan elkarren aurka jokatzea dagokie. Soralue BKE-B taldeak jokatu du etxeko moduan. B taldea liderra da egun, eta A taldea, berriz, taulako laugarren postuan dago.

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

"Aztarnaren ezaugarria asko interesatzen zait"

AMAIA SANTAMARIA ARTISTA

Artista bergararraren 'Berrinterpretazioak' erakusketa domekara arte bisitatu daiteke Aroztegi aretoan. Emaizaz gain, sormen prozesua bera ere protagonista da mostran

A.T./M.T. BERGARA

Amaia Santamaria bergararraren *Berrinterpretazioak* erakusketa bisitatzeko aukera martxoaren 5era arte izango da; domekara arte, beraz.

Zelako erakusketa da Aroztegin ikusgai jarri duzuna?

Irudiak oihartzun baten modura azaltzen dira, iraganaren eta orainaldiaren arteko elkarriketa bat mantentzen dute. Proiektzioek eta irudiek osatzen dute erakusketa. Irudi horiek modu ezberdinetan inprimatuta daude, euskarri ezberdinetan, modu ezberdinetan muntatuta...

Zelakoa izan da sormen prozesua?

Kalean gorputzen eta gorputz zatien itzalak grabatzen nituen. Hori izango litzateke nire material primarioa. Gero, hori berriro ere beste toki batean proiektatu eta ilunpeetan berriro ere filmatu eta argazkira ere ekarri dut. Orduan, beste espazio abstraktu bat sortzen da, eta bigarren fase horretan, niretako, pisua hartzen zuen hasierako material horrek. Analogikoki editatzen dut materiala, nire mugimenduen bitartez zein bertan topatzen ditudan material, testura eta egituren bitartez.

Zure muntaien erregistroak ere jarri dituzu ikusgai.

Bai. Hasieran, erregistro moduan margotzen nituen eskemak dira, nik jakiteko muntaiak nola egingen nituen. Geroago, pixkanaka, eskemok irudi moduan tratatzen hasi nintzen. Horien gainean itzal bat ezarri dut, irudikatuz atzean ni nagoela.

Prozesua nolabait deskribatzen duten piezak ere badaude.

Hala da. *Transfer* batzuen bidez irudiaren aztarna laga nahi izan dut. Irudikatu ditut nire posizioak bideoa sortzen nuen bitartean, gorputz-figura bidez, eta ondoan, puntuez eta lerroez irudikatuta, prozesuan osatu dudana ibilbidea. Aztarnaren ezaugarri hori interesatzen zait;



Santamaria erakusketako pieza bat eskuan duela. AMAIA TXINTXURRETA

"HERRITARREI ESKATUKO NIEKE ERAKUSKETA BISITATZEAN LANKETA BAT EGIN DEZATEN"

erakusketaren izena *Berrinterpretazioak* da, eta aipamena egiten dio hasierako materialek abiatuta egindako aldaketek sortzen duten kate amaigabeari. **Erakusketaren beraren muntaketa nolakoa izan da?**

Muntatzean lanean erabili dudana logika mantendu nahi izan dut. Filmaketaren zein erreproduktzioaren bitartez irudiak definitzea galtzen eta beste propietate batzuk gainjartzen doaz. Muntaketan gainjartze horri pisua eman nahi izan diot.

Ze ezaugarri dute erretratuek?

Erretratu unibertsalak dira; ez da inor konkretua agertzen, eta leku zehatzik ere ez da bereizten. Malguak dira, hau da, edozein identifikatu daiteke haiekin.

Bisitaria erakusketaren parte izan dadin nahi izan duzu.

Bai. Esaterako, ikuslea pasatzen den toki batzuetan bere itzala

proiektatuta gelditzen da nik aurkeztu ditudan erretratuen gainean. Bestalde, ispiluan ikuslearen irudia islatzen denean, orainaldia irudikatzen da, argazkiek eta irudiek iragana irudikatzen duten moduan.

Nolako harrera izaten ari da?

Egia esan, aretoko arduradunek aipatu didate jende gehiegi ere ez dabilela. Izan ere, erakusketa konbentzionalagoak egon ohi dira hemen, eta, esaterako, Bergarako argazkiez osatutakoek arrakasta handia izaten dutela. Jendea ohituta dago erraz identifikatzeko elementuak ikustera, eta erakusketa honek lanketa berezi bat eskatzen du. Hala ere, komentatu didate gazte dezente dabilela erakusketa bisitatzen.

Nolako jarrera izan behar lukete zure erakusketa bisitatzen dutenek?

Ikuspegi zabala izan behar da, eta eskatuko nieke tartetxo bat har dezaten erakusketa bisitatzeko, eta lanketa bat egin dezaten: piezek elkarren artean duten erlazioaz hausnartu, buroari buelta batzuk eman... Askorentzat gauza berria izan daiteke, bai, baina hor kanpoan gertatzen ari denaren adibide txiki bat ere bada.



MAITE TXINTXURRETA

'Alizia' musikalerako entzunaldiak

Goiena komunitatea / Bergarako Musika Eskola / BERGARA

Azaroan estreinatuko den musikalki berrirako lanean dabil Bergarako Musika Eskola. *Alizia* izango du izena, eta *Alizia herrialde miresgarrian* ipuinean oinarrituta dago, moldaketak izango dituen arren. Aste honetan protagonista paperak banatzeko *casting*-ak egin dituzte 25 gaztetxok.

'Micro kaos' antzerki ikuskizuna gaur eta bihar gaztetxean

Zaragozako Pezkao taldeak *Micro kaos* ikuskizuna taularatuko du asteburuan kartzela zaharrean. Hain zuzen ere, gaur (egubakoitza) eta bihar (zapatua) emanaldi bana izango da –ikuskitun ezberdin bat egun bakoitzean, launa esketxez osatuta–. Bi egunetan ere, 22:30ean izango da saioa eta sarreraren prezioa 3 euro da.

Eskualdeko bertsolarien saioa hilaren 11n Artatsen

Hurrengo zapatuan, martxoak 11, Herriarteko Txapelketaren baitan ordezkari debagoiendarraren arteko saio bat jokatu dute Artatse elkartearen. Bertso afaria izango da lehenik (22:30), eta ondoren bertso saioa –ez dago afarira joan beharrik saioa ikusteko–. Afarirako txartelak Pol-Pol eta Arrano tabernetan daude salgai 12 eurotan.

Helduen antzerki eskolan bigarren taldea sortuko dute

Otsail hasieran jarri zuten martxan helduendako antzerki tailerra Bergaran, Jardun Euskara Elkartearen eskutik. Bada, arrakasta ikusita, bigarren taldea bat sortzea pentsatu dute. Talde berria ere astelehenetan elkartuko da, 18:45etik 20:15era arte. Martxoaren 6an hasi eta ekainera arte izango da martxan. Jardunen eman daiteke izena.

Kursaalera joateko autobus zerbitzu berezia izango da

Kursaal eszenaren eskutik, apirilaren 22ko *El lago de los cisnes* ikuskizuna (20:00) eta maiatzaren 29ko Pat Methenyren kontzertua (20:00) ikusteko autobus zerbitzu berezia izango da Bergaratik, doan. 18:35ean aterako da Ibargaraioko geltoki nagusitik, eta izen ematea 943 77 91 59ra deituta edo kultura@bergara.eus-era idatzita egin daiteke.



BERGARAKO ARATUSTEETAKO KONTZERTUA

GOIENA TELEBISTA, 'EMANALDI BEREZIA'

ZAPATUAN, MARTXOAREN 4AN, 21:00ETAN

DOMEKAN, MARTXOAREN 5EAN, 12:00ETAN

goiena[“]
ZU HEMEN ZAUDE

"Trenbide zati ederrena da, zortzi tunel ditu eta"

ENRIQUE DIEZ EUSKAL TRENBIDE SAREAN ADITUA

Vasco-Navarro Trenak egiten zuen ibilbidea egungo belaunaldiek ere ezagutu dezaten gura du Enrique Diezek. Horregatik, 12 ibilbide jaso ditu argazkiz argazki, eta Youtuben zintzilikatu ditu. Horietako bat Antzuolatik igarotzen zen burdinbidearena da

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako trenbidearen ibilbidea –Maltzagatik Zumarragara, 27 kilometro– argazkiz argazki jaso du Enrike Diez arrasatearrak. Bizikletaz eta kamera eskuan egiten ditu ibilbideak. Zergatik Vasco-Navarro Trenaren ibilbidea erretratatu?

Helburua guztiz didaktikoa da. Ez dago jakin-min handirik gai honekiko. Pena da belaunaldi berriek lehengo euskal trenbide sareaz ezer ez jakitea. Eta guztiz desagertu baino lehen jaso gura nituen ibilbideak.

Horren atzean dagoen istorioa jasotzea eta kontatzea duzu gus-tuko.

Bai. Jendearengan mirespena sortzea gura dut. Guztien ondarea da. Babestu beharrekoa. Adineko jendeari oroitzapen oso onak ekartzen dizkie. Haiei galdetzean, berpiztu egiten dira eta aurpegia guztiz aldatzen zaie. Hunkitu egiten dira eta gustura kontatzen dute bizitakoa.

Nolako lana da ibilbidea jasotzea? Luzea da prozesua. Trenbidearen ibilbidea zein zen ikertzen dut. Garaiko argazkiak bilatzen ditut liburueta joz. Argazki panoramikoak bilatzen ditut, hegazkinetik ateratakoak, eta



Enrique Diez, Goienako egoitzan. MAIDAR ARREGI

jatorrizko ibilbidearen ideia bat izaten dut. Toki askotan, baina, oso zaila da burdinbidearen aztarnak bilatzea, estalita eta oso hondatuta baitaude. Errazagoa da bidegorria baldin badago. Hala, ibilbidea ia buruz dakidala bizikleta eta argazki

kamera hartu eta erretratuak ateratzera joaten naiz. Lan handia da.

Eta Antzuolakoa erraza izan da?

Trenbide zati ederrena da, zortzi tunel ditu-eta Antzuolakoak. Berezia ere izan da. Amilletatik Deskargara bidean zegoen tu-



Uzarraga auzoan gertatutako istripua. IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ 'IRINMODU.BLOGSPOT.COM'

Iturriotzen gertatutako tren istripua

1893an Uzarraga auzoan zegoen tren geltokian istripua gertatu zen. Zazpi lagun hil ziren eta 40 zauritu. Bidaia-arten Deustuko alkatea zegoen eta hura ere hil egin zen. Bagoi bat Iturriotz baserriraino heldu zen.

nela egun desagertuta dago; nire ustetan, autobideko lanengatik. Tunelaren sarrera ere ez dago eta zaila izan da ibilbide zehatza jasotzea. Deskargako beste tunel baten sarrera, aldiz, harrobi bateko langile bati esker aurkitu nuen. Aurkikuntza polita izan zen. Iñigo Ramirez de Okarizi eskerrak eman gura dizkiot, oso lagungarria izan zaidalako Irinmodo blogean jasota duena.

Zein trenbide sare jaso dituzu?

Orain dela hiru-lau urte hasi nintzen ibilbideak jasotzen. Errioxako Aro-Ezkarai tartearrekin hasi nintzen. Gero, Nafarroa eta EAEkoekin jarraitu dut. Egin dudana ibilbide luzeena Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen duena da: Plazaolako ibilbidea 84 kilometrokoa. Bidasoakoa, Arrazolakoa Bizkaian, Kastro-

koa... Guztira, 12 ibilbide jaso ditut eta Youtuben zintzilikatuta daude guztiak.

Eta orain buruan zein ibilbide duzu?

Iratiko burdinbidea jaso gurako nuke: Iruñetik Zangozara doana. Zaila izango da, bidegorririk ere ez baitago eginda.

Vasco-Navarro Trenak 50 urte bete-ko dituzte; hemen ere badira aztarnak.

Bai, aurtan beteko ditu 50 urte. Gainera, Debagoienean badira aztarnak: Oñatin Correosko geltokian lokomotora ederra dago, Eskoriatzan eta Arrasaten geltokiak mantendu dira... Esan bezala, Arrasatetik ere pasatzen zen eta zerbait egitea gustatuko litzaidake gure bailaratik pasatzen zen trenbide sarearekin. Egia da saihesbidearekin deseginda dagoela lehengo ibilbidea. Autobideko obrek ere aztarna asko desegin dituzte.

Martxoaren 8a: kirola eta aldarrikapena eskutik

Martxoaren 11n, Olatu Morea eta 'zumba' saioa egingo dute emakumeen eskubideak aldarrikatzeko

M.A. ANTZUOLA

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, aldarrikapena eta kirola izango dira Antzuolan nagusi datorren astean. Hala, Martxoaren 8an, eguaztena, elkarretaratzea egingo dute He-

rriko Plazan arratsaldeko zazpietan. Ondoren, emakumea ardatz izango duten film laburren bilduma izango da, 20:00etan.

Martxoaren 11n, zapatua, kirolaz eta aldarrikapenaz bustiko dira herriko kaleak. Hala, ema-

kumeen eskubideen aldeko lasterketa egingo dute aurtan ere. "Iazko Olatu Moreak harrera oso ona izan zuen. Eta aurtan ere egingo dugu. Oinez edo korrika parte hartu daiteke –4 km korrika edo 2 km oinez–, adin guztietako emakumezko zein gizonezkoak animatu daitezke. 17:00etan plazan elkartuko gara. Globoak banatuko ditugu eta bakoitzak bere globoan nahi duen mezua idazteko aukera izango du", azaldu du Kirol zinegotzi Garazi Larreak.

17:30ean hasiko da Olatu Morea herri lasterketa. Bukaeran, berriz, plazan elkartuko dira herritarrak eta aldarrikapena irakurriko dute udaletxeko balkoitik. Ondoren, herritarrek mezuekin jantzitako globoak aireratu dituzte.

Zapatu goizean, 10:15ean, zumba saioaz gozatzeko aukera izango da pilotalekuan. "Olatu Morearekin bat egiten du aurtan zumba saioaren ekitaldi bereziak eta herritarrei zabaltzea pentsatu dugu", azaldu du Larreak.

Hala, zumba saioan parte hartu gura dutenek izena eman dezakete –azken eguna hilaren 8a da–. Horretarako, zhunbaerronka@gmail.com helbidera mezua bidali beharko da izen-bizenekin eta antzuolarra dela esanez. Ekintza doakoa da. Bestalde, martxoaren 11n eta 12an, Antzuolako emakumea lanean erakusketa bisitatze-ko aukera izango da, Olanan, 18:30etik 20:30etara. Martxoaren 8ko elkarretaratzean, baina, argazki horiek eskainiko dituzte.

Irudimena astindu dute antzuolarrek Aratusteetan

Egubakoitzean hasita, mozorroak izan dira protagonista. Txikienek eskolan hasi zuten festa; domekan, aldiz, herri osoaren txanda izan zen. Aratuste-martitzenean, erretiratuek ohiko mozorro afari-merienda egin zuten Landatxope elkartearen

M.A. ANTZUOLA

Urpekariak, globo bidaiariak, errugbi jokalaria, sanfermine-tako entzierroko korrikalariak... Umorea eta irudimena izan ziren nagusi Antzuolan domekan. Kaleak kolorez eta musikaz jantzi ziren. Geroz eta indar handiagoa hartzen ari den festa da Aratuste-domekakoa eta aurten ere horren erakusle izan da herri bazkari jendetsua eta ondoren egindako mozorro festa.

"Emaitzarekin oso pozik gaudе; dena primeran joan zen. Eguraldia lagun izanik, koka-gunea aldatu genuen eta pilotalekuan egin beharrean Zurrategi plazako eguzkipean egin genuen bazkalosteko mozorro festa. Oso saio polita izan zen, giro bikaina egon zen. Herrian mozorrotuta zebilen jende askok, ordea, ez zuen desfilean parte hartu. Beraz, datorren urtera begira, animatuko ditugu herriko beste taldeak ere parte har dezaten. Hala, urte osoa aurretik izango lukete zerbait prestatzeko", kontatu du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

Domeka goiz partean dantzak izan ziren nagusi. 40 lagunek hartu dute aurten parte. Saio nagusian herritarren txaloak jaso zituzten.

Erretiratuek martitzenean

Giro ederra izan zuten Landatxopen martitzenean. "66 lagun batu ginen eta horietatik 15 bat lagun mozorrotu. Oso giro ona izan genuen eta umorea izan zen nagusi", kontatu du Jesus Muruamendiarezek, elkarteko presidentek. 20 litro txokolate prestatu zuten eta mozorro lehia- ketako irabazleak Anparito Arregi eta Maria Luisa Jauregi izan ziren. Bikoteak baserritarren lanaren gaineko antzerkia egin zuten propio ekarritako ortuko produktuekin. Bigarren saria Karmen Egañak eroandako Karibeko giroarendako izan zen.



Herri bazkari jendetsua pilotalekuan. M.T.



Eskolako patioan txokolatea eta torradak, egubakoitzean. MIREIA BIKUÑA



Erretiratuek martitzenean egin zuten mozorro festa. LANDATXOPE



Hartza, tximinoa eta hezitzailea Herriko Plazan, domekan. MAITE TXINTXURRETA



Mozorro festako irabazleek entzierroa irudikatu dute. M.T.



Urpekariak erakustaldia egiten Zurrategi plazan. M.T.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Bi plazako etxebizitza tutelatua aurrerantzean

Ekainean amaitzen da Elgetako eguneko zentroa bere baitan hartzen duen zentro balioanitzaren ustiaketarako indarrean dagoen esleipena. Hala, martxan da berritzeko prozesu irekia. Udalbatzak aho batez onartu du baldintza oinarrien egokitzapena

Larraitx Zeberio ELGETA

Elgetako udalbatzak martitzenean egin zuen otsaileko ohiko osoko bilkura. Udal ordezkariak hartutako erabakien artean, herriko eguneko zentroa bere baitan hartzen duen zentro balioanitzarekin lotutakoak daude. Udal idazkari Gotzon Goikoe-txeak azaldu zuen ekainean amaitzen dela indarrean dagoen ustiaketa esleipena, Eulen enpresarekin hitzartutakoa. Hala, berritu egin beharra dago. "Esleipena berritzeko prozedura hasi da, eta prozesu irekia da. Gipuzkoako buletinera bidaliko dugu deialdia, nahi duenak eskaintza aurkezteko", esan zuen udal idazkariak. "Edozeinek har dezake parte, betiere, bere gaitasuna zehazten eta egiaztatzen badu". Esleipen berria egiteko baldintza orrietan bi aldaketa egin ditu Udalak. "Agertzen zen tutelatutako etxebizitzan hiru plaza genituela, eta egia da hasiera batean hiru plaza edukitzeko diseinatu zela, baina osasun arlotik jasotako betebeharrak direla-eta getetako bat biltegi moduan erabiltzera derrigortuta egon gara, eta, horren eraginez, bi plaza dira benetan eskaintzeko dauzkagunak. Horrela jarriko dugu esleipenerako oinarrietan", azaldu zuen Iraitx Lazkano alkateak.

Bigarren aldaketa euskararen erabilerarekin lotutakoa da. "Esleipenerako oinarrietan hutsune bat dagoela ikusi genuen. Proposatzen dugu idatzita jasotzea zerbitzua emateko orduan euskara lehenetsiko dela ahoz zein idatziz, erabiltzailearen hizkuntza eskubideak errespetatuta, betiere (...) Barne eta komunikazio atalean, berriz, gehituko dugu edozein jardueran egiten denean ahozko nahiz idatzizko komunikazioan euskara erabiliko dela". Udalbatzak aho batez onartu zuen esleipenerako oinarrietan bi aldaketok egitea.



Elgetako udalbatza martitzeneko osoko bilkuran. L.Z.

UDALA ATXIKI EGIN DA HERRIEN ARTEKO PARTAIDETZARAKO ALDUNDIAK OSATU GURA DUEN SARERA

Partaidetzarako erakundea

Udalbatzaren bigarren erabakia izan zen Gipuzkoako herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitzea. "Foru Aldundiak prozesu bat egin du partaidetzaren alorrean, eta ideia da herrien arteko partaidetza bultzatzeko sare bat osatzea", azaldu zuen Lazkanok. "Foro horretan parte hartzeko ezinbestekoa da aurrez atxikipena adieraztea". Udalbatzak aho batez eman dio onespina egitasmoari. Iraitx Lazkano alkateak, dena den programa horri lotutako baliabide ekonomikoekiko gogoeta egin zuen. "Zeharo interesgarria iruditzen zait, baina badauzkat nire zalantzak uste dudalako parte hartzeko lerro horiek joan behar dutela oso lotuta egokitzen zaizkien diru kopuruetara. Parte hartzea diru gutxiarekin egitea nekeza da, pro-

zesu luzeak eta garestiak izaten direlako. Diru-lerroak murriztuz espazio horiek hankamotz gelditzeko arriskua ikusten dut".

Otsailaren 18ko gertaera

Galderen txandan, Gu Geu Elgetako ordezkari Mikel Larreak galdetu zuen Udalak zer-nolako jarraipena egin dion otsailaren 18an kafe antzoki pareko semaforoan gertatutakoari. Alkateak erantzun zion Udala kaltetuekin, eguneko antolatzaileekin eta kafe antzokiko arduradunarekin elkartu dela. "Kaltetuek beraien ondoeza transmititu digute, normalean den moduan, eta salaketa ipinita dagoela. Bagabiltza jarraipena egiten (...) Antolatzaileekin ere elkartu gara. Gerora ere adierazi dute ez dutela gertaera horrekin inongo zerikusirik. Spaloitik ere berdina adierazi dute". Udala Ertzaintzarekin harremanetan dela esan du alkateak, baina oraingoz ez dagoela bestelako informaziorik; "Ez nor izan den ez zigorra zein izan daitekeen". Udal gobernuak argi duena da "eraso larria" izan dela, eta ez dagokiola Udalari beste batzuetan egin izan den moduan zigor bat ipintzea.

Jokoak eta elkarretaratzea Martxoaren 8a aldarrikatzeko

Herri Eskolako haurrek ekintza bereziak egingo dituzte eta Udalak elkarretaratzea deitu du 19:00etarako

L.Z. ELGETA

Eguaztenerako -Martxoak 8-, Emakumeen Eguna aldarrikatzeko, ekintzak iragarri dituzte herriko hainbat eragilek.

Herri Eskolako zuzendaritzak jakinarazi du gela guztietako neska-mutikoekin landuko dutela gaia. Ipuinak edo pelikulak erabiliko dituzte ikasleen artean gaiaren inguruko gogoeta pizteko. Horrekin batera, ikasle bakoitzak kolore moreko lore bat egingo du berak aukeraturako emakume bati opari egiteko. 12:15ean, berriz, Mikel Mar-

kezen *Konplize ditut* abestia kantatu eta talde argazkia aterako dute eskolan.

Arratsaldeko ekintzak

Udalak elkarretaratze isila deitu du 19:00etarako. Aurretik, 17:30ean, *Altzorraren bila* jolasa egingo dute, non parte hartzaileek esaldi zatiak aurkitu beharko dituzten. Esaldi zati horiekin esaldi osoak egin beharko dituzte, gero elkarretaratzeko pankartan ipintzeko. 18:30ean, bestalde, txokolate-jana eskainiko du Udalak plazan.

"Gauzak irizpide apur batekin egiteko erabaki nuen formatzea"

ITSASO IRAZABAL ARTZAINA

Arantzazuko artzain eskolan jaso berri du diploma

L.Z. ELGETA

Zazpi urte dira Itsaso Irazabal elgetarra Elgoibarko Mausitxa baserrian bizi dela. Arantzazuko artzain eskolan sei hilabete-ko ikastaroa egin ondoren jaso ditu artzain makila eta diploma. **Nondik nora etorri zaizu artzain ikasketak egiteko beharra?**

Gaztak egiten ditugu Mausitxan, baina kalekoa naiz ni, eta, orain zazpi urte etorri arren, gure hiru umeekin egon naiz denbora honetan. Erabaki nuenean baserriko lanetan hastera, zerbait gehiago jakin beharko nuela iruditu zitzaidan; izan ere, irizpide apur batekin egin behar dira gauzak.

Zer ikasi duzu sei hilabeteotan Arantzazuko artzain eskolan?

Denetik apur bat. Ardien maneia, belardiak nola zaindu eta mantendu, jatekoaren errazionamendua...

Mausitxan ezagutzen dute ofizioa. Bat etorri dira artzain eskolatik zuk eramandako ikasgaiekin?

Batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Azkenean, leku bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta bere egiteko erak.

Zeintzuk dira sasoi honetan baserrian dituzuen zereginak?



Itsaso Irazabal. MAUSITXA BASERRIA

Orain hasi dira bigarren taldeko arkazteak edo urteko bildotsak umeak egiten. Erditzeetan lagundu behar da, aurreko txandako ardiak jetzi, gaztak egin eta saldu... Laster, gainera, bisita gidatuak eskaintzen hasiko gara.

Asko zarete Mausitxan baserriko lanetarako?

Bost lagun: senarra, senarraren gurasoak, langile bat eta ni.

Mausitxa baserriko gaztak izen ona du. Gustuko duzu ofizio berria?

Ezagunak gara, bai, inguru honetan. Eta bai, gustatzen zait ofizioa. Eskerrak, gainera!

Trebatzen belarri txikiei kili-kili egiten jarraitzeko

Azken urteetan, urtean behin antolatzen dute kontatzearen gaineko tailerra Elgetako liburutegian. Eneko Haritza hondarribiarrarekin egin dute azkena. Sei orduko tailerra izan da, eta eguazteneko saioarekin eman zioten amaiera

L.Z. ELGETA

"Gizakiok hiru begi ditugu: bi kanpoan eta bat barruan. Kanpoak itxiko ditugu, ea barrukoarekin zer ikusten dugu". Hainbat ariketa proposatu ditu Eneko Haritza ipuin kontalaria Elgetan asteotan egindako kontalaritza tailerrean, eta gako ugari eskaini dizkie parte hartzaileei. Esanguratsuenetako bat, kontatu beharreko ipuina ahalik eta xehetasun gehiagorekin irudikatzea. Hau da, irudiekin funtzionatzea.

Ez da udal liburutegiak kontalaritzaren inguruan antolatzen duen lehen tailerra. Virginia Imaz eta Bego Alabazan ere egondakoak dira. "Tailerrak antolatzearen arrazoi nagusienetakoa kontalari boluntario taldearen izatea da. Ipuinen Ordua egitasmoak jarraitu duen ibilbidea zoragarria da guretzat. Elgeta bezalako herri txiki batean irailetik ekainera bitartean hamahiru edo hamalau ipuin saio antolatzea boluntarioak izanik kontalari itzela da", adierazi du udal liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Hamabi boluntario

Kontalaritza saioan bospasei lagunek hartu dute parte. "Hamabi boluntarioko zerrenda dugu. Dena den, maiztasun desberdinarekin animatzen dira saioa egitera; batzuk sarriago eta beste batzuk noizbehinka. Haurren interesa, gogoa eta parte hartzea handia da eta boluntarioen jarraikortasuna eta kopurua ere bai", esan du Ezpeletak.

2014ko otsaila ezkerro, 40 ipuin saiotik gora egin dituzte liburutegian eta batez beste 35 umek hartu dute parte. Azkenaldian, umeak ere animatu dira ipuinak kontatzera. "Sei neskatilako talde batek erritmoa hartu du eta beti daude saio berriak antolatzeko prest. Umeek entzuteko eta entzunak izateko nahia dute".



Eneko Haritza tailerreko parte hartzaile talde batekin lanean. L.Z.

Tailerrak emandakoaren balorazioa



ENEKO HARITZA
IPUIN KONTALARIA

"Harrituta nago martxan dagoen egitasmoarekin"

"Tailerrean landu duguna da zein den egin beharreko lanketa ipuin bat aukeratzeko dugunetik kontatzen dugunera arte. Komeni izaten da zenbait gauza kontuan hartzea: ipuinaren aukeraketa ondo egin behar da, egitura ulertu egin behar da, irudiz eta hitzez jantzi behar dugu... eta garrantzitsua da erabakitzea ahotsarekin eta gorputzarekin nola jokatu. Oso gustura egon naiz Elgetan, eta harrituta gelditu naiz martxan duten egitasmoarekin. Ikusten da garrantzia ematen diotela".



GEAXI EZPELETA
LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

"Gure jarduna aberasteko aukera izan dugu"

"Oso gustura aritu gara tailer guztietan. Izan ere, aurrekoetan emakumeak izan ditugu, bata bailarakoa eta bestea bizkaitarra. Oraingoan, berriz, Eneko Haritzarengana jo dugu, askotariko ikuspegiak jasotzea interesgarria izango delakoan. Helburuak bete ditugula uste dut. Alde batetik, horren ohikoa izan den ahozkotasuna indartzea eta horretarako tresnak eskaintzea, eta, bestetik, Elgetan ditugun kontalari boluntarioei jarduna aberasteko aukera ematea".



IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

Umorea eta kolorea Inauterietan

Herri Eskolako neska-mutikoen moztorro kalejirak girotu zituen, lehenengo, Elgetako Inauteriak barikuan. Euri langarra izan zuten Mendizaleen Plazan egindako dantza emanaldirako, baina umoretsu aritu ziren eta frontoian zein Spaloia kafe antzokian jarraitu zuen ospakizunak. Apurka-apurka Elgetako gainerako herritarrek gehitzen joan ziren Inauteri festara.

Bihar DJ gau berezia, doan, Spaloia kafe antzokian

Bost orduko DJ gaua iragarri dute biharko, zapatua, Spaloia kafe antzokiko arduradunek. 22:59an emango diote hasiera musika jaialdi bereziari eta 04:00ak arte iraungo du. Zornotzako Alex TC eta Ondarroako Koldo Loira eta Xuban Laiño izango dira musika jartzaileak.

Bstetik, bertso afaria egingo dute Spaloian hilaren 10ean. Amets Arzallus, Igor Elortza eta Unai Iturriaga ariko dira bertsoan. Menua da zizka-mizkak, entsalada epela, oilaskoa etxeko saltsan, banilla-izozkia eta kafea. Txartelak salgai daude hilaren 7ra bitartean ticketea.com atarian 18 eurotan —on line gastuekin 1,80 euro gehiago—.

OHARRAK

Ibiltarien jaia

Astebetez jarraituko du zabalik hilaren 12an Elgetan egitekoa den Ibiltarien Jaiko mendi ibilaldian zein bazkarian izena emateko epeak. Interesatuak Elgetako udaletxean jasoko dituzte argibide gehiago.

Erretiratuen batzarra

Erretiratuen Xalbadorpe elkarteak kideek urteko batzar orokorra deitu dute barikurako, hilak 10, 17:30ean, Ozkarbi elkartearen.

Korrika batzordea

Korrikaren ingurukoak prestatzeko batzorde irekia astelehenean, hilak 6, udaletxean 19:00etan.



Juan Guridi, Garibaiko auzo alkatea, eta Mikel Biain, Oñatiko alkatea, Garibaiko biribilgunea egin gura duten tokian. O.E.

Garibaiko eta Goribarko biribilguneen eskaera

Errepide tarte horretan dagoen trafiko astuna arintzeko, istripu arriskuak ekiditeko eta segurtasuna bermatzeko irtenbidea emateko eskatu dio Oñatiko Udalak Foru Aldundiari. Biribilguneen proiektua berreskuratzeko eperik, baina, ez dute zehaztu.

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko sarreran, Garibaitik, egunero egoten den trafiko astuna pixka bat moteltzeko, arriskuak ekiditeko eta segurtasuna bermatzeko helburuarekin, errepide tarte horri irtenbide bat emateko eskatu dio Oñatiko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretakoa Sailari. "Otsailaren 2an egin genuen bilera eta Udaleko eta Aldundiko ordezkariekin batera Ulma enpresako zuzendaria eta presidentea ere egon ziren. Baita LKSkok ordezkariak ere. Eta bilera horretan eskatu genuen arazo honi irtenbidea emango dion proiektu bat egitea", azaldu du Mikel Biain alkateak.

Irtenbide hori izan daiteke bi biribilgune egitea errepide zuzen horretan: bata Garibain (Ulma eraikuntzak enpresaren parean) eta bestea Goribarren (Urbieta baserri ondoan). "Biribilgunean jartzeko aukera aztertu dute dagoeneko eta proiektua lantzen

hasita ere badaude, baina oraindik ez da zehaztu ez eperik ez aurrekonturik. Gure asmoa, hala ere, 2018ko aurrekontuetan horretarako diru partida bat sartzea izango da", zehaztu du Biainek.

Aurretik ere eskaerak egin dira arazoa konpontzeko, baina egungo egoera beste bat dela dio Biainek, eta iruditzen zaio bereziki orain dela momentua lehengo eskaerarekin jarraitzeko: "Ulma enpresaren Packaging negozioak eraikin berri bat egin du San Pedroko bidegurutzearen parean eta horrek ibilgailu kopurua handitu egingo du. Bestalde, bidegorriaren beste aldean ere badu eraikina jasota Ulmak, eta adostu zen lursail horietan

AUTOBUS GELTOKIAK BERRESKURATZEKO ERE ESKATU DIO, BIDE BATEZ, UDALAK FORU ALDUNDIARI

enpresa handitzean biribilgunea egitea Garibain".

Arriskua

Garibaiko auzotarrek pozik hartu dute biribilguneak egiteko aukera aztertzen duen asmo hau, baina mesfidati ere badaude. "Askotan eskatu dugu zerbait egiteko, sinadurak ere behin baino gehiagotan batu ditugu eta eskaera horiekin entregatu. Seinale gehiago jarri eta bazterrak garbitu dituzte, baina horrek ez du arazoa konpondu. Oraingo bilera eta asmo hau beste pauso bat da, eta pozik gaude, bai, zerbait egin beharra dago eta", dio Garibaiko auzo alkateak, Juan Guridik.

Egunero 10.000 ibilgailu baino gehiago pasatzen dira errepide tarte horretan. Trafiko astunak autobus geltokiak ere ia balio gabetu dituela gehitu du alkateak, eta San Pedroko zein Mieleneko geltokiak berreskuratzeko ere eskatu diote Aldundiari.



Arantzazuko auzo etxean elkartu ziren auzotarrak otsailaren 19an. B.A.

25 urte beteko ditu espetxean Joseba Arregi 'Azpilleta'-k

Harekin auzoan bizi izandako istorioak jasotzen hasi dira auzotarrak, apirilean egingo dioten omenaldirako

O. E. OÑATI

Arantzazu auzoko Azpilleta baserriko Joseba Arregik 25 urte beteko ditu espetxean martxoaren 29an. Urteurren horri lotuta, omenaldia egingo diote apirilaren 1ean Foruen plazan eta auzotarrek ere parte hartu gura dute ekitaldi horretan.

Arregik Arantzazun hango auzotarrekin bizitako istorioak, abenturak, harremanak, auzolanak eta antzerako testigantzak jaso gura dituzte. Eta dagoeneko hasi dira horretan. Arantzazuko hainbat auzotarrek kamera aurrean kontatu dute Arregi nolako umea zen edo gaztetan harekin bizi izandako anekdotak. Otsailaren 19an elkartu ziren auzotarrak Arantzazuko auzo etxean, eta, talde argazkia ateraz gain, testimonioak grabatu zituzten. Han grabatutakoa muntatzen ari dira orain, asmoa guztia ikus-entzunezko baten

jasotzea da eta. Egindako produktu hori apirilaren 1erako egongo da prest. Egun horretan omenaldia egingo diote Arregiri eta ekitaldi horretan erakutsiko dute orain egiten ari diren lana.

780 kilometro

Joseba Arregi Bidarten (Lapurdi) atxilotu zuten 1992an, ETA-ren logistika arduraduna izatea leporatuta. Hamar urteko kondena bete zuten Frantzian eta 2000. urteko azaroaz geroztik Espainiako kartzela ezberdinetan egon da preso. 25 urte guttira. Egun Alacanteko (Villena) espetxean dago, Oñatitik 780 kilometrorra. Martxoan 71 urte beteko ditu. "Lege judiziala aplikatuko baliote, eta ez 7/2003 lege politikoa, 70 urterekin kaleara egongo litzateke", dio Joseba Arregiren bikotekideak, Nekane Basaurik.

Neguko 'outlet'-a egingo du Txandak gaur eta bihar

Neguko arropak prezio berezian aterako dituzte Txandako hainbat komertzio asteburu honetan. Gaur, egubakoitza, egun osoz eta bihar goizean, deskontuekin salduko dituzte neguko produktuak herriko 20 komertzio bakoitzak. Beherapen handiak eskainiko dituzte. Eguraldi ona egiten badu kanpora aterako dituzte eskaintzak.

Zuhaitz landaketa atzeratu egin dute, eguraldiarengatik

Natur Eskolaren ingurumen jardunaldien barruan, zuhaitz azoka egingo dute bihar, zapa-tua, 10:00etatik 14:00etara, Foruen plazan. Mintegi desberdinetako salmenta postuak egongo dira. Domekan, berriz, zuhaitz landaketa egitekoak ziren, baina eguraldi iragarpena dela-eta, ekitaldia atzeratu egin dute, hurrengo domekara.



Iaz ere egin zen emakume artisauen azoka Oñatiko plazan. GOIENA

Emakumeen Egunaren bueltan, ekintza ugari

Gaur hasi eta hilabete osoan zehar izango dira herriko hainbat eragileren artean osatu duten Emakumearen Egunaren inguruan osatutako egitarauan antolatutako ekintzak; bihar emakume artisauen azoka egingo da, Oñatiko plazan, iaz bezala

Miren Arregi OÑATI

Libria izan gura dot, ez balientia leloaren bueltan egingo dira aurten, Oñatin, Emakumeen Eguna dela-eta antolatu diren ekintzak. Hain zuzen ere, lelo hori bera erabili zen azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunean, eta Gorritxitxiko tunelean mezu hori daraman murala margotu zen –gero, erretzen saiatu ziren–. Bada, orain, mezu hori berreskuratzea erabaki da. Herriko hainbat eragileren artean osatu da Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruko egitaraua: Hor daude Pototak eta Andraitx, Udala, Kilometroak 2017, MU eta Elkar Hezi.

Martxoaren 8a, ardatz

Gaur emango zaio hasiera egitarauari, *Ecofeminismo: deconstruir para construir alternativas* hitzaldiarekin. Kultur etxean izango da hori, 19:00etan.

Bihar, goizez, iaz egin zen moduan, emakume artisauen azoka

egingo da plazan eta plazan egingo da baita ere, Martxoaren 8an bertan, aldarrikapen elkarretaratzea. 18:30ean izango da hori. Emakumeen Nazioarteko Eguna borobiltzeko, *Kompasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan* zehar deritzon kontakizun musikatua egingo da liburutegian. Garazi Kamio idazleak Susana Cencillo akordeoi jotzailea izango du lagun ikuskizunean. Hain zuzen ere, bost emakumeen bizitzaren eta obraren gaineko hausnarketa bat proposatzen da bertan. Ibilbidea Kuban hasiko da, eta Euskal Herrian bukatu.

Horiek dira asteburu honetan eta Martxoaren 8rako antolatutako daudenak, baina ondorengo

MARTXOAREN 8AN, ALDARRIKAPEN ELKARRETARATZEA EGINGO DA, 18:30EAN, HERRIKO PLAZAN

egunetan ere izango da ekitaldirik: Zineklubak, esaterako, Emakumeen Egunarekin bat eginda, *Bar Bahar* filma proiektatuko du martxoaren 9an. 20:00etan izango da hori, kultur etxean.

Martxoan, Berdintxiketan

Orain arte maiatzean egin izan bada ere, aurten martxora aurreratu da Berdintxiketan lasterketa. Hala, hilaren 10ean egingo da, Mondragon Unibertsitateak eta Kilometroak 2017k antolatuta. Bi deialdi egin dituzte egun horretara begira: lehenengoa 17:00etan izango da, plazan. Umeendako lasterketa hasiko da orduan. Bigarren deialdia 18:30ean da; kasu horretan, 16 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte. Hasiera Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean izango da. Datorren asteko ekitaldiak martxoaren 11n egingo den bazkari feministak borobilduko ditu; Antixena gaztetxean egingo da, 14:00etan.

"Alaia" eta "argia" zela diote Jausoro ezagutu zutenek

Ezkarain hil zen Iker Jausoro joan den domekan, elur-erraketekin zeharkaldia egiten menditik amilduta dene

O.E. OÑATI

Samina eragin du Iker Jausoro oñatiarraren heriotzak herrian. Bereziki, Oñatiko EAJ alderdian, Aloña Mendi kirol elkartean eta kide izan zen herriko beste eragileen artean.

Aloña Mendiko futbol taldean gogoan dute mutikotatik ibili zela bertako taldean. Maila ezberdinetan jokatu zuela, gorenara heldu arte. "Hark sartu zuen, hain zuzen ere, Aloña Mendi hirugarren mailara igo zuen gola, Azkoitiko Lagun Onak taldearen kontra. 92-93 denboraldian izan zen hori. Gogoan dut. Aldagelan ere giroa sortzen zuela akordatzeko naiz", dio Jabi Azpiatzuk, Aloña Mendiko presidenteak.

Politikagintzan ere hutsunea sortu du, Udaleko ardura lanean ere jardun zuen eta. EAJ alderdiko zinegotzi izan zen 1999-2003 agintaldian. "Euskarako batzordeburua izan zen hura. Lan asko eta ona egin zuen. Gogoan dut astean behin egiten genduela bilera taldekideok eta Ikerrek beti egiten zuela ekarpenen bat, gaia edozein izan da ere. Oso argia eta bizia zen. Euskarako gaia ez izan arren,



Iker Jausoro oñatiarra zena. IMH

beti ematen zuen bere iritzia. Oso irizpide, kriterio, ona zuen", adierazi du Anjel Iturbek.

Kale Zaharrekoa izanik, San Migel Txiki jaiak antolatzen ere ibilitakoa zen Iker. Baita GOIENAKo sorreran ere. "Mekalki enpresako Pertsonen arduraduna zen 2000 buelta hartan, eta hautaketa prozesuetan lagundu zigun", ekarri du gogora Goienako presidente ohi Mikel Irizarrek. Goienako langileen kompetentzia profilak egiten lagundu zuen hark.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Gehiegikeriak

Neurritz kanpo egiten ditugun jokabideak ia egunerokoak dira. Hasieran, neurritz kanpo jan-edanak edo zigarro bat erretzeak ez du ematen garrantzia duenik. Jai bat dela eta droga bat edo bestea probatzeak ere ez. Oso barneratuta dago jaietan neurrigabeko portaerak izan behar direla. Neurritz kanpo zerbait egiten ez badu ez duela gozatzen. Gazteek ez ezik nagusiek ere antzera pentsatzen dute eta giro horretan zaila egiten zaio gazte bati joera horren kontra joatea. Baina jaiak izan edo ez izan, inozo hasi eta ohitura ezegokiak normalizat hartzera pauso oso arrunta da. Batzuetan, horietako portaerek menpekotasuna sortzen dute eta ondorioak, zuzen edo zeharka, denok jasaten ditugu. Lehenengo jasaileak menpekotasun horietan eroritakoak dira. Baina arazoei familian eta gizartean ere eragina izaten dute. Errepideetako istripu asko alkoholaren edo beste drogaren baten ondorioa izaten dira. Lan-istripu batzuen eragilea ere gehiegikeria horietan egon daiteke eta ez beti lanerako baliabide eskasietan. Kasu hauek erakusten digute pertsona bakoitzaren askatasunetik at ezin direla portaera batzuk arinki hartu.



Gaztetxo bat Zubikoan egindako igeriketa proban parte hartzen. GOIENA

Igeriketa proba izango da zapatu arratsaldean

Benjamin kategoriako igeriketa proba izango da zapatu arratsaldean Oñatin; Zubikoa kiroldegiko igerilekuan, hain zuzen. Emaizta onak lortu guran, Aloña Mendi taldeko igerilari gazteek gogor ekingo diote oraingo honetan ere

Ane Vitoria OÑATI

Oñatikoez gain, Bergarako, Legazpiko, Azpeitiko, Azkoitiko eta Eibarko parte-hartzaileak izango dira zapatuko proban. 16:30ean hasiko da eta, gutxi gorabehera, bi ordu eta erdi iraungo du. Gipuzkoa mailako txapelketan parte hartu ahal izateko, igerilariak zapatuko proba hori egin beharko dute. Eta bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera aukeratu dira txapelketara joango direnak. Ez dira gutxi parte hartuko duten gazteak, 150-160 inguru izango baitira, eta honako proba hauek egingo dituzte: 2008koek 50 metro bular estiloan, 2007koek 100 metro bular estiloan eta 2005ekoek eta 2006koek 50 metro estilo librean eta 100 metro bular estiloan. Gainera, 2005ekoek 200 metro estilo librean egiteko aukera ere izango dute. Horiez gain, bizkar estiloko 4x50 errelebo proba ere izango da. Proben ordena horietako bakoitzaren

iraupenaren arabera izango da. Antolakuntzari dagokionez, orain arte jarraitutako antzeko dinamikari eutsiko diote eta Aloña Mendiko taldekideak izango dira prestaketa lanak egingo dituztenak; baita kronometratzaileak ere. Hurrengo proba apirilaren leian izango da, Bergaran, benjamin eta alebin kategorietan. Izan ere, tar-te txiki bat eman behar zaie gazteei euren entrenamenduekin jarrai dezaten. Ekitaldia dela eta, zapatuan, herritarrendako, udal igerilekua 13:30ak arte bakarrik egongo da zabalik.

Sei domina

Aitor Tatiegik eta Ainhoa Redinek oso emaitza onak lortu

UDAL IGERILEKUA, HERRITARRENDAKO, 13:30AK ARTE BAKARRIK EGONGO DA ZABALIK

zituzten Azpeitian jokatu zen Gipuzkoako txapelketan. Bien artean sei domina lortu zituzten: Tatiegik urrezko bat eta brontzezko bat eta Redinek urrezko bi, zilarrezko bat eta brontzeko bat. Euren maila berean, gazteen mailan, ari dira lehiatzen Iker Urbina, Maria Murgiondo, Sara Isasisasmendi eta Izaro Altuna. Nagusietan, berriz, Iñaki Guridi, Ander Zarketa, Aitor Diaz, Josu Barrena eta Nerea Diaz.

Euskal Herriko txapelketa

Aurreko astean, Euskal Herriko igeriketa txapelketa izan zen. Eta bertan, oñatiarrek infantil eta absolutu kategorietan parte hartu zuten. Hain zuzen ere, Aloña Mendiko igerilari gazteek lau domina eskuratu zituzten. Ainhoa Redinek oso emaitza ona lortu zuen, zilarrezko bi domina eskuratu. Sara Isasisasmendik eta Nerea Diazek brontzeko domina bana eskuratu zuten.

Kultur proiektuetarako diru laguntza eskatu daiteke oraindik

Kultur programak eta proiektuak gauzatzeko 58.000 euro daude eta beste 12.000 euro sormen lanetarako

Oihana Elortza OÑATI

Aurten ere 70.000 euro emango ditu Udalak kultura arloko ekimenak gauzatzeko. Kultur proiektuak eta programak egiteko diru laguntzak kultur arloko ekintza bat edo programa-zio oso bat antolatzen duten talde eta erakundeek eskatu ditzakete. Baldintza da proiektua Oñatin egitea eta Udalaren beste diru laguntza bat ez jasotzea. Kultur sormen lanetarako diru laguntzen deialdia, berriz, herriko sortzaileei zuzenduta dago; talde eskatzailearen erdiek

edo banakako eskatzaileek Oñatin erroldatuta egon beharko dute. Diru laguntza hori izan daiteke, adibidez, musika maketa bat grabatzeko, komiki bat argitaratzeko edo ikus-entzunezko lan bat egiteko.

Diru laguntzak bi zatitan emango dira kasu guztietan: %60 proiektua babestea erabakitzen den unean eta gainerakoa egindako lanaren txostena aurkezten denean. Eskeraak udaletxeko bulegoetan egin behar dira eta horretarako azken eguna da martxoaren 8a da.



AITOR AGIRIANO

Hasi da garizuma garaia

Bukatu dira aurtengo Aratusteak. Egubakoitzean hasi eta martitzenean bukatu ziren, txokolate, mozorro, antzerki eta musikarekin. Eta hasi da garizuma. Hau da, karapaixoak egiteko eta jasotzeko garaia. Ama-aita pontakoek besoetakoei urtero egin beharreko oparia. Besoetakoak ez direnak ere gustura hartzen dutena, bide batez.

Iban Urizarrek osoko bilkuren aretoan joko du domeka iluntzean

Iban Urizar musikari elgoibartarrak zuzeneko emanaldia egingo du domekan, martxoak 5. Ezohiko tokian izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, hain zuzen ere, 19:00etan. Musika instrumentu asko jotzen ditu Iban Urizarrek eta inprobizazio-zalea da. *Amorante* lanarekin dator Oñatira. Neguko gidaren barruko emanaldia.

'Koaderno zuri' antzezlanak ikusteko sarrerak salgai daude

Garcia Lorcaren *Bernarda Alba* oinarri hartuta idatzi dute Agurtzane Intxaurrek eta Arantxa Iturbek *Koaderno zuria*. Intxaurrek gain, Miren Gojenola eta Itziar Ituño dira aktoreak eta 20 urtez elkar ikusi ez duten bi ahizparen gogoetak jasotzen ditu. Martxoaren 12an antzeztuko dute Santa Anan eta sarrerak *bibe.es* atarian eros daitezke.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55



Aristi, podiumean, maillot horiarekin. TROPICALEAMISSABONGO.COM



Hirugarren etaparako gertatzen.



Aristi, lehenengo etapako garaile, esprintean; Tony Hurel izan zen bigarren.

Aristiren abentura tropikala ez da amaitu

ZIKLISMOA Bergarakoak Afrikan irabazi du profesional mailako lehen lasterketa, Tropicale Amissa Bongoko itzulian; martitzenean lidergoa defendatu zuen, bigarren sailkatuta, baina orain, Stanislau Bazhkov dago lider; domekan amaituko da itzulia

Xabier Urzelai BERGARA

Astlehenean, Bergarako ziklismozaleek poztasun ederra hartu zuten, milaka kilometrotatik –eta sare sozialen bidez– iristen zen albistearen harira. Koula-moutoun, Gabonen (Afrika), 16.000 biztanle dituen herrian jaso zituen Mikel Aristik (Bergara, 1993) profesional modura lehenengoz besoak.

Seguruenik, umetan, begiak itxi eta lehenengo garaipena amesten zuenean ez zuen halako agertoki tropikala imajinatuko: "Oso etapa zorua izan da, hasieratik egon dira-eta ihesaldi aha-eginak. Azken kilometroetan

eraso horiek areagotu egin dira eta horrek asko gogortu du etapa. Batez ere, Energy Direct-ekoen partetik etorri dira ihesaldi aha-eginak, tartean egon da Thomas Voeckler, baina esprintean iritsi gara, eta hor indartsu ikusi dut nire burua", adierazi zion GOIENARI egunean bertan.

Martitzenean maillot horia defendatzea tokatzen zen, eta hor taldekideen lana izan zuen ondoan. Gorabehera handiko etapa izan zen hori ere, baina Bergarako osterera ere *saltsan* ibili zen; esprintean bigarren, Tony Hurel (Direct Energy) azkarragoa izan zen, baina lide-

rraren maillotarekin jarraitzen zuen bergararrak.

Eguaztenean 24 segundora

Itzuliko hirugarren etapa ere oso lehiatua izan zen, eta hor, lau lagunek taldetxoa iritsi zen esprint erabakigarria. Aristi ez zegoen tartean, eta bai hurrengo taldean, 24 segundora. Bada, sailkapen orokorrean hirugarren postuan zegoen Stanislau Bazhkov (Minsk) errusiarrarendako izan zen etapa garaipena, eta lidergoa, eta Aristik bigarren postura egin zuen salto sailkapen orokorrean. Eta halaxe jarraitu du gaur goi-



Tourra bost aldiz irabazi duen Bernard Hinault britainiarrekin.



Tropela Leconi eta Franceville artean –bigarren etapa– egindako etaparen une batean.

zera arte –egubakoitza–; izan ere, eguneko etapa bertan behe-ara utzi behar izan zuten, hegazkin batek arazo tekniko bat izan eta aurreikusita zegoen lekualdaketa egiteko arazoak izan eta

gero. Lerrook irakurtzen dituzuenarako bosgarren etapa amaituta egongo da [Lambarene-Kango], baina abentura tropikalak domekara arte iraungo du; bi etapa geratzen dira.

FUTBOLA Mondrak eta UDAK ez dute goikoen trena galdu gura

Etxean jokatu dute bi talde horiek (ikus 39. orria), eta sailkapenari begiratuta Aretxabale-tak du kontrario gogorrena, Hernani bigarren dago. Aloanak, oster, partidua garrantzitsua du Deban. Bergarak larritasun barik hartuko du Idiazabal eta Antzuolak lidergoa errekuuperatu gura du. Emakumezkoetan, Arizmen-dik igoera fasea hasiko du.

DUATLOIA Azkeneko egunak Oñatiko proban izena emateko

Martxoaren 12an egingo dute Oñatiko duatloia –distantzia motzeko Gipuzkoako eta Euskadiko Txapelketa– eta azkeneko egunak dira izena emateko (oinatikoduatloia.com). Dagoneko 16 taldetako ordezkariak eman dute izena lasterketan, baina lekua geratzen da. Korrika 15 kilometro egingo dituzte eta 36 bizikletan.

Saharan irabazle

ATLETISMOA Hankaluzetrail taldeko Elena Frechillak irabazi du Saharako maratonia (3.51.46), Giorgio Calcaterra (3:00.53) italiarrarekin batera. Frechillak desertuko dunetan utzi zuen atzean bigarren sailkatu zen Sara Hannerz suediarra, eta iazko San Silvestre Traileko irabazlea bakarrik helmugaratu zen. Aurten ere solidaritatea izan da lasterketaren irabazle nagusia.



HANKALUZETRAIL

"Minik ez sentitzea izan da BUTSeko onena"

SILVIA TRIGUEROS BASQUE ULTRA TRAIL SERIES LASTERKETAKO IRABAZLEA

MENDI LASTERKETAK Abadiñar horrek irabazi du asteburuan Bilbo eta Gasteiz artean egin duten lehen lasterketa; lesioa gainditzen dabilela ikustea izan da garaipena

Xabier Urzelai ARRASATE

BUTS (Basque Ultra Trails Series) lasterketako lehenengo edizioa egin dute asteburuan –lau etapatako lehena izan da– eta Eskoriatzan, Ederlanen, lan egin duen Silvia Trigueros (1976) izan da onena. Ultra lasterketetan erreferente bilakatzen dabil abadiñoarra.

Zer moduz erreku-peratu zara asteburuko ahaleginetik?

Oso ondo, ez dut giharretako minik [Barre].

110 kilometro Bilbo eta Gasteiz artean. Zer moduz?

Oso ondo. Lasterketa irabaztea baino gehiago [17 ordu eta 18 minutu], lesiotik ondo erreku-peratzen nabilela ikustea izan da onena. Proba aurretik ez nekien zelan sentituko nintzen, gerrialdeko minekin ibili naitzelako, eta argi nuen mina sentitzen hasiz gero bertan behera utziko nuela proba. Zorionez, ez dut arazorik izan.

Lesioak, kirolarien buruhaustea.

Bai, eta txarrena da erantzun garbirik ez daukazunean. Gerrialdeko minekin ibili naiz, piramidala-edo... Eta txarto egon naiz, lanera joan ezinka, bost egunez ohetik altxatu ezinka... Baina, poliki-poliki, banoa aurrera.

Zenbatetan entzun behar izan duzu ultra lasterketak ez direla, seguru-eruenik, erremediarik onena?

[Barre] Askotan, askotan. Baina beti diot berdina. Akaso, gorpuzarendako ez da onena izango, baina buruari zelako mesedea egiten dion...

Zer dela-eta hasi zinen ultra lasterketetan?

Betidanik gustatu izan zait mendia, eta dezente ibili izan naiz, baina ez korrika. Eta duela bost urte inguru koinatuak animatuta joan nintzen lehenengo mendi lasterketara. Distantzia motzekoak izan ziren lehenengoak, eta ondoren Hiru Haundiak egin nuen. Hor ikusi nuen dis-



Silvia Trigueros, domekan, helmugan. BASQUE ULTRA TRAIL SERIES / SAIZ

"URTEKO HELBURU NAGUSIA TOR DES GIANTS LASTERKETA EGITEA DA, IRAILEAN, ITALIAN"

tantzia luzeetan moldatzen naitzela ondoen.

Zer dute, bada, distantzia luzeek? Erritmo lasaiagoan joaten gara, eta hor erosoago sentitzen naiz. Eta horrenbeste orduz mendian ibilita gehien gustatzen zaidanaz goza dezakedala.

Zer da garrantzitsuagoa, burua ala gorputza?

Biak. Ezinbestekoa da ondo entrenatuta egotea, baina halako proba luzeetan beherakada edo txakalaldi handiak egoten dira, eta burugogorra izan behar duzu, derrigor.

Ezarrita izango dituzu 2017ko helburuak, ala?

Bai; helburu nagusia Tor des Geants lasterketa egitea da [330 kilometro, 24.000 metroko desnibela]. Irailean izango da lasterketa hori, eta ondo prestatzen ahaleginduko naiz.

Horrenbestez, ez duzu BUTSeko lau etapak amaitzeko asmorik, ala?

Hasiera batean, bigarren etapako irteera puntuan izango naiz, maiatz hasieran Gasteiz eta Iruñea lotuko dituen etapa [110 kilometro]. Hirugarren etapa abuztuan izango da [Iruñea-Donostia], eta, ordurako oporretan egongo naitenez, seguruenik, kanpoan ibiliko gara. Ikusteko dago. Eta laugarrena [Donostia-Bilbo] urrian izango da, Tor des Geants egin eta gero. Baina batek daki zelan joango den urtea, lesioek errespetatuko nauten... Pausoz pauso joan gura dut.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Mondra-Vasconia

Domeka. 16:30. Moiategi.

Aretxabaleta-Hernani

Domeka. 16:30. Ibarra.

Amaiak Bat-Aloña M.

Zapatua. 16:30. Deba.

ERREGIONAL PREFERE.

Mondra-Soraluze

Zapatua. 16:30. Moiategi.

Aretxabaleta-Urola

Zapatua. 17:45. Ibarra.

Bergara-Idiazabal

Zapatua. 16:30. Agorros.

EMAKUMEZKO. IGOERA

Arizmendi-Ordizia

Zapatua. 11:00. Ibarra.

EMAKUMEZKOAK. KOPA

Eibar-Mondra

Domeka. 18:00. Unbe.

Goierri-Bergara

Zapatua. 17:30. Lazkao.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAP.

UDA-Elorrietako

Domeka. 17:30. Ibarra.

Afantxo-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Pasai D.

GIPUZKOAKO TXAP.

Hirukide-Mondrate

Domeka. 11:30. Tolosa.

SENIOR EMAKUMEZK.

Trintxerpe-Eskoriatza

Gaur. 21:30. Pasai Donib.

SASKIBALOIA

EBA

La Gallofa-MU

Zapatua. 20:30. Santand.

EUSKADIKO BIG. MAILA

Natra Oñati-Ibaizabal

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EUSKADIKO GAZTE M.

MU A-Fundacion 5+11

Domeka. 16:00. Musakol.

EUSKADIKO KADETE N.

Kirolak Araba-MU A

Zapatua. 13:00. Gasteiz.

GIP. SENIOR MAILA

MU-Errotaundi

Domeka. 18:00. Iturripe.

GIP. BIGARREN MAILA

Viento-Soraluce BKE

Zapatua. 16:00. Elgoibar.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Ayma Goierri-Eskoria.

Zapatua. 16:00. Urrtetxu.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAP.

Izarraitz M.-Urdaneta

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Ford Mugarri-Hondarri

Zapatua. 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO EMAKUME.

Zuazo-Aloña Mendi

Domeka. 12:30. Barakald.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Urola-Soraluce BKE

Zapatua. 18:00. Zumarra.

GIP. BIG. SENIOR M.

Egia-Arrasate

Zapatua. 16:45. Donostia.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKET.

ART-Elorrio

Zapatua. 16:30. Moiategi.

PILOTA

PROFESIONALAK

Bergaran

Gaur, 22:00etan hasita,

Munizipalean:

Gorka-Cecilio

Mendizabal III-Erostarbe

Irribarria-Rezusta

Urrutikoetxea-Imaz.

HERRI MAILAKOAK

Eskoriatzan:

Egubakoitza. 19:30.

Eskuz binakako nagusiak.

Arrasaten:

Egubakoitza. 20:15.

Kadete eta gazte

mailakoen partidua bana.

Bergaran:

Domekan. 17:00. Eskuz

binakako nagusiak.

Gaurko Bergarako jaialdia erabakigarria izango da

PLOTA Eskuz Binakako Txapelketako lehenengo fasea izugarri estutu da; Rezustak etxean jokatu du gaur

Xabier Urzelai BERGARA

Emozioa gura duena ez dadila beste kirol jarduera batzuekin nahastu, pilotak eskainiko dio-eta gura adina. Eskuz Binakako antolatzaileek amestu ere ezin zuten egin egoera honekin, joan den asteburuko emaitzekin sailkapena izugarri estutu da eta.

Rezusta eta Irribarria, barruan

Aurreratu bezala, gaurko jaialdia erabakigarria izango da (22:00, Bergarako Munizipala). Gaueko lehenengo partiduan Gorkak eta Ceciliok Aitor Mendizabal (Mendizabal III.a) eta Erostarben kontra jokatuko dute. Txapelketa barruko partiduan, berriz, Beñat Rezustak etxeko zaleen aurrean jokatuko du, eta Irribarria bikote duela Urrutikoetxearen eta Imazen kontra neurtuko



Rezusta. GOIENA

dituzte indarrak. Lehenengo bikotea sailkatuta dago jada, baina, etxean jokatuta, ondo egin gurako dituzte gauzak. Kontrarioek finalerdiekin amesten jarraitzeko eskubidea dute, joan den asteburuan irabazi eta gero.

A. Aranburuzabala / J. Guridi OÑATI

Punk estiloan aitzindaria den GBH talde britainiarra Oñatiko gaztelekuan izango da martxoaren 9an 22:00etan. Ikur duten punk azkarra egiten jarraitzen dute, beste musika estilo batzuetatik hartzen badute ere. Hasierako formazioko Colin Abrahall abeslariarekin eta Colin Jock Blyth gitarra-jolearekin batera, Ross Lomas baju-joleak eta Scott Preece bateria-joleak osatzen dute gaur egun laukotea.

Pozik Euskal Herrira etortzeko?

Bai, Euskal Herrian urte askotan jotzen aritu gara eta beti oso ondo hartu gaituzte. Punk-rocka Euskal Herriko musika nazionala dela iruditzen zait.

Eta zuk jarraitzen dituzu euskal musika taldeak? Nola ikusten duzu euskal musikagintza?

Hainbeste talde daude, hainbeste talde on, barkatu ez badut hizkuntza ulertzen –gizon ingeles ergel bat naiz–, baina horiko musika beti izan da oso ona.

Orain dela bi urte Gatillazo taldearekin jo zenuten Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, eta Evaristorekin abestu zenuen. Zer moduz?

Oso urduri nengoen harekin abestu behar nuelako; aurrez esan bezala, ingelesaz gainera ez dut beste hizkuntzarik hitz egiten. Horregatik, bada, aurreko asteetan gogor aritu nintzen entseguetan abestia gertatzen, eta, pentsa, leloa bakarrik abestu behar nuen! Zorionez, oso ondo atera zen!

Baduzue euskal musika taldeekin harremanik?

Bai; lagun asko ditugu Euskal Herrian; Gasteizko Segismundo Toxicomano taldeko kideak, horien artean. Baina joaten garen bakoitzean lagun berriak egiten ditugu.



Colin Abrahall, GBH taldeko abeslaria. KOLDO ORUE

"Kantu ezagun guztiak joko ditugu Oñatin"

COLIN ABRAHALL GBH TALDEKO ABESLARIA

Musikari britaniar ezagunen kontzerturako sarrerak hamar eurotan eros daitezke Oñatiko Boga, Ona eta Xagu tabernetan. The Fridays Crew taldearekin joko dute

1979.an sortu zenuten GBH. Zein da, gaur egun, Britainia Handiko punk mugimenduaren egoera?

Punk mugimendua osasuntsu dago; autoekoizpenaren eta *Do It Yourself*-aren bidetik ari da (Zuk zeuk egin), gehienbat; hau da, korporazio handien zirkuitutik kanpo. Hala ere, kontzertu areto eta promotore sare handia dago herrialde osoan.

Eta zein da zuen egoera?

Beti bezain lanpetuta gabiltza. Apirilean Hego Amerikara joan-



Oñatiko gaztelekuan egunean izango den GBH laukotea. GBH

go gara eta han hamalau kontzertuko bira egingo dugu! Lurralde horietan inoiz egin dugun birarik luzeena izango da. Ondoren, urtea amaitu aurretik, Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan ere aritzeko asmoa dugu. Horrez gainera, Britainia Handian eta European kontzertu eta jaialdi pila bat ditugu; beraz, atsedeen hartzeko denbora gutxirekin ibiliko gara!

Punk azkarraren aitzindari zarete. Zelan definituko zenuke gaur egun egiten duzuen?

Punk-rocka, duda barik.

40 urte taularen gaineen; nola ikusi duzue publikoaren bilakiera?

Zaharragoa izateaz aparte, antzagoa dela esango nuke. Orain, gurasoak euren seme-alabekin etortzen direla ikusten dugu; beraz, gure publikoan 8 urtetik 80 urtera bitarteko zaleak daude. Era berean, bizardun askoz gehiago daude!

Ze asmorekin zatozte Oñatira? Nolako kontzertua emango duzue?

Abesti ezagun guztiak joko ditugu, guzti-guztiak! Horiez gainera, sorpresa batzuk ere izango dira; tartean, kantu berriak.

Disko berri bat duzue, beraz, etorkizuneko planen artean?

Bai, hala da; bilduma berri bat prest dugu eta grabatzeko momentu egokiaren bila gaude. Laster argitaratzeko asmoa dugu; dagoeneko ari gara zuzenekoetan hainbat kantu erakusten. Publikoak oso ondo erantzun du, eta hori oso pozgarria da guretzat.

Zerbait gehiago gaineratu gura zenuke?

Oñatiko gaztelekuan ikusiko dugu elkar!



Suinaga, Garitano eta Txintxurreta, zuzendariarekin. YON SUINAGA

Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikian, hiru debagoiendar

Uxue Garitano eta Maitane Suinaga bergarrek eta Maialen Txintxurreta oñatiarrak bi kontzertu egin dituzte

A. A. BERGARA

Iaz sortu zuten Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikia, dagoeneko hamarkada beteta duen EIO Orkestraren ereduari jarraituta. 10 eta 13 urte bitarteko 120 musikari gaztek osatzen dute.

Askotariko musika eskola eta musika kontserbatorioetan ari diren ikasleek parte hartzen dute, eta horien artean daude Bergarako eta Oñatiko musika eskoletako kideak: Bergarako Maitane Suinaga biolin-jolea eta

Uxue Garitano biolontxelo-jolea eta Oñatiko Maialen Txintxurreta biolin-jolea.

Hezkuntza egitasmo musikal horren bitartez, ikasle gazteek errepertorio sinfonikoa lantzeko aukera dute orkestra baten parte hartuta. Hori horrela, astelehenean eta martitzenean kontzertu bana eskaini zuten Donostian eta Gasteizen. Inauteri jaiak izanik, moztortuta eskaini zituzten emanaldiak, hainbat herrialdetako janzkera tipikoak soinean zituztela.

Musikarien bizipenak 'Kulturizketak' saioan

Josune Arakistain eta Pello Armendariz abeslariak izan ziren astero emititzen den 'Kulturizketak' saioan. Hainbat gauza kontatu zituzten; beraien lehenengo urratsak zeintzuk izan ziren eta musikaren munduan izandako ibilbidea, besteak beste

Ane Vitoria ARRASATE

Telebista saio horretan, kulturari buruz mintzatzen da, eta, honetan, euskal kulturaren diharduten pertsonak dira protagonistak. Oraingoan, Josune Arakistain (Huntza) eta Pello Armendariz (Skakeitan) abeslariak izan ziren eta beraien esperientzia nolakoa izan den azaldu zuten. Bada, saioan zehar azalduko bitxikeriak ikusteko aukera martxoaren 9an, eguean, (21:30) izango da Goiena telebistan.

Trikilari gipuzkoarra

Josune Arakistain, Huntza taldeko abeslaria, trikitia jo du gaztetatik. Bilbon ikasten ari zela, triki-poteoan beste hainbat instrumentu-jole ezagutu zituela esan zuen: "Biolinista bat ikusi nuen eta pentsatu nuen: ba ez da fitxaketa txarra!". Honela, gutxika, sei kideko taldea sortu zuten eta denbora oso laburrean, bi urte, hain zuzen, arrakasta handia lortu dute; izan ere, 2016ko martxoan lehen diskoa plazaratu zuten. Gustuko zituzten kanta sortzen hasi zirela kontatu zuen, festa giroko doinu alaiak zituztenak: "Faltan igartzen genuen musika sortu dugu". Taldekide bakoitza musika estilo ezberdin batetik da-



Josune Arakistain eta Pello Armendariz, *Kulturizketak* saioan. GOIENA

torrela aitortu zuen, eta hori izan daiteke beraien funtsa. Euren jatorria ere ezberdina da, Gipuzkoako punta ezberdinetakoak baitira. Eta hortik dator beraien lehenengo diskoaren izena, *Ertzetatik*.

Hirugarren diskoa

Pello Armendariz musikariaren hirugarren diskoa da *Galera*. Skaikeitan taldeko abeslariak taldearen hasierak kontatu zituen: "Entseguak egiteko elkartzen ginen, baina kontzertuak emateko gogoz geunden, eta hori

pizgarria izan zen taldea sortzeko". Taldean hainbat aldaketa izan zirela ere aitortu zuen, baina, behin martxa hartuta, abestiak sortzen hasi eta taldea finkatu zen. Beraien musikak ildo berri bat hartu duela aitortu zuen: "Sortutako musika ez genuen berdin sentitzen eta buelta bat eman genion". Gaiak ere aldatu dituzte; orain, abesti guztiek problematika batez hitz egiten dute. Disko berrian elektronika eta hip hop musika estiloen presentzia sumatzen dela esan zuen Armendarizek.

Governors musika taldeak gitarra-jolea behar du

Arrasateko taldeak udan grabatuko du disko berria, baina, horretarako, gitarra-jole bat behar dute. Orain arte beraien taldekidea izan den Iñigo Zubizarretak ezingo du beraiekin jarraitu; izan ere, Sociedad Alkoholika taldearen disko berriaren aurkezpenean eta bira dituzubizarretak. Horregatik, Governors taldeari, gitarra-jole bat

lehenbailehen aurkitzea komeni zaio. Jende dezente gerturatu da beraingana eta laster hasiko dira hautaketa prozesuarekin. Taldearentzat funtsezkoa da aurkeztu denaren profila beraiek bilatzen ari diren profila-ekin bat etortzea. Horregatik, aurkeztu direnei proba bat egingo diete. Bere burua aurkeztu nahi duen edonork oraindik astebate bat izango du; beraz, interesa dutenek honako helbide honetara idatzi beharko dute: jucodu@gmail.com.

Aldaketa 'Galdegazte' saioaren emisio egunean

Aratusteak direla eta, Goiena telebistako programazioan jaiei buruzko saio berezia emango da. Ondorioz, martxoaren 1erako aurreikusita zegoen *Galdegazte* saioa martxoaren 8ra aldatu da (21:30). Saio horretan, Bergarako Aranzadi Ikastolako ikasleek Aitziber Garmendia aktoreari eginiko elkarrizketa ikusteko aukera izango da.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko eta apirileko zozketa!



KORRIKAKo 10 arropa-sorta ditugu zozketatzeko!

Parte hartzeko sariaren izena: Korrika



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiak zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ECHEVERRIA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA *Jatetxea*

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Oñatiko Gaztelekuari esker

GBH eta *The Friday's* Crew taldeen kontzerturako sarrerak ditugu.

Gaztelekuan, Oñatin | Martxoaren 9an, 22:00etan

Arrasateko Udalari esker

Kepa Junkera & Sorginak kontzerturako sarrerak ditugu.

Amaia antzokian, Arrasaten | Martxoaren 12an, 20:00etan

Spaloia Kafe Antzokiari esker

Bertso jaialdirako sarrerak ditugu

Spaloia Kafe antzokian, Elgetan | Martxoaren 10ean, 21:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "ikusizunaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea.

Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiak zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.eus



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 osoa: 55 euro.
Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

BERGARAKO OTSAILEKO OSOKO BILKURA

'Osoko bilkurak' Egubakoitza, 23:00

IMANOL SORIANO

ARATUSTEETAKO BERGARAKO KONTZERTUA

'Aratuste kontzertua' Zapatua, 21:00

EGUBAKOITZA, 3	ZAPATUA, 4	DOMEKA, 5
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Kantari	09:00 Kantari
11:00 Onein: Zurrurutuna kokobekin	09:30 Plazako aulkitik: Baliarrain	09:30 Ur eta lur
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo
12:30 Kulturizketak	10:30 Kantari	10:30 Kantari
13:00 Kantari	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Jaiak: Aratustek 2017
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Jaiak: Aratustek 2017	12:00 Aratuste kontzertua
14:30 Gaurkoak	13:00 Ur eta lur	13:30 Hemen Debagoiena
14:45 Aratustek 2017	13:30 Kulturizketak	14:30 Kulturizketak
15:45 Amaia DJ	14:00 Ekonomia gurean	15:00 Plazako aulkitik: Baliarrain
16:15 Gaurkoak	15:00 Hemen Debagoiena	15:30 Jaiak: Aratustek 2017
16:30 Onein: Zurrurutuna kokobekin	16:00 Osoko bilkura: Bergara	16:30 Kantari
17:00 Gaurkoak	17:30 Amaia DJ	17:00 Korapilo
17:15 Kulturizketak	18:00 Jaiak: Aratustek 2017	17:30 Hemen Debagoiena
17:45 Gaurkoak	19:00 Hemen Debagoiena	18:30 Amaia DJ
18:00 Hemen Debagoiena	20:00 Kantari	19:00 Osoko bilkura: Bergara
19:00 Kantari	20:30 Amaia DJ	20:30 Hemen Debagoiena
19:30 Kulturizketak	21:00 Aratuste kontzertua	21:30 Kulturizketak
20:00 Hemen Debagoiena	22:30 Hemen Debagoiena	22:00 Amaia DJ
21:00 Kulturizketak	23:30 Jaiak: Aratustek 2017	22:30 Jaiak: Aratustek 2017
21:30 Amaia DJ	00:30 Kulturizketak	23:30 Hemen Debagoiena
22:00 Hemen Debagoiena	01:00 Amaia DJ	00:30 Ekonomia gurean
23:00 Osoko bilkura: Bergara		
00:30 Hemen Debagoiena		

ASTELEHENA, 6

UDA-HERNANI PARTIDUKO IRUDIAK

*'Harmailatik'**Astelehena, 21:30*

MARTITZENA, 7

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

*'Gaurkoak'**Martitzena, 14:30*

GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
[goiena.eus/
telebista](http://goiena.eus/telebista)
Edo eskaneatu
aidameneko qr kodea.

EGUAZTENA, 8



GOIENA

AITZIBER GARMENDIARI GALDEZKA

*'Galdegazte'**Eguaztena, 21:30*

EGUENA, 9

SKAKEITAN ETA HUNTZA

*'Kulturizketak'**Eguena, 21:30*

HILDAKOAK

Jesus Iriarte Oruna. Arrasaten, otsailaren 23an. 63 urte.**Ines Olalde Barrena.** Oñatin, otsailaren 24an. 57 urte.**Teodora Castillo Perez.** Arrasaten, otsailaren 24an. 70 urte.**Maria Luisa Arenaza Aguinagalde.** Eskoriatzan, 24an. 89 urte.**Asuncion Gaztañaga Oroz.** Arrasaten, 25ean. 94 urte.**M. Teresa Madinabeitia Erostarbe.** Oñatin, 25ean. 88 urte.**Jose Luis Iñarra Larrañaga.** Arrasaten, otsailaren 26an. 78 urte.**Iker Jausoro Murgiondo.** Oñatin, otsailaren 26an. 48 urte.**Adolfo Tena Davila.** Arrasaten, otsailaren 27an. 44 urte.**Carmen Galdos Guridi.** Arrasaten, otsailaren 28an. 86 urte.**Felipa Elorza Garcia.** Arrasaten, martxoaren 1ean. 94 urte.**Esteban Fernandez de Arroiabe Larrea.** Bergaran, 1ean. 90.**Jose Mari Cortabarría Mendizabal.** Arrasaten, 2an. 87 urte.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskela@goiena.eus

► Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona
Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 €/ Goiena Klubeko
bazkideendako 142 €

► Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en:
140 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean).
943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.**ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.**ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 3	IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 4	AMEZUA: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Domeka, 5	ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Astelehena, 6	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 7	ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 8	ALBERTO AZKAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 9	M. FCA. AZKAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 3	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 4	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 5	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 6	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 7	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 8	ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 9	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 3	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 4	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 5	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 6	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 7	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 8	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 9	IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017ko abuztuaren 15era arte:
FERNANDEZ: Maisu Aranbarri
943 79 22 26

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2017 osoan:
URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4
943 76 11 74

Gipuzkoako farmazien egutegia
eskura izateko:
CDF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play-etik edo
AppStore-etik.

HILETA



Jose Mari Cortabarría Mendizabal

2017ko martxoaren 2an hil zen,
87 urte zituela.



Emaztea: Maria Rosario Acha. Seme-alabak: Raul eta Rosa Mari, Belen eta Joaquin, M. Aranzazu eta Javi. Arreba: M. Aranzazu (†). Ezkon anal-arrebak: Felisa Zugasti, Rafael Acha (†), Jose Antonio Ugarte (†). Bilobak: Ander, Julen, Mikel, Ane, Andoni. Ilabak eta gainontzeko senideak.

Haren aldeko hileta-elizkizuna gaur, egubakoitza, martxoak 3, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailaeren parrokian.

Oharra: sendiak Arrasateko tanatorioan hartuko zaituzte gaur, egubakoitza, 10:00-13:00 eta 16:00-18:30ak bitartean.

Berataratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

MEZA



Joselu Arana Larrañaga

2017ko urtarilaren 14an hil zen, Donostian, 60 urte zituela.



Emaztea: Arantzazu Aranes Usandizaga.
Haren aldeko meza zapatuan izango da, martxoaren 4an, 12:00etan, Bergarako San Antonioko ermitan.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
duzuen guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Bergaran, 2017ko martxoaren 3an.

ESKER ONA



Jesus Iriarte Oruna

2017ko otsailaren 23an hil zen, Arenas de San Pedron (Avila), 63 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan
babesa eta gertutasuna
adierazi eta gurekin egon
zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada
handi bana, familiaren
izenean.

*Gu sortu ginen enbor beretik
sortuko dira besteak.
Gure ondotik joan arren,
beti egongo zara gure
bihotzean.*

Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

ESKER ONA



Miren Garbiñe Agirre Azkarate

2017ko otsailaren 23an hil zen, 86 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Adolfo Tena Davila



2017ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

Agur, Adolfo.



Txikipandakuak.
Arrasaten (Musakola), 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Adolfo Tena Davila



2017ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

PMG Polmetasako lankideek beti izango zaitugu gogoan.



Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Julian Lezeta Ezkurra

2016ko martxoaren 1ean hil zen.

Juan Jose Garmendia Berezibar

1999ko martxoaren 10ean hil zen.



Zeuekin pasatutako momentu onak gurekin gelditu dira.

Zeuen lagunak.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Adolfo Tena Davila



2017ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

AKEko taldekideon partetik.



Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Adolfo Tena Davila



Ikastolako gurasoa
2017ko otsailaren 27an hil zen, 44 urte zituela.

Har beza familiak gure atsekabe-mina.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Carmen Galdos Guridi



Amaia Larrañaga zinegotziaren ama
2017ko otsailaren 28an hil zen, 86 urte zituela.

Sendiaren minean lagun.



Arrasateko EH Bildu.
Arrasaten, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Iker Jausoro Murgiondo



2017ko otsailaren 26an hil zen.

Eskerrik asko Goienaren sorreratik gurekin izateagatik.



Goiena Komunikazio Taldea.
Oñatin, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Iker Jausoro Murgiondo



'Uli'
2017ko otsailaren 26an hil zen.

Beti gogoan izango zaitugu.

Zure kuadrilla.
Oñatin, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Ines Olalde Barrena



2017ko otsailaren 24an hil zen, 57 urte zituela.

Lor ezazu luan
Lortu ez duzun guztia munduan
Har ezazu besarkada haundi bat
Zauden lekuan
Beti izango zaitugu goguan.

Zure lagunak.
Oñatin, 2017ko martxoaren 3an.

OROIGARRIA

Maria Luisa Arenaza Aguinagalde



'Maritxu'

Tia, ze txukun janzten gintuzun
zuk egindako jertseekin,
zenbat goxatu dugun ondoren
zure jaki goxoekin.
Kontu kontari alaia zinen
ezin aspertu zurekin,
tia Maritxu, bizipoz hori
betirako da gurekin.

Txareneko ilobak eta iloba txikiak.
Eskoriatzan (Mendiola), 2017ko negua.

OROIORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean
zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak



Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure asegu-
ru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

UBERA

Olañeta baserria eta 15 hektareako lursaila salgai (pinuak eta zelaiak). 943 76 35 09 677 21 46 82

Laredo. Apartamentua salgai EVEReko gunean. Bigarren solairua da eta

igogailua dauka. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Guztiz jantzia dago. Harremanetarako deitu ondoko telefonora: 615 09 36 82

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Zabalotegin etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Jende arduratsua bakarrik onartuko da. Hilean 550 euroko errenta, negoziagarri. Interesatuok deitu honako telefonoz zerbaki honetara: 633 08 06 32

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 603 29 94 29

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 653 30 95 46

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Hilean 400-450 euro ordain ditzaizket. Presazkoa da. 696 84 19 51

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje salgai Errekabarren kalean. Errentan hartzeko aukera ere bai. 943 79 52 29, 628 31 98 39

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaiea alokatzen da Arrasate erdialdean. 639 47 77 22 edo 686 98 08 27

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Sukaldari laguntzailea behar da taberna baterako. 695 78 85 55

BERGARA

Jean Louis David-en ile-apaintzailea behar dugu. Lanaldi osoko jarduna. 943 76 22 48

402. ESKAERAK

Arrasate. Batxilergoko ikaslea 16:00etatik aurrera eta asteburuetan umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. 634 91 51 56

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu orduka nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 620 23 58 15

Debagoiena. Etxeko lanak egiteko prest nago. 631 60 84 15 (Reyna)

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko formazioa dau-

kan gizona lanerako gertu. 602 16 05 93 (Jacobo)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketarako edo bestelako lanetan aritzeko gertu nago. Baita orduka ere. 602 63 68 14

Debagoiena. Neska gertu goizetan denetarikoko garbiketarako edota ostalaritzan eta sukaldean aritzeko. 612 42 69 37

Debagoiena. Orduka edo jardun osoz nagusiak zaintzen eta atari eta abarrik garbitzen lan egingo nuke. 688 29 97 05

Debagoiena. Orduka edota asteburuetan nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko gertu. 603 29 94 29

Debagoiena. Orduka nagusiak zaindu eta garbiketarako egingo nitzuke. 38 urteko neska naiz eta lege paperak eguneratuta dauzkatz. 635 09 12 62

Lan bila. Asteburuetan nagusiak zaintzen edo tabernan lan egingo nuke, Arrasaten, Bergaran edo Aretxabaletan. 612 56 65 27 edo 697 20 00 86

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Labradore txakurkumeak. Bi hilabete dauzkate. Jende arduratsua- rendako bakarrik. 678 38 81 60

8. DENETARIK

806. GALDU

Argazki kamara. Otsailaren 25eko aratuste gauean, Eskoriatzako plazan, Panasonic Lumix argazki kamara galdu nuen. Aurkitu duenak, mesedez, eraman dezala Eskoriatzako udaltzainengana edo deitu dezala telefono honetara: 619 81 43 25

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Uxue Kortabarria Maskariano
Martxoaren 8an, 7 urte. Zorionak, Uxue! Etxeko sorgintxuak 7 urte betetzen ditu. Ondo pasatu eguna. Muxu potoloak: Naroa, amatxo eta aitatxo.



ARETXABAETA
Xabat Zillaurren Iria
Martxoaren 6an, 6 urte. Zorionak, Xabat! Ze mutiko handixa ein zaren! Ederto pasatu! Asko maitte zaittugu!



BERGARA
Julen Rejano Molina
Martxoaren 5ean, 7 urte. Zorionak familiaren partetik. Ederto pasatu zure egunean. Muxu bat!



BERGARA
Ibai Egaña Zabaleta
Martxoaren 5ean, urtebete. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat familiakoen eta bereziki Ekainen, Urkoren eta Unairen partetik!



OÑATI
Natale Kortabarria Txintxurreta
Martxoaren 4an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna! Muxu handi bat, danon partetik.



BERGARA
Eki Larrañaga
Martxoaren 4an, urtebete. Ai ene... gure txikitxuak urte bat! Patxo potolo-potolo bat, gure politta!



OÑATI
Lur Hernandez Otxoa-Aizpurua
Martxoaren 2an, 4 urte. Zorionak, Lur! 4 urte! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik. Mua, mua...



ESKORIATZA
June Fernandez Sedano
Martxoaren 2an, 12 urte. Zorionak, June! Ederto pasatu zure eguna. Patxo handi bat familiaren eta, batez ere, Ikerren partetik.



OÑATI
Julen Odriozola Larrañaga
Martxoaren 1ean, 3 urte. Zorionak, Julen! Enteratu orduko 3 urte! Ondo pasatu zure egunian eta patxo pila bat, etxeko danon partetik.



BERGARA
Pegerto eta Carlota
Pegertok otsailaren 21ean bete zituen urteak eta Carlotak martxoaren 1ean, 4 urte egingo ditu. Zorionak etxeko danon partetik!



ARRASATE
Ibai Misol
Otsailaren 26an, 11 urte. Zorionak, Ibai, familia guztiaren partetik. Ederto pasatu zure eguna!



BERGARA
Iker Ibarzabal Velez de Mendizabal
Otsailaren 26an, 2 urte. Zorionak, Iker! Etxeko eta, bereziki, Noraren eta Aneren partetik.



ARRASATE
Eider Balantzategi Eiro
Otsailaren 26an, 5 urte. Zorionak, Eiderxo! 5 urte jada. Oso ondo pasatu zeure egunian. Muxu handi bat, familia osoaren partetik.

LAN ESKAINTZA

HODI-ITURGINEN LAN POLTSA

Izena emateko epea: martxoaren 4tik 13ra arte (biak barne)

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta web orrian jaso daitezke: www.arrasate.eus



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Pertsonal Salla

Goiena Komunikazio Taldeak

TELEBISTAKO ERREALIZATZAILEA behar du Debagoienarako

Eskatzen da:

- Ikus-entzunezko ikasketak.
- Euskara maila ona.
- Post-produkziarako programen ezagutza (Final Cut, After Effects, Adobe Premiere, Photoshop...)
- Gidabaimena.

Kontuan hartuko da:

- Antzeko lanetan esperientzia.

Curriculum bidali martxoaren 8ko 12:00ak baino lehen helbide honetara: idezkaritza@goiena.eus

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosi.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Fraskozuri, 110 m², 3 logela. Garaiea barne. Bizitzera sartzeko. 260.000€.
- Bidekurutzeta, 100 m², 2 logela, berritua, Bizitzera sartzeko. 157.000€.
- Bidekurutzeta, 54 m², 2 logela. Berrituko. Igogailua du. 92.000€.
- Martoko, 80 m², 3 logela, trastelekua, igogailua. Eguzkitua. 135.000€.
- Madura, 56 m², 2 logela, bi balkoi, eguzkitua. 110.000€.
- Martzial Agirre (Espolain), 84m², 4 logela, trastelekua eta garaiea barne. 235.000€.
- Irizar, 87 m², 3 logela, igogailua eta trastelekua. 170.000€. PREZIO JAITSIERA.
- Bidekurutzeta, 130 m², 4 log. 320.000€. Igogailua. NEGOZIAGARRIA.
- Aranerrekua, 85 m², 3 logela, 2 komun, trastelekua. 120.000€.
- Martoko, 77 m², 2 logela, igogailua. Ez du obrarik behar. 95.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Barrenkale, 75 m², 3 logela. Ez du obrarik behar. 70.000€.
- Zubiaurre, 50 m², 2 logela, BERRITZKO. 24.000€. AUKERA ONA.
- Madura, 57 m², 2 log. Berritua. Bizitzera sartzeko. 110.000€. AUKERA OSO ONA.
- Urteaga, 92 m², 3 logela, terraza 40 m², garaiea aukeran. Eraikuntza berria. 280.000€.
- Ernai, 162 m², atikoa. 4 log. Tximinia, 28m²ko terraza. 350.000€.
- Zubiaurre, 86 m², 3 log. trastelekua eta garaiea barne. 100.000€. AUKERA BIKAINA.
- Artzamendi, 74 m², 3 logela, berritua, garaiea barne. 210.000€.
- Aranerrekua, 85 m², 3 logela, Berritua. Ez du obra beharrik. 145.000€.
- Artzamendi, 75 m², 3 logela, trastelekua eta garaiea. 153.000€. Ez du obrarik behar.
- Koldo Eleizalde, 76 m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000€. NEGOZIAGARRIA.
- Simon Arrieta, 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Zubieta, 125 m², terraza eta 2 oriturekin. Igogailua ipintzekotan dabilza. 192.000€.
- San Antonio, 86 m², 3 logela, trastelekua eta garaiearekin. Igogailua. 204.000€.
- Zubiaurre, 60 m², 2 logela, trastelekua eta igogailua. 98.000€. AUKERA ONA.
- Ibarra, 62 m², 3 logela. Trastelekua. 86.000€. PREZIO JAITSIERA. AUKERA ONA.
- Askaruntz, 60 m², 2 logela. Lasaia eta eguzkitua. 100.000€. AUKERA ONA.

ANGIOZAR:

- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berritua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Baserria 233 m². Lursailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000€.

OSINTXU:

- Osintxu, 92 m², 3 logela, igogailua, garaiea. Eraikuntza berria. 165.000€.
- Osintxu, 55 m², ganbara 55 m², lur sailarekin. BERRITZKO. 40.000€.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 70 m². 2 logela eta igogailua. 62.000€. AUKERA BIKAINA.

ANTZUOLA:

- Errekalde, 68 m², 2 logela. Ezu du obrarik behar. Altzariak barne. 140.000€.
- Buzin-zuri, 65 m², 2 logela. Ez du obrarik behar. 180.000€. Garaiea aukeran.
- Errekalde, 78 m², 3 logela, Berritua. 130.000€. Garaiea aukeran.
- Ibarro, 90 m², 3 logela. Trastelekua, eguzkitua. 190.000€. Garaiea barne.
- Kalebarren, 85 m², 3 logela, igogailua. 180.000€.

ELGETA:

- Torrealede, 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adostasua 150 m² + 45 m² garaiea + 90 m² lursaila.



ARRASATE
Eneko eta Oier Carrero
Enekok otsailaren 4an, 14 urte eta Oierrek martxoaren 6an, 12 urte. Zorionak aitaita-amamen, izeba-osaben eta familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
Unax Barandiaran Otxoa
Martxoaren 4an, 2 urte. Zorionak, *granuja!* Ondo-ondo pasatu zure eguna. Markel eta etxeakoak.



OÑATI
Elene Axpe Zubizarreta
Martxoaren 3an, 6 urte. Oso ondo pasatu eguna, *txikita!* Etxeko danan partetik.



OÑATI
Uritz Zabala Arabaolaza
Martxoaren 5ean, 7 urte. Zorionak, Uritz! Muxu handi bat etxeko danon partetik eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



OÑATI
Aine Martinez Lopez
Martxoaren 3an, 3 urte. Zorionak, maiztia! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu erraldoi bat familixa danaren partetik. Asko maitte zaittugu!



BERGARA
Ander eta Jon Basauri Davila
Martxoaren 1ean, 5 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bana, familia osoaren partetik.



ARETXABALETA
Andoitz Gomez Iturbe
Martxoaren 1ean, 9 urte. Zorionak, Andoitz, jadanik 9 urte bete dituzu. Segi ametsak egi bihurtzen. Muxu erraldoiak, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Ane Garcia Calzada
Otsailaren 28an, 7 urte. Topera disfrutatu zure eguna: inauteriak, merendola... Zure familia danaren eta, batez ere, ahizpa Enararen eta anaia Hegoiren partetik! Mua!



ARRASATE
Amaur Lizaranzu Madinabeitia
Otsailaren 27an, urtebete. "Heldu da ordua ta momentua..." Zorionak etxeko danon partetik. Asko maite zaittugu. Eta zorionak zuri ere, amama Isabel!



OÑATI
Anje Gezalaga Rodriguez
Otsailaren 27an, 3 urte. Zorionak, maiztia! Etxeko txikiñak ja 3 urtebo! Ondo pasatu zure egunian. Muxu handi bat, familia guztiaren partetik!



ANTZUOLA
Janire Bassecourt Perez
Otsailaren 26an, 14 urte. Zorionak, Janire, eta ondo pasatu eguna. Maitasun handiz, Antzuolako familia.



OÑATI
Ione Guridi Larrañaga
Otsailaren 25ean, 39 urte. Zorionak, zure urtebetetzean. Zure familiaren partetik, patxo potolo bana.



ARRASATE
Libe Urionabarrenetxea Porcel
Otsailaren 20an, 2 urte. Zorionak, Libe! Ondo pasatu eta mila patxo. Etxeko guztiak eta, June abeslaria eta Maddi sorgina.

TXUTXU-MUTXUAK



- 1. Besaidekoak elurretan**

Elurretako erraketak hartu eta ederki ibili ziren Arrasateko mendizaleak joan den asteburuan Portalet inguruan. Talde argazkia ateratzeko astia ere hartu zuten, hala ere. 25 lagun inguruk hartu zuten parte irteeran. Hurrengo ere elurretara egingo dute. Martxoaren bigarren asteburuan izango da, eski alpinoa egitera, Formigalera.
- 2. Oñatitik Mañarira**

Behe-laino artean baina gustura ibili ziren Aloña Mendirekin otsailean egindako irteeran. Mañariatik Errialtabaso eta Saibi igo ondoren, Urkiolan bukatu zuten. Egun ederra pasa zuten. Asteburu honetan Pirinioetara joango dira, mendiko eski zeharkaldia egitera, eta martxoaren 19an San Romanera egingo dute irteera.

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa
Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 3

OÑATI Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa

15:00etan idatziko probak Txantxiku Ikastolan, 17:00etan saio didaktikoa Santa Anan eta 19:30ean bat-bateko txapelketa Larrain Gain elkartean.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARRASATE 'ARTEAN 2. Hamaika emakume artista' erakusketa

Gaur inauguratuko dute. Performancea, musika emanaldia, artistekin ibilbidea eta luntxa egongo dira. Ikusgai martxoaren 31ra arte.
Kulturaten, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Kalebarreneko abangoardiako artea'

Nikasio Unanuek pintura lanak erakutsiko ditu eta Luis Jose Errastik zeramikak, martxoaren 30era arte. Gaur inauguratuko dute mostra.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Ekofeminismoa; deconstruir para construir alternativas'

Kolektibo Feminista eta Ekologistako kide Ana M. Dominguezen hitzaldia, Natur Eskolaren Ingurumen Jardunaldietan.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Bertso afaria

Onintza Enbeitak eta Unai Agirrek girotuko dute bertso afaria.
Uratz Alde elkartean, 21:00etan.

ARAMAIO 'Divinas'

Virginia Imazen *clown* ikuskizuna. Eguneroko betebeharrak guztietara ezin heldurik dabilen emakume baten azalean sartuko da Imaz.
Kultura etxean, 21:30etan.

ZAPATUA 4

DEBAGOIENA Eski irteera

Valdezcarayra joango dira Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko gaztetxoak, eskia edo snowa egitera.
Gaztelekuan, 07:00etan.

OÑATI Zuhaitz azoka

Mintegi ezberdinetako loreak eta fruta-arbolak erosteko aukera, Natur Eskolaren Ingurumen Jardunaldietan.
Foruen plazan, 09:00etan.

OÑATI 'Outlet' azoka

Txandako merkataria batzuen deskontu azoka.
Denda kanpoaldeetan, 09:00etan.

ARETXABALETA 'Ixadebalde'

Merkealdien XIV. azoka. Puzgarriak eta tailerrak egongo dira umeendako.
Mitarte kalean, 09:30ean.

OÑATI Emakume artisauen azoka

Martxoaren 8a ospatzeko ekintza.
Foruen plazan, 10:00etan.

ARRASATE 'Amodio erromantikoa' tailerra

Gogoeta feminista egiteko tailerra. Bereziki, 16-20 urte bitarteko neskendako. Doan da, baina aldez aurretik eman behar da izena.
Emakume Txokoa, 10:30ean.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

Azken saioa egingo dute Musakolako ludotekan. Hankapalutan ibili eta saskibaloian jokatzeko aukera egongo da.
Ludotekan, 10:30ean.

ARRASATE 'Dinbi Danba' erakusketan bisita gidatua

Bixente Barandiarani buruzko erakusketan bisita berezia. Adin guztietarako.
Harresi aretoan, 12:00etan.

ARRASATE Andaluziako Eguna

13:00etan Alegria De La Sierra taldearen emanaldia, 19:30ean Al-Andalus abesbatzaren kantaldia, eta, afariaren ostean, Gauargi taldearen dantzaldia.
Al-Andalus elkartean, aipatutako orduetan.

ARRASATE 'Marikizkur eta hiru hartzak' antzezlan

Glu-Glu taldearen emanaldia, umeendako. Marikizkur etxetik ihes egin eta basoan galduko da. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ARETXABALETA Fun Dantz! lehiaketa

18:30ean, gazteek eta bikoteek jardungo dute nor baino nor gehiago, eta, 19:30ean, lehiaketa nagusia jokatu da. Sarrerak, aurrez, Arkupen, hiru euro, eta egunean, leihatilan, bost.
Ibarra kiroldegian, 18:30ean.

ARRASATE What A Band eta Screamers And Sinners taldeak

Kontzertua egingo dute. Doan.
Arrasate tabernan, 19:00etan.

ARRASATE Pako Parraren erakusketa

Argazkiak erakutsiko ditu artista arrasatearrak, apirilaren 4ra arte. Gaur, zabalduko da, 19:00etan.
Hilbehera tabernan.

OÑATI Trikitixa Eguna

Oñatiko eta inguruko herrietako hainbat trikitilariren jaialdia
Gaztetxean, 22:00etan.

ELGETA DJ gaua,

Alex TCren (Zornotza), Koldo Loiraren (Ondarroa) eta Xuban Laiñoren (Ondarroa) emanaldia. Doan.
Spaloian, 23:00etan.

DOMEKA 5

ARETXABALETA Gebara aldera mendi irteera

Gebara-Gaztelua-Aldaia-Etura-Gebara ibilbidea egingo dute Aretxabaletako Guraso Foroaren eta Eskoriatzako Hezkuntza Foroaren eskutik.
Herriko Plazan, 09:30ean.

ARETXABALETA Galartzako dorretxera bisita gidatua

Aitor Antxiaren kontakizunarekin. Aurrez izena eman behar da.
Galartza auzoan, 10:30ean.

ARRASATE San Balerioren eta Meatzerrekara bisita gidatua

Iraganeko Oinatzak elkartekoekin.
San Balerion, 11:00etan.

BERGARA Txistulari bandaren kalejira

Erdiguneko kaleetan ibiliko dira, Jose Luis Laskurainen zuzendaritzapean.
Kalerik kale, 11:00etan.



PEZKAO TEATRO

BERGARA 'Micro kaos' antzerkia

Zaragozako Pezkao taldeak bi ikuskizun egingo ditu: egubakoitzean, bata, eta zapatuan, bestea. Askotariko gaiak lantzen, emanaldi bakoitzean launa esketx egingo dituzte. Sarrerak, hiru euro.
Aipatutako egunetan, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

ARETXABALETA DBH1eko ikasleendako zabalik

Adin horretako neska-mutikoendako ekintzak.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ARRASATE Ttak!-ekoi bisita eta pelikula emanaldia

Gaztetxoendako ekintza.
Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.

ESKORIATZA Pelikula emanaldia

Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30ean.

OÑATI 'Okilak, basoko arotzak eta biodibertsitatea' erakusketa ikusteko azken egunak

Gaur itxiko dute Natur Eskolaren erakusketa.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Iban Urizarren kontzertua

Amorante delako diskoa aurkeztuko du bakarlariak.
Udaletxean, 19:00etan.

ASTELEHENA 6

OÑATI Udalekuetarako izen-ematea zabaldu

Uztailako udalekuetan parte hartzeko deialdia, martxoaren 24ra arte.
Udaletxean edo ludotekan.

ESKORIATZA 'Empresas de telefonía' hitzaldia

Kontsumobideren berbaldea, gaztelaraz. Telefonía zerbitzuek

egiten dituzten eskaintzei buruzko azalpenak emango dituzte.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Prevención de violencia contra la mujer'

Martxoaren 8aren harira antolatutako hitzaldia, gaztelaraz.
Ibarraundin, 19:00etan.

MARTITZENA 7

ARRASATE 'Mundutik Arrasatera' ipuin kontaketa

Nikaraguako ipuinak, 5 urtetik gorako umeendako.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Korrika batzordea

Batzar irekia.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Espazio publikoaren humanizazioa'

Prozesu sozialak irabazteko gizarteak eskatzen dituen hirigintza irizpide berrien gainean egingo du berba Hodei Zenikaonaindiak, EH Bilduk gonbidatuta.
Herriko Plazan, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia

Frank Kafkaren *La metamorfosis* liburua Ruben Ariasekin.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE Emakumeak Protagonista: Garbiñe Biurrun

Arantza Santestebanek Garbiñe Biurrun elkarriketatuko du.
Kulturaten, 19:00etan.

ESKORIATZA Bilbao Mendi Film Festivaleko film laburrak
Annapurna III-Unclimbed, The Higway, Humla, Boys in the bugs eta *Face to face* film laburrak emango dituzte, gaur. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

EGUAZTENA 8

OÑATI 'Servicios de asistencia técnica'
Kontsumobideren hitzaldia, gazteleraz. Laguntza Teknikoko Zerbitzuek eskaini beharko lituzketen zerbitzuei buruz.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak
18:30ean elkarretaratzea Herriko Plazan; 19:00etan Cinco Monos antzerki taldearen *La Mujer* antzezlanak Arkupen; eta, ostean, luntxa.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

OÑATI Emakumeen Nazioarteko Eguneko elkarretaratzea
Deialdi irekia.
Euskaltegian, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekintza
El buen vivir dokumentala emango dute.
Kultura etxean, 18:30ean.

ESKORIATZA 'Con fajas y a lo loco' antzezlanak
Tdiferencia taldearen lana, Adriana Olmedo, Maite Redin eta Maitane Perez aktoreekin, gazteleraz. Doan.
Zaldibarren, 19:00etan.

ANTZUOLA Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekintzak
19:00etan elkarretaratzea Herriko Plazan eta 20:00etan emakumeak protagonista diren film laburrak.
Aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARRASATE Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekintza
Manifestazioa Sambamaña batukadarekin eta *Asko eta askotariakoak gara. Gora feminismoak!* leloarekin.
Seber Altuben, 19:00etan.

OÑATI 'Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar'

Bost emakumeren bizitza eta obra errepasatzen dira. Ibilbidea Kuban hasten da eta Euskal Herrian du amaiera. Emakume bakoitzaren historia eta kantaren istorioa kontatzen da hasieran, eta ostean, emakumearekin lotuta dagoen pieza eskaintzen da.
Liburutegian, 19:30ean.

EGUENA 9

ARETXABALETA Doluari buruz berbetan
Adinekoen artean dolua zelan bizi azalduko du Rosa Rosado psikologoak.
Basotxon, 17:00etan.

ANTZUOLA Lehen sektoreari buruz berbetan
Lehen sektorearen gaur egungo egoera eta etorkizunean dituen erronkak azalduko dituzte. Ostean, herriko jakiekin egindako pintxo-poteoa.
Torresoroan, 18:30ean.

ESKORIATZA Bilbao Mendi Film Festivaleko film laburrak
E.B.C. 5300 m, The Trail to Kazbegi, The important places, Dodo's deligh eta *Solo base* film laburrak emango dituzte, gaur. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARRASATE Oskar Benas Y Los Herejes
Eskarmentu handiko musikariaren proiektu berria, Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Gurasoendako tailerrak
Seme-alaben adinaren arabera hainbat gai zehaztu dituzte. *Aniztasunean heziz, Elikatze kontzientea eta janariarekin lotutako nahasmenduen prebentzioa, Hazkuntza osasuntsu baterantz eta Zer egingo dut nik orain?,* hain justu ere. Izena emateko azken eguna, martxoak 10, BAZen, 943- 25 20 07 telefonoan edo *Arrasate.eus*-en *Izen-ematea, aipatutako lekuetan.*

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Lion
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El regalo de Molly Monster
Domeka: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Neskatoak
Domeka: 19:30.

Ozzy
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Lo que de verdad importa
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

Batman, la lego película
Zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Lion
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.

Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

¡Canta!
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Fences
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 20:00.

Lo que de verdad importa
Zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.

Logan
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

La vida de calabacín
Domeka: 17:00.

ANTZOKIA

La vida de calabacín
Zapatua: 17:00.

Logan
Zapatua: 19:45.

Fences
Zapatua: 22:30.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

BOULEVARD

Logan
Egubakoitzetik eguenera: 16:30,

17:45, 19:15, 20:30, 22:00.

El guardian invisible
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 17:00, 18:35, 19:35, 21:10, 22:10.

La, La, Land
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:35, 22:10.

Es por tu bien
Egubakoitzetik eguenera: 16:20, 18:20, 20:20, 22:40.

Batman, la lego película
Egubakoitzetik domekara: 15:50, 17:55.

50 sombras mas oscuras
Egubakoitzetik eguenera: 20:10, 22:35.

Trainspotting
Egubakoitzetik eguenera: 22:20.

Lo que de verdad importa
Egubakoitzetik eguenera: 16:00, 18:10.

Múltiple
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:35.

La gran muralla
Egubakoitzetik

eguenera: 16:00, 18:10, 20:20, 22:30.

Fences
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:15.

Manchester frente al mar
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

Ballerina
Egubakoitzetik eguenera: 16:15, 18:15.

Figuras ocultas
Astelehenetik eguenera: 17:00.

FLORIDA

Psiconautas
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Moonlight
Egubakoitzetik domekara: 17:45, 20:00, 22:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30, 20:00.

Lo que de verdad importa
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:00.
Astelehenetik

eguenera: 20:00.

Es por tu bien
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:30, 22:30.

Logan
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 17:00, 19:45, 22:30.
Martitzena eta eguena: 17:00, 22:30.

El guardian invisible
Egubakoitzetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

La gran muralla
Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

Jackie
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 22:30.

Manchester frente al mar
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

El viajante
Egubakoitzetik eguenera: 17:30,

20:00, 22:30.

Fences
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 22:00.

La, La, Land
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 19:30.

Trainspotting
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

Ballerina
Zapatua eta domeka: 12:00.

Ballerina (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

Vaiana
Zapatua eta domeka: 12:00.

¡Canta!
Zapatua eta domeka: 12:00.

Teresa y Tim (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 12:00.

La vida de calabacín
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

La vida de Calabacín ★★★★★
Zuz.: Claude Barras. **Herr.:** Suitza (2016). **Iraupena:** 66 minutu.

Haurren pentsaera

ANTONIO ZABALA

Claude Barras zuzendariak *stop-motion* teknika erabiltzen du ikusleak haurren unibertsoa hurbiltzeko. Fotogramaz fotograma panpinak mugitu, eta, horiek elkartzerakoan, mugimenduaren sententzia sortzen du. Protagonista *Calabacín* ezizena duen mutiko bat da. Filmak haurtzaroari buruz dihardu. Umezurtz geratzen denean, gurasorik ez duten edo haiengandik urrun bizi diren haurrendako egoitza batera joango da. Hango haur bakoitzak bere istorioa du, eta Claude Barrasek oso ondo azaltzen ditu haur guztien psikologia eta sentimenduak. Babesa eta maitasuna nahi dute jasaten ari diren egoera gainditzeko. Baina nork bere mundua du, eta, elkartzen direnean, indartu egiten dira. Argi ikusten da, alde batetik,



CINEMA

ahulak izan daitezkeela, baina, beste alde batetik, ilusioa izateko duten ahalmenak egoera zailak gainditzeko ematen dien indarra. Agertzen diren pertsonaien irudiak ez dira errealistak: haurrak txikiak dira eta trazu handiko buru eta aurpegiekin. Zuzendariak istorioari ematen dion tratamendua oso errealista

da. Film orekatua eta didaktikoa. Gurasoek eta seme-alabek ikusteko lana. Bereziki, 10 urte inguruko umeendako. Bizitzaren alderdi latzak erakusten ditu, eta, itzalak agertu arren, argiaren indarra garaile ateratzen da. Haurren pentsaeraren isla egokia da Barrasen pelikula.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Sara eta Izar

Ama naizen aldetik idazten dut zutabe hau. Ez naiz balorazio politikoetan sartuko ezaguna baita nire pentsaera presoan aferan. Baina egun hauetan burutik kendu ezinda nabil zer izango den Sararentzat bere alabarengandik urruntzea eta zer izan daitekeen umearentzat amaren babesa galtzea.

Zutabe hau kaleratzen den egunean beteko ditu 3 urte Izarrek eta ama kartzelan utzita alde egin beharko du bere ondotik. Aurrez, aitak min handia egin dio eta orain ama utzi behar du. Familiakoek zainduko dute; ondo baino hobeto, gainera. Baina ama urrun edukiko du datozen hilabeteetan. Horrelako drama bat bizi ondoren jaiotzetik zaindu eta maitatu zaituen pertsonarengandik urrundu beharra ankerra da gero. Eta Sara? Haurra kartzelan izan zuen eta azken 3 urte hauetan ia banandu barik egon ondoren eta beraien bizitzako pasadizo lazgarrienetako bat bizitzen ari direnean dator banandu beharra.

Sarak Izarrekin kalera ateratzeko aukera beharko luke kondenaren egoera aintzat hartuta eta biek ala biek elkarrekin, etxekoekin egingo liokete aurre gertatutakoari.

Horixe urtebetetzeko oparirik ederrena bientzako. Nire partetik muxu goxo bana.

BUKATZEKO



Telleriaren diseinuak, Erreginaren Galaren une baten. CARMELA FERNANDEZ



Unai Telleria ordenagailuan, diseinatzen. UNAI TELLERIA

Debagoieneko diseinuak Kanarietako Inauterietan

Las Palmasko Inauterietako bi gala garrantzitsuenetan parte hartzen duten dantzariak eta abeslariak Elgetako Unai Telleria diseinatzailearen sorkuntzak jantzen dituzte; Erreginaren Gala eta Drag Queenaren Gala dira horiek

Miren Arregi OÑATI

Kanaria Handian Inauteriak biziki maite eta ospatzen dituztela jakina da oso. Eta han zerbait ospetsu eta ezagunik bada, horiek dira Inauterietako erregina eta drag queena aukeratzeko egiten diren galak. RTVEk osorik emititzen ditu zuzenean bi gala horiek. Erregina aukeratzeko Inauterietako egubakoitzean egiten da; drag queena aukeratzeko, astelehenean. Bada, bi gala horien *opening*-ean edo hasierako zatian parte hartzen duten dantzari, abeslari eta aurkezleen jantziak diseinatzen dituen debagoien-

dar bat da, Elgetakoa, hain zuzen ere: Unai Telleria Bolinaga (1971).

Bartzelonan egin zituen diseinu ikasketak eta kaleko modaren alorrean dihardu bukatu zituenetik. Gerora, antzerki, ikuskizun eta zineman espezializatu da: "Modak eta Inauteriek ez dute zerikusirik, eta, gainera, euskaldun bat holako mundu baten... Hala ere, zerbait ondo egin dugu, seguru, 12 urte daramatzat gala horiek diseinatzen".

Urtero gai baten bueltan

Urtero gai baten bueltan egiten dira gala biak eta aurten *flower*

power izan da gaia: "60ko hamarkadan oinarrituta, Pierre Carden, hippyak... Hortik etorri zait inspirazioa", adierazi du. 130 bat pertsona jantzi ditu gala bakoi-tzean Telleriak: "Batetik bestera, diseinuetan gauzatxo batzuk aldatu ditugu, baina oinarria berdina izan da", adierazi du.

"Zorakeria hutsa"

Telleriak dio diseinatzaile bezala zoragarria dela bi gala horietako diseinuak egitea: "Burrura datorkidan guztia egiten dut, muga barik lan egiten dut, beste egoera baten egin ezingo nukeena egiten dut hemen, iru-



Galako bi diseinu. C.F

dimenera datorkidan guztia, alegia".

Polemika Drag Queenaren Galan

Asteleheneko galan, ama birjinaz mozorrotutako drag queena aterazen garaile eta apezpiku-konferentzia kexatu egin da. Horretaz galdetuta, Telleriak dio drag queen onena zela hura, bai jantzi eta bai ikuskizun aldetik, eta ez zuela zalantzarik garaile aterako zela. Apezpiku-konferentziari zuzenduta, haxe adierazi du: "Badute, bestela ere, zertaz kezkatu". Inauteriak bukatuta, Londresen da atzera ere Telleria, hura baitu aspalditik bizileku.

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA

EGUAZTENA, MARTXOAREN 8AN, 21:30EAN
GONBIDATUA AITZIBER GARMENDIA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

